

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

ENPLEGU ETA GIZARTE  
POLITIKETAKO SAILA  
*Zerbitzu Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y POLÍTICAS SOCIALES  
*Dirección de Servicios*

# EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

## ATZERRIKO BIZTANLE ETORKINEN INKESTA 2018

*Emitza nagusiak  
2019ko abenduaren 19a*

*Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo  
Espezifikoa*





## AURKIBIDE NAGUSIA

SARRERA	5
ATZERRITAR JATORRIA DUTEN BIZTANLEEI BURUZKO DATU OROKORRAK	7
1. ALDERDI OROKORRAK	9
1.1. Atzerritar jatorriko pertsonak dituzten bizikidetza-unitateen kopurua eta ezaugarriak	9
1.2. Biztanleriaren alderdi orokorrak aztertutako bizikidetza-unitateetan	10
2. IDENTIFIKAZIO-DATU NAGUSIAK	17
2.1. Sexua eta adina	17
2.2. Ikasketa-maila	19
2.3. Kultura-alderdiak	20
3. EGUNGO OKUPAZIO-EGOERA	28
3.1. Hezkuntza-jardueretan parte hartzea	28
3.2. Jarduerarekiko, okupazioarekiko eta langabeziarekiko erlazioa	29
3.2.1. Adierazle orokorrak	29
3.2.2. Biztanle landunen ezaugarriak	32
3.2.3. Biztanle langabeen egoera	37
4. EGOERA EKONOMIKO PERTSONALA	57
GIZARTE- ETA EKONOMIA-ARAZOAK ATZERRITAR JATORRIKO BIZTANLEEN ARTEAN	71
1. OSASUN-ETA GIZARTE-ARAZOAK	73
1.1. Osasun-arazoak	73
1.2. Gizarte-arazoak	73
2. ARAZO EKONOMIKOAK	77
2.1. Mantenuari buruzko adierazleak (sarrera edo errenta maila)	77
2.2. Metaketako adierazleak (etxebizitzaren kalitatea)	79
2.3. Pobreziaren eta prekaritatearen inpaktua	81
2.4. Prekaritate sozio-ekonomikoa eta erakundeen laguntza eskatzea	82

ATZERRITAR JATORRIKO 16 URTETIK GORAKO BIZTANLEEI BURUZKO BESTE DATU BATZUK	101
1. EUSKADIRA IRISTEA ETA JATORRIA	103
1.1. Euskadira iristea eta egoera erregularizatzea	103
1.2. Jatorria eta EAera iritsi aurreko testuingurua	103
1.3. Jatorriko herrialdetik irteteko testuingurua eta irteeraren ezaugarriak	105
2. JAIOTERRIAREKIKO HARREMANA	126
2.1. Senideak jatorrizko herrialdean eta familia berrelkartzea	126
2.2. Jaioterriarekiko harremanak	127
2.3. Jabetzak	128
3. EAE-KO HEZKUNTZA-ESPERIENTZIA ETA HIZKUNTZAK JAKITEA	134
3.1. Hezkuntza-esperientzia arautua EAEn	134
3.2. Hizkuntzak jakitea	136
4. LAN-ESPERIENTZIA EAE-N	147
4.1. Lana eskuratzeari buruzko alderdi orokorrak	147
4.2. Azken urteko lan-esperientzia	148
4.3. Lanarekiko gogobetetasuna	152
4.4. Alderdi osagarriak	154
5. GIZARTERATZEA, EAE-REKIN IDENTIFIKATZEA ETA ETORKIZUNEKO PROIEKTUAK	169
5.1. Gizarteratze-maila orokorrak	169
5.2. Integrazioa EAEn	172
5.3. Etorkizuneko proiektuak	173



## SARRERA

Atzerriko Biztanle Etorkinen Inkesta (ABEI) Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren lau urtean behingo lan bat da eta 2010ean egin zen lehen aldiz.

Orokorrean, ABEIren helburua Europar Batasuneko gainerako herrialdeetatik zein munduko beste herrialdeetatik iritsitako atzerriko etorkinen bizi baldintzak ezagutu, aztertu eta ebaluatzea da.

Zehatzago, biztanle horiei buruzko berariazko helburu hauek aipa daitezke:

1. Orokorrean, haien ezaugarri demografiko, sozial eta ekonomiko nagusiak ezagutzea.
2. Immigrazioaren zioak eta migrazio-proiektua ezagutzea.
3. Dauden hezkuntza- eta lan-premiak ezagutzea.
4. Euskadin duten finkatze eta gizarteratze maila ezagutzea, batez ere aztertutako biztanleek autonomia-erkidegoan daramaten bizitzan dituzten gogobetetze-mailei dagokienez.

Azterlan estatistikoa atzerritar jatorria duten biztanle atzerritar guztiei zabaldu zaie, eta, beraz, espainiar nazionalitatea lortu dutenak ere bildu ditu. Funtsezkoa da jakitea, alde horretatik, zer aurrerapen izan den nazionalizazio-prozesuan eta, aurreko horrekin batera, zer neurritan izan diren berdintasun-bermeak eskubideen lorpenean.

Emandako datuak eragiketaren hirugarren faseari dagozkio, zeina 2018ko azken hiruhilekoan gauzatu baitzen. Lehenago ABEIren zenbait aplikazio izan zirenez (2010ean eta 2014an), zenbait une historikotarako informazio konparatua dago. Hori dela-eta, analisi diakronikoarekin jarrai daiteke kolektibo horrek Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) dituen gizarte premiei heltzean.

Azkenik, txostenaren eduki zehatzari dagokionez, komeni da zehaztea haren asmoa ez dela ABEIk jorratu dituen alderdi guzti-guztien analisi oso eta xehea izatea. Horren emaitza nagusiak aurkeztea du helburu, soil-soilik. Txosten honen ezaugarri hori dela-eta, batez ere lurralde-jatorriaren arabera aldeen analisiari dagokionez, 2010ean eta 2014an ikusitako emaitzei dagokienez aldaketa kualitatiboak dakartzaten alderdiak direnean baino ez dira alderdi xeheak aztertu. Funtsezko zenbait aldagai (sexua eta nazionalitatea eskuratzea, adibidez) kontuan hartuta egindako azterketa xehatua txosten espezifikoetan gauzatuko da.





## **ATZERRITAR JATORRIA DUTEN BIZTANLEEI BURUZKO DATU OROKORRAK**







## 1. ALDERDI OROKORRAK

### 1.1. Atzerritar jatorriko pertsonak dituzten bizikidetza-unitateen kopurua eta ezaugarriak

1. 2014 eta 2018 artean jaitsiera deigarria izan du bizikidetza-unitateen kopuruak, atzerritar jatorriko pertsonak dituzten familia-etxebizitzetan edo establezimenduetan. Unitate horiek 109.137 izan ziren 2014an, baina 95.651 2018an; -% 12,4 gutxiago.

2018ko egoera erreferentziatzat hartuta, 19.024 kasutan bizikidetza-unitateetako atzerritar jatorriko pertsona guztiek espainiar nazionalitatea lortu dute (2014an baino gutxiago, 19.843 unitatetan gertatu baitzen hori; baina 2010ean baino askoz gehiago, 5.716 unitatetan gertatu baitzen). Gainerako 76.627 bizikidetza-unitateetan, bizi diren pertsonetako batek gutxienez atzerritar nazionalitateari eusten dio (kopuru hori txikiagoa izan zen 2010ean, 72.675, baina nabarmen handiagoa 2014an, 89.294).

Atzerritar jatorriko pertsona guztiak nazionalizatuta zeuzkaten bizikidetza-unitateen proportzioa % 7,3tik % 18,2ra handitu zen 2010 eta 2014 artean, baina, geroago, handitze hori moteldu egin da. 2018an, unitate guztien % 19,9 izan dira.

2. 2018an aztertutako 95.651 bizikidetza-unitateetatik, % 57,1 ezkontza edo bikote batean oinarrituta daude; % 42,5ek seme-alabak dituzte; eta % 14,6k ez dute horrelako ondorengorik. Kasuen % 13,5 guraso bakarreko familia dira. Familia-egiturak % 70,6k dituzte, baina kontuan hartutako unitateen % 29,4an oinarritzko bizikidetza-egitura ez da familia.

Datu horiek adierazten dute aldaketa garrantzitsuak gertatu direla 2014 eta 2018 artean atzerritar jatorriko biztanleen bizikidetza-egituretan, eta, gainera, lagungarriak dira ulertzeko nola gertatu den bizikidetza-unitateen guztizko kopurua gutxitzeko prozesua (1. puntuan aipatua). Adierazgarriena da nabarmen handitu dela semeak edo alabak dituzten senar-emazteen edo bikoteen kopurua, gainerako bizikidetza-moduek behera egin dutelako testuinguruan; bereziki, horrelako ondorengorik ez dutenek.

Hartara, seme-alabak zituzten senar-emazteen edo bikotekideen kopurua 2010ean 35.038 eta 2014an 36.996 izan ondoren, 40.651 izan da 2018an. Hazkunde-erritmoa bizitu da: % 5,6 izan zen 2010 eta 2014 artean; % 9,9, berriz, 2014 eta 2018 artean (+% 16, beraz, 2010 eta 2018 artean). Seme-alabak dituzten guraso bakarreko familia-unitateen kopuruak gora egin du 2010ean 11.602 izan ondoren, baina 2014 eta 2018 artean 13.594tik 12.936ra jaitsi da (-% 4,8). Oro har, seme-alabak dituzten familien kopuruak gora egin du: 48.960 izan ziren 2010ean; 51.682, berriz, 2014an; eta 53.587, azkenik, 2018an (+% 9,4, beraz, 2010 eta 2018 artean).

2010-2014 aldian nabarmen gora egin ondoren, 2014 eta 2018 artean beherakada deigarria izan du seme-alabarik gabeko senar-emazteen edo bikoteen kopuruak ere (16.084tik 13.928ra: -% 13,4), bai eta, are azkarragoa, familia-talde batean oinarrituta ez dauden unitateenak ere (41.371tik 28.137ra: -% 32). Hala eta guztiz ere, 2018ko kopurua oraindik ere 2010ekoa baino askoz handiagoa da (+ % 15,9, seme-alabarik gabeko senar-emazteen edo bikoteen kasuan 2010eko 12.017ko kopurua kontuan hartuta; eta +% 61,6 familia-talde batean oinarrituta ez dauden unitateei dagokienez, 2010eko 17.414ko kopurua kontuan hartuta).

Horrenbestez, 2018ko bizikidetza-unitateen egitura konparagarriagoa da 2010ean zegoenarekin, eta berriz ere gehiengoa dira semeak edo alabak dituzten familia: % 56 2018an; % 47,4, berriz, 2014an; baina % 62,5 zen 2010ean. Seme-alabarik gabeko senar-emazteen eta bikoteen pisuan oso aldaketa

txikiak izan dira 2018 (% 14,6) eta 2010 (% 15,3) artean, baina 2014 eta 2018 artean % 37,9tik % 29,4ra jaitsi da familia-talde batean oinarritzen ez diren unitateen pisua (balio hori, ordea, argi eta garbi dago 2010eko balioaren gainetik: % 22,2).

Testuinguru horretan, atzerritar jatorriko pertsonen bizikidetz-unitateen 2018ko egoeraren alderaketa hurbilena, nagusiki, 2010. urtearekin egin behar da, eta, datuek azkenean adierazten dutenez, aldi horretan gora egin dute nolabait unitate horiek. Hartara, 2019ko 95.651 unitateak 2010ean zeuden 78.392 unitateak baino % 22 gehiago dira.

## **1.2. Biztanleriaren alderdi orokorrak aztertutako bizikidetz-unitateetan**

3. Atzerritar jatorriko pertsonak dituzten bizikidetz-unitateetan 261.144 pertsona bizi dira, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) biztanle guztien % 12. Azken lau urteetan immigrazioak izandako beherakada eta ondorengo gorakada gorabehera, zenbakiak adierazten dute halako egonkortasun bat izan dela azkenean 2014ko kopurua kontuan hartuta (259.902 pertsona): biztanleriaren % 12 orduan ere.

2014-2018ko biztanleria-aldaketa % 0,5 positibokoa baino ez da izan. Hala ere, 2010. urteko 226.525 pertsonekin alderatzen bada (urte hartako biztanle guztien % 10,4), kontuan hartutako kolektiboa % 15,3 handitu da 2018an.

4. Kontuan hartutako 261.144 pertsonen % 19,1ek Estatuko nazionalitatea zuten jatorriz. % 29,4k, bestalde, jatorriz atzerritarrak izanik, geroago lortu dute espainiar nazionalitatea; guztira 76.805 pertsona dira, eta haietako gehienek beste nazionalitate bati ere eutsi diote (68.269 kasu). Biztanleria nazionalizatu horrek oso azkar emendatzen jarraitzen du (2014 eta 2018 artean, % 31,7), eta hala, hazkundea % 114 izan da 2010-2018 aldian.

Gaur egun espainola ez den nazionalitatea (Estatuko nazionalitatea izan gabe) duten edo nazionalitatearik ez duten biztanleak guztizkoaren % 51,5 dira: 134.404 pertsona. Balio horrek etengabe egin du behera 2010etik (143.689 pertsona), eta jaitsiera -% 6,5 izan da 2010 eta 2018 artean.

5. Oro har, EAEn bizi diren atzerritar jatorriko biztanleak 211.208 dira 2018an, erkidegoko biztanle guztien % 9,7; balio hori % 9 izan zen 2014an, eta % 8,2, berriz, 2010ean. Kolektibo hori handitzeko erritmoa egonkorra izan da: % 8,2, 2014. urteko 195.245 pertsonak kontuan hartuta; 2010 eta 2014 artekoaren antzekoa (% 8,7). Hartara, Euskadin atzerritar jatorrikoa den biztanle kopurua % 17,6 handitu da 2010 eta 2018 artean.

Atzerritar jatorriko biztanleetan, multzorik handiena Latinoamerikatik iritsitakoena da oraindik ere, % 43,0 baita, baina txikitzen ari da 2010etik (% 46,9). Europar Batasuneko (EBko) herrialderen batean jatorria duten biztanleak % 17,8 dira, eta horien kopurua ere etengabe txikitzen ari da 2010etik (% 22,3). Baina latinoamerikar jatorriko biztanleen artean ez bezala, balio absolutuetan kopurua % 7,9 handitu baita 2010 eta 2018 artean (84.157tik 90.800era), europar taldea -% 6 murriztu da 2010 (40.053) eta 2018 (37.659) artean. 2014. urtean 40.600 pertsonako kopurura iritsi ondoren, jaitsiera 2014-2018 aldiari lotuta dago (-% 7,2 aldi horretan).

Jatorria EBn zuten biztanleen kopurua 2014an egonkortu zen, eta, horrenbestez, afrikar jatorria zuten kolektiboak gaintu zuen urte hartan. Azken talde hori Euskadiko atzerritar jatorriko biztanleen % 28,3 izan da 2018an: 2010ean (% 21,7) baino nabarmen gehiago. Erreferentziazko biztanleak 2010ean 39.037 izatetik 2018an 59.705 izatera aldatu dira: % 52,9 gehiago.



Orain arte kontuan hartutako eremuak alde batera utzita, % 2,6 txinatar jatorrikoei dagokie (% 2,7 2010ean eta % 2,8, berriz, 2014an); txinatar jatorriko biztanleria % 12,8 handitu da 2010 eta 2018 artean (4.834 izatetik 5.454 izatera). EAEn bizi diren atzerritar jatorriko biztanleen gainerako % 8,3 munduko beste zona batzuetatik datoz (EBtik kanpoko Europako zonak, latinoak ez diren Amerikako herrialdeak, Asiako gainerako herrialdeak eta Ozeania). Ehuneko hori gorantz doa 2010ekoa (% 6,4) kontuan hartuta, baina ez da gehiegi urruntzen 2014kotik (% 7,9) Balio absolutuetan, erreferentziazko kolektiboa 11.502 pertsonakoa zen 2010ean, eta 17.590ekoa izan da 2018an, % 52,9 handiagoa; hau da, afrikar jatorriko biztanleek izandakoaren antzeko gorakada izan du.

6. EAEn bizi diren atzerritar jatorriko biztanleen administrazio-egoerari dagokionez, oro har alde hauek azpimarratu behar dira:

- a) Alderdi bereziki ona izan da kontuan hartutako biztanleen % 36,4k espainiar nazionalitatea lortu duela 2018an, 2014ko balioaren (% 29,9) eta 2010ekoaren (% 20) gainetik.
- b) % 0,5 baino ez da bizi EAEn erkidegoan errolatuta egon gabe (% 0,4 2010ean eta % 0,8 2014an).
- c) EAEn bizi diren atzerritar jatorriko biztanleen % 5,4k bakarrik ez dute bizileku-baimenik edo, 16 urte edo gehiago izanda, lan-baimenik. Proporzio hori etengabe txikitu da 2010eko % 13,2tik, eta 2014an % 8,6 izan ondoren.

Aipatu % 5,4 horretan, % 05 16 urtetik gorakoa da, aldi baterako bizileku-baimena du, baina ez lan-baimenik, eta % 4,9 biztanleria irregularra da, bizileku-baimenik gabekoa. Azken biztanle-kolektibo hori 10.302 pertsonakoa da. Bistakoa da kolektibo horren beheranzko joera, -% 29,6 egin baitu behera 2010etik (14.632 pertsona; urte hartako atzerritar jatorriko biztanleen % 8,1)

7. Administrazio-egoera problematikoenen inpaktua (lan-baimenik ez izatearena, 16 urte edo gehiago dituztenen artean; edo bizileku-baimenik ez izatearena edozein adinetan) % 13,2 izan zen 2010ean, % 8,6, berriz, 2014an eta % 5,4ra jaitsi da 2018an.

Murrizketa hori atzerritar jatorriko biztanleria osoaren ezaugarria da. Hala ere, 2014 eta 2018 artean, adierazleak zertxobait egin du gora jatorria Latinoamerikan (Argentina/Txile/Uruguai eta Kolonbia/Ekuador/Peru) duten talde batzuetan, baina beti egon dira batez besteko % 5,4aren azpitik. 2010. urtearekin alderatuta hobera egin arren, gainera, egoera horien inpaktuak % 10etik gorakoa izaten jarraitzen du jatorrian Paraguain (% 17,3), Latinoamerikako gainerako herrialdeetan (% 16,2) eta Afrikako gainerako herrialdeetan (% 12,3) duten biztanleen artean. 2014 eta 2018 artean, ordea, proportzioa % 19 ingurura jaitsi da jatorria Senegalen eta munduko gainerako herrialdeetan dutenen artean: % 5,7 eta % 7,5 hurrenez hurren.

Administrazio-egoera onenei dagokienez, 2018an, jatorria Argentina/Txile/Uruguain, Kolonbia/Ekuador/Peru eta Bolivian duten biztanleen % 65,3-% 75,7k Estatuko nazionalitatea eskuratu dute, eta boliviarrak nabarmen egin dute gora 2014 eta 2018 artean (% 38,5etik % 69,2ra; gorakada hori 2010 eta 2014 artean gertatu zen aipatu beste herrialdeetako biztanleei dagokienez). 2018an, gehienek (% 53,3k) Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublika multzoan ere eskuratu dute nazionalitatea.

Nazionalitatearen eskuratzeko-maila askoz txikiagoa da beste talde batzuetan, baina aipagarria da, % 25,2 eta % 35,8 artekoa, jatorria EBko mendebaldeko herrialdeetan, Latinoamerikako gainerako herrialdeetan, Magreben eta Afrikako gainerako herrialdeetan duten biztanleei dagokienez. 2014 eta 2018 artean, prozesuak portzentajezko 10 puntutik gora egin du jatorria Afrikako aipatu eremuetan duten biztanleen artean (% 20,2tik % 30,4ra Magreben, eta % 8,9tik % 25,2ra Afrikako gainerako herrialdeetan).

Proporzioa % 15,5 eta % 16,8 artekoa da jatorria Paraguain, Senegalen eta munduko gainerako herrialdeetan duten biztanleen artean. % 2,6-% 2,7koa da Txinari, Errumaniari eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuei bagagozkie.



**GEN-1. Etxean edo establezimenduan atzerritar jatorriko biztanleak dituzten bizikidetzak-unitateak. 2010 eta 2018 arteko aldia.**  
(Datu absolutuak)

	2010	2014	2018
	Abs.	Abs.	Abs.
Atzerritarren presentzia			
Atzerritarrekin	72.675	89.294	76.627
Jatorrizko atzerritarrekin	5.716	19.843	19.024
Guztira	78.392	109.137	95.651

Iturria: ABEI, 2010 eta 2018 arteko aldia Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Ekonomia Azterlanen Bulegoa

**GEN-2. Atzerritar jatorriko pertsonak dituzten bizikidetzak-unitateak, familia-taldeen motaren arabera- 2010 eta 2018 arteko aldia.**

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Familia-taldeen mota	2010		2014		2018	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Ez da familia-taldea	17.414	22,2	41.371	37,9	28.137	29,4
Seme-alabarik gabeko senar-emazteak/bikotea	12.017	15,3	16.084	14,7	13.928	14,6
Seme-alabadun senar-emazteak/bikotea	35.038	44,7	36.996	33,9	40.651	42,5
Seme-alabadun aita edo ama	11.602	14,8	13.594	12,5	12.936	13,5
Bestelako familia-taldea	2.320	3,0	1.092	1,0	0	,0
Guztira	78.392	100,0	109.137	100,0	95.651	100,0

Iturria: ABEI, 2010 eta 2018 arteko aldia Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Ekonomia Azterlanen Bulegoa

**GEN-3. Atzerritar jatorriko pertsonak dituzten bizikidetzak-unitateetako biztanleak 2010 eta 2018 arteko aldia.**

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Nazionalitatea	2010		2014		2018	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Estatukoa, jatorriz	46.943	20,7	64.656	24,9	49.935	19,1
Estatukoa, nazionalizatua	5.097	2,2	11.512	4,4	8.536	3,3
Estatukoa eta beste bat(zuk)	30.797	13,6	46.807	18,0	68.269	26,1
Beste bat(zuk)	143.630	63,4	135.865	52,3	134.364	51,5
Bat ere ez, atzerritar bat lehen	0	,0	931	,4	0	,0
Bat ere ez	59	,0	131	,1	40	,0
Guztira	226.525	100,0	259.902	100,0	261.144	100,0

Iturria: ABEI, 2010 eta 2018 arteko aldia Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Ekonomia Azterlanen Bulegoa

**GEN-4. Atzerritar jatorriko biztanleak jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2018 arteko aldia.**

**(Datu absolutuak eta % bertikalak)**

Jatorrizko eremua	2010		2014		2018	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
EBko mendebaldea	21.426	11,9	19.531	10,0	15.362	7,3
Errumania eta EBko ekialdeko beste batzuk	18.627	10,4	21.070	10,8	22.297	10,6
Magreb	27.287	15,2	30.986	15,9	38.947	18,4
Argentina, Txile, Uruguai	8.068	4,5	9.159	4,7	7.719	3,7
Kolonbia, Ekuador, Peru	33.031	18,4	31.176	16,0	30.664	14,5
Bolivia	13.870	7,7	13.499	6,9	12.825	6,1
Paraguai	5.547	3,1	5.782	3,0	6.651	3,1
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	14.318	8,0	14.826	7,6	14.488	6,9
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	9.323	5,2	13.072	6,7	18.453	8,7
Txina	4.834	2,7	5.386	2,8	5.454	2,6
Senegal	3.300	1,8	4.702	2,4	5.933	2,8
Afrikako gainerako herrialdeak	8.450	4,7	10.552	5,4	14.824	7,0
Munduko gainerako herrialdeak	11.502	6,4	15.505	7,9	17.590	8,3
Guztira	179.582	100,0	195.245	100,0	211.208	100,0

Iturria: ABEI, 2010 eta 2018 arteko aldia Eusko Jaurlaritzan. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Ekonomia Azterlanen Bulegoa

**GEN-5. Nazionalizatuta dauden atzerritar jatorriko pertsonen ehunekoa, jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2018 arteko aldia.**

Jatorrizko eremua	2010		2014		2018	
	Nazionalizatua	Atzerritarra	Nazionalizatua	Atzerritarra	Nazionalizatua	Atzerritarra
	%	%	%	%	%	%
EBko mendebaldea	19,1	80,9	25,6	74,4	26,9	73,1
Errumania eta EBko ekialdeko beste batzuk	5,8	94,2	4,6	95,4	2,6	97,4
Magreb	19,8	80,2	20,2	79,8	30,4	69,6
Argentina, Txile, Uruguai	37,6	62,4	64,8	35,2	65,3	34,7
Kolonbia, Ekuador, Peru	33,8	66,2	62,3	37,7	75,7	24,3
Bolivia	11,2	88,8	38,5	61,5	69,2	30,8
Paraguai	2,4	97,6	10,7	89,3	15,5	84,5
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	30,2	69,8	49,7	50,3	53,3	46,7
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	24,4	75,6	32,5	67,5	35,8	64,2
Txina	5,3	94,7	4,1	95,9	2,7	97,3
Senegal	4,7	95,3	7,7	92,3	16,8	83,2
Afrikako gainerako herrialdeak	17,8	82,2	8,9	91,1	25,2	74,8
Munduko gainerako herrialdeak	8,0	92,0	11,4	88,6	16,3	83,7
Guztira	20,0	80,0	29,9	70,1	36,4	63,6

Iturria: ABEI, 2010 eta 2018 arteko aldia Eusko Jaurlaritzan. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Ekonomia Azterlanen Bulegoa


**GEN-6. Atzerritar jatorriko biztanleak EAEn duten erroldatze-egoeraren eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2018 arteko aldia.**

(% horizontalak)

Jatorrizko eremua	2010					2014					2018				
	EAEn erroldatuta emandako denbora:					EAEn erroldatuta emandako denbora:					EAEn erroldatuta emandako denbora:				
	Betidanik	> 5 urte	< 5 urte	Erroldatu gabe	Guztira	Betidanik	> 5 urte	< 5 urte	Erroldatu gabe	Guztira	Betidanik	> 5 urte	< 5 urte	Erroldatu gabe	Guztira
	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.
EBko mendebaldea	17,7	65,0	17,1	,2	100,0	13,2	71,7	11,5	3,6	100,0	15,1	76,8	7,9	,3	100,0
Errumania eta EBko ekialdeko beste batzuk	5,3	49,0	44,9	,8	100,0	14,7	65,1	19,0	1,2	100,0	19,7	70,0	10,3	,1	100,0
Magreb	17,5	52,2	29,8	,5	100,0	18,1	55,4	26,3	,3	100,0	25,9	53,3	20,1	,6	100,0
Argentina, Txile, Uruguai	2,6	67,5	28,7	1,2	100,0	2,7	80,1	16,8	,3	100,0	7,9	85,1	7,0	,0	100,0
Kolonbia, Ekuador, Peru	3,4	67,2	29,3	,2	100,0	3,9	78,5	17,1	,4	100,0	5,4	82,1	11,2	1,4	100,0
Bolivia	1,5	66,4	31,8	,3	100,0	11,7	76,8	11,5	,0	100,0	10,8	84,3	4,9	,0	100,0
Paraguai	,4	31,5	67,7	,4	100,0	2,8	63,0	34,2	,0	100,0	1,6	72,6	25,8	,0	100,0
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	4,9	60,3	34,3	,5	100,0	8,4	72,3	19,0	,2	100,0	6,4	81,3	11,9	,5	100,0
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	2,6	55,2	41,5	,6	100,0	6,1	50,0	42,4	1,6	100,0	7,2	66,3	25,4	1,1	100,0
Txina	12,4	56,9	30,7	,0	100,0	17,4	52,9	29,7	,0	100,0	29,8	60,0	10,2	,0	100,0
Senegal	7,8	43,9	48,3	,0	100,0	7,8	61,9	29,9	,4	100,0	20,2	59,4	20,4	,0	100,0
Afrikako gainerako herrialdeak	17,1	55,1	27,8	,0	100,0	9,5	51,2	39,1	,2	100,0	22,4	54,5	22,5	,6	100,0
Munduko gainerako herrialdeak	6,9	46,9	46,2	,0	100,0	11,0	47,4	40,7	,9	100,0	16,7	56,5	26,8	,0	100,0
Guztira	8,4	57,9	33,3	,4	100,0	10,5	64,8	23,9	,8	100,0	15,1	68,3	16,0	,5	100,0

Iturria: ABEI, 2010 eta 2018 arteko aldia Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Ekonomia Azterlanen Bulegoa

**GEN-7. Atzerritar jatorriko biztanleak, administrazio-egoeraren arabera. 2010 eta 2018 arteko aldia.**

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Egoera administratiboa	2010		2014		2018	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Espainiar nazionalitatea	35.894	20,0	58.318	29,9	76.805	36,4
Bizileku iraunkorra	89.217	49,7	88.878	45,5	106.581	50,5
Aldi baterako bizilekua (lan-baimenik gabe)	17.345	9,7	6.798	3,5	2.162	1,0
Aldi baterako bizilekua (lan-baimenarekin)	22.496	12,5	27.690	14,2	13.897	6,6
Beste lege-egoera bat	0	,0	514	,3	1.461	,7
Irregularra	13.703	7,6	11.827	6,1	9.705	4,6
Gertatzez irregularra	929	,5	1.220	,6	596	,3
Guztira	179.582	100,0	195.245	100,0	211.208	100,0

Iturria: ABEI, 2010 eta 2018 arteko aldia Eusko Jaurlaritzak. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Ekonomia Azterlanen Bulegoa

**GEN-8. Atzerritar jatorriko biztanleak, administrazio-egoeraren eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2018 arteko aldia.**

(% horizontalak)

Jatorrizko eremua	Urtea								
	2010			2014			2018		
	Lege-egoera			Lege-egoera			Lege-egoera		
	Lan- eta bizileku-eskubidea	Aldi baterako bizilekua (lan-baimenik gabe)	Irregularra	Lan- eta bizileku-eskubidea	Aldi baterako bizilekua (lan-baimenik gabe)	Irregularra	Lan- eta bizileku-eskubidea	Aldi baterako bizilekua (lan-baimenik gabe)	Irregularra
% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.
EBko mendebaldea	97,2	2,1	,6	100,0	,0	,0	100,0	,0	,0
Errumania eta EBko ekialdeko beste	98,7	1,1	,3	100,0	,0	,0	100,0	,0	,0
Magreb	91,3	5,2	3,5	91,4	2,6	5,9	96,2	,9	2,8
Argentina, Txile, Uruguai	82,9	7,8	9,3	97,3	,2	2,5	95,4	,7	3,9
Kolonia, Ekuador, Peru	92,2	6,3	1,6	97,7	1,8	,5	97,5	,3	2,2
Bolivia	75,1	8,3	16,5	92,2	2,1	5,7	98,1	,1	1,8
Paraguai	52,0	6,0	42,0	75,2	4,0	20,8	82,7	,3	17,0
Brasil, Venezuela, Dominikar	82,2	5,5	12,4	91,7	,9	7,3	94,0	1,2	4,9
Latinoamerikako gainerako	79,2	2,8	18,0	72,5	4,7	22,9	83,8	,5	15,7
Txina	94,5	5,1	,4	98,1	1,9	,0	98,1	,0	1,9
Senegal	69,7	4,8	25,6	80,8	1,1	18,1	94,3	1,0	4,7
Afrikako gainerako herrialdeak	79,6	6,2	14,2	82,0	3,2	14,8	87,7	,9	11,5
Munduko gainerako herrialdeak	73,9	7,8	18,3	81,4	3,2	15,3	92,5	1,0	6,5
Guztira	86,8	5,1	8,1	91,4	1,9	6,7	94,6	,5	4,9

Iturria: ABEI, 2010 eta 2018 arteko aldia Eusko Jaurlaritzak. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Ekonomia Azterlanen Bulegoa





## 2. IDENTIFIKAZIO-DATU NAGUSIAK

### 2.1. Sexua eta adina

8. 2018an, atzerritar jatorriko biztanleen artean, sexuaren arabera banaketak oraindik ere adierazten du kolektiboaren "feminizatzeko"-prozesua gertatzen ari dela. Hartara, emakumezko biztanleen pisua erlatiboak gora egin du: 2010. urtean % 51,6 izan zen; 2014an, berriz, % 53,1; eta 2018an, azkenik, % 55,1. Atzerritik iritsitako gizonetzko biztanleen kopurua % 9,1 handitu da 2010 eta 2018 artean, baina emakumezkoena % 25,6. Izan ere, gizonen artean, biztanleriaren lau urteko hazkunde-erritmoa % 5,3tik % 3,7ra jaitsi da 2010-2014 alditik 2014-2018 aldira. Emakumezkoen artean, berriz, hazkundeak egonkor jarraitu du, lau urteko % 12 inguruan (% 12,0 eta % 12,2, hurrenez hurren).

Atzerritar jatorriko kolektiboan gizonen eta emakumeen dagokien proportzio orokorrak desoreka handiak ezkututzen ditu talde askotan sexuaren arabera banaketan, jatorria kontuan hartuta. Hartara, emakumeen proportzioa batez besteko % 55,1etik gorakoa da Errumaniatik eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuetatik iritsitako biztanleen artean, bai eta Latinoamerikatik iritsitako taldeetan ere (balioak % 66tik gorakoak dira jatorria Paraguan, Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublikan eta Latinoamerikako gainerako herrialdeetan dutenen artean). Latinoamerikar jatorriko biztanleei dagokienez, Argentina/Txile/Uruguako taldea baino ez dago % 60tik behera 2018an, % 55,5 hartzen baitu (Errumaniak eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuek duten balioaren antzekoa: % 56,1).

Guztiz bestaldera, gizonen pisua % 55 edo handiagoa da jatorria EBko mendebaldeko herrialdeetan, Magreben eta Senegalen duten biztanleen artean, eta baliorik handiena, % 68,9, senegaldarrei dagokie.

Jatorria Txinan, Afrikako gainerako herrialdeetan eta munduko gainerako herrialdeetan duten biztanleei dagokienez baino ezin esan daiteke oinarritzko oreka dagoela biztanleriaren banaketan gizonen eta emakumeen artean.

2014-2018an, azpimarragarria da asko handitu izana emakumeen proportzioa Afrikatik iritsitako biztanle-taldeetan, emakume horiek oraindik 2014an presentzia txikia izan ondoren. Hala, azken lau urteetan, emakumeen proportzioa % 23,8tik % 31,1era handitu da Senegalen kasuan (+7,3 portzentajezko puntu), % 40,1etik % 44,8ra Magrebi dagokionez (+4,7 portzentajezko puntu) eta, oso nabarmen, Afrikako gainerako herrialdeen kasuan (% 38,5etik % 51,1era; portzentajezko + 12,7 puntu). Oso talde feminizatueta, emakumearen pisuaren hazkunde mota hori jatorria Paraguan duten biztanleen artean baino ez da ikusten: emakumezko biztanleen pisua % 71,0tik % 75,3ra handitu da (portzentajezko +4,3 puntu).

9. EAEn atzerritar jatorriko biztanleen multzo nagusia 25-44 urtekoa da oraindik ere, % 40,1 baitira, eta ondoren 25 urtez azpiko pertsonak daude, % 31,5 (% 21,8 16 urtez azpikoak dira eta % 9,7 16-24 urtekoak). Multzoaren % 28,4 45 urtetik gorakoa da.

Ehuneko horien azpian 2014-2018an izandako aldaketa batzuk ezkututzen dira, gutxienez hiru prozesu demografiko garrantzitsu izan baitira. Lehena, eta ziur aski aipagarriena gizarte-ikuspuntutik, 16 urtetik beherako biztanleen kopurua handitu izana da. 2010. urtean 30.098 izan ondoren, 46.055 izan da 2018an, eta iguera % 53koa izan da 2010-2018 aldian. Gorakadak, gainera, bizkortzeko joera izan du, lau urteko biztanle-gorakada % 16,1ekoa izan baitzen 2010 eta 2014 artean, eta % 31,8koa, berriz, 2014 eta 2018 artean. 16 urtetik beherako kolektiboak Euskadiko atzerritar jatorriko biztanleriaren duen pisua 2010ean % 16,8koa eta 2014an % 17,9koa izatetik 2018an % 21,8koa izatera aldatu da.

16 urtetik beherako biztanle kopurua handitzea, neurri handi batean, atzerritar jatorriko biztanleen artean ICF epe laburreko ugalkortasun-indizea (edo emakumeko seme-alaba kopurua) asko handitzeko prozesuaren ondorio da<sup>1</sup>. Izan ere, Euskadin testuinguru adierazgarri batean gertatu da 16 urtetik beherako pertsonen kopuruak gora egitea, eta testuinguru hori da bigarren gertaera demografiko garrantzitsua, 25-44 urtekoen kopuruak behera egin baitu atzerritar jatorriko biztanleen artean. Kopurua 84.347tik 94.313ra handitu ondoren 2010 eta 2014 artean, talde hori 84.649 pertsonakoa izan da 2014 eta 2018 artean; hau da, -% 10,2 txikitu da azkenaldi horretan.

Biztanleriaren murrizketa garbiko prozesuak 16-24 urteko biztanleei eragin zien 2010 eta 2014 artean, baina paralizatzen jo zuen 2010 eta 2014 artean. Kasu horretan, biztanle kopurua 31.002tik 20.426ra jaitsi zen aldi horretan, eta atzerritar jatorriko biztanleen banaketan zegoen pisua % 10,5 baino ez zen izan 2014. urtean, 2010ean % 17,3 izan ondoren. 2014 eta 2018 artean, adin horietako biztanleen kopurua 20.542ko balioan egonkortu da; guztizkoaren % 9,7, 2018. urtean.

Oro har, nolana ere, 16-44 urteko atzerritar jatorriko biztanleen pisua 2010. urtean % 64,2 izan ondoren % 49,8 izan da 2018an. Dinamika horrek zerikusia du adin aktiboan dauden atzerritar jatorriko biztanleen zati bat krisiaren amaierako fasean EAEtik ateratzeko prozesuekin.

Azterritar jatorriko kolektiboa zahartzeari lotutakoa da hirugarren prozesu demografiko garrantzitsua. Hartara, 45 urtetik gorako pertsonen kasuan, biztanle kopurua handitzeko urte arteko erritmoek % 30etik gorakoak izaten jarraitu dute (% 33,4 2010 eta 2014 artean; eta % 31,6, berriz, 2014 eta 2018 artean). Eta hala, 45 urtetik gorako atzerritar jatorriko biztanleen kopurua 2010ean 34.136 izan ondoren 59.962 izan da (+% 75,7). Kolektibo hori 2010ean aztertutako biztanleen % 19 baino ez zen, baina guztizkoaren % 28,4 izan da 2018an.

Aldaketa horiek adierazgarriak dira; izan ere, 16-44 urteko biztanleen kopurua gutxitzeko testuinguruan (105.191 pertsona 2018an; 115.000 inguru, berriz, 2010ean eta 2014an), atzerritar kolektiboaren aldaketa demografikoek berekin dakarte pisu erlatibo handiagoa izatea bai 16 urtetik beherako seme-alabak dituzten familiek bai 45 urtetik gorako pertsonen.

Ikusitako dinamika demografikoek jokabide berezia dute jatorri geografikoaren arabera. 16 urtetik beherako biztanleei dagokienez, dagokien ehunekoa handiagoa da afrikar jatorrikoen artean (% 29,9 Senegalen kasuan; % 35,2 Magrebi dagokionez; eta % 37,7 Afrikako gainerako herrialdeen kasuan), baina bai eta jatorria Txinan (% 30,9) eta munduko gainerako herrialdeetan (% 28,5) dutenen artean ere. Era berean, argi eta garbi gaintzen da batezbesteko orokorra jatorria Errumanian eta Europako ekialdeko beste herrialdeetan dutenen multzoan (% 26,9).

% 49,8 orokorrerikiko alderaketan, 16-44 urteko biztanleen pisua, ordea, askoz handiagoa da kasu hauetan: Paraguai (% 66,8), Bolivia (% 58,6) eta Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublika (% 55,6). Jatorria Latinoamerikan duten beste multzo batzuetan, proportzioa txikixeagoa da, baina oraindik argi eta garbi handiagoa batezbestekoa baino; adibidez, Kolonbia/Ekuador/Perun (% 54,7) edo Latinoamerikako gainerako herrialdeetan (% 52,7). Baina bi multzo horietan 45 urtetik gorako pisuak, halaber, batezbesteko orokorra gaintzen du, eta balioak, hurrenez hurren, % 36 eta % 33 dira; Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublika taldean ere ehunekoa handia da: % 33,2.

---

<sup>1</sup> Euskadin atzerritar nazionalitatea duten biztanleen artean, 1,88tik 1,67 jaitsi ondoren 2008 eta 2010 artean, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuen arabera, azken urte horretatik aurrera adierazlea etengabe handitu zen, emakumeko 2,39 seme-alabakoa izan arte 2016an. Ordudanik beherantz egin du ICFk, bereziki 2016 eta 2017 artean, baina oraindik ere 2,22 da 2018an: 2008koa baino portzentajezko 0,34 puntu handiagoa.



45 urtetik gorako biztanleen pisua, ordea, ezaugarri dute jatorria Argentina/Txile/Uruguain duten biztanleek bezala EBko mendebaldeko herrialdeetan dutenek ere (% 47,4 eta % 58,4, hurrenez hurren).

## 2.2. Ikasketa-maila

10.- 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko herritarren % 78,2k ez du ikasketa kualifikaturik. Ikasketarik gabeko pertsonak % 12,9 dira; % 26,6k lehen mailako ikasketak egin dituzte, eta % 38,7k lehen mailako ondorengo ikasketa ez-kualifikatuak (% 31,2k bigarren mailakoak eta % 7,5ek Erdi Mailako LHkoak). Ikasketa kualifikatuak dituztenen artean (% 21,8), % 6,2k goi-mailako LHko ikasketak dituzte eta % 15,6k hirugarren mailakoak, bidean edo amaituta.

Emandako balio horiek neurri handi batean errepikatzen dute 2010eko eta 2014ko egitura, baina aipatzea komeni den aldaketa-dinamika batzuk daude. Gorantz ari diren kolektiboan artean, ikasketarik ez duten edo derrigorrezko ikasketak baino egin ez dituzten biztanleen pisu erlatiboak gora egin du. Talde hori aztertutako populazioaren % 36,9 izan zen 2010. urtean; % 38,2, berriz, 2014an; eta % 39,5, azkenik, 2018an. Taldearen barruan, % 12,9 balioa ikasketarik gabeko pertsonen dagokie. Proporzio hori ez da handitu 2014 eta 2018 artean, baina 2010ekoa (% 8,2) baino handiagoa da. Balio absolutuetan, ikasketarik gabeko kolektibo hori % 75 handitu da 2010 eta 2018 artean (12.193 pertsona izatetik 21.339 izatera), baina % 2,1 baino ez derrigorrezko ikasketak dauzkaten pertsonen dagokienez (42.960tik 43.859ra).

Oro har, ikasketarik gabeko biztanleria edo derrigorrezko ikasketak dituenak Euskadin gehien handitu dena 2010-2018 aldian 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko biztanleen artean (% 11,1 2010 eta 2014 artean, eta % 6,4, berriz, 2014 eta 2018 artean).

Biztanleriaren hazkundera askoz txikiagoa da, edo are negatiboa ere, kualifikazio-maila handieneko taldeetan. Hala, lau urteko hazkundera % 4,9tik % 5,1era artekoa izan zen 2010-2014 aldian, baina 2014-2018 aldian gehikuntza % 1,8ra murriztu da lehen mailako ondorengo ikasketa ez-kualifikatuak (bigarren mailakoak edo Erdi Mailako LHkoak) dituzten biztanleen artean, eta negatiboa izan da (-% 0,5) ikasketa kualifikatuak (Goi Mailako LHkoak edo hirugarren mailako ikasketak) dituzten biztanleentz dagokienez. Azken kolektibo horretan, dinamika okerragoa da hirugarren mailako ikasketak dituzten pertsonen kasuan. 2010 eta 2014 artean 27.104tik 27.798ra igo ondoren, 2018ko kopurua, 25.801, -% 7,2 txikiagoa da 2014koa baino eta -% 4,8 txikiagoa 2010ekoa baino. Hirugarren mailako ikasketak dituen kolektibo horri 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko biztanleen artean dagokion proportzioa % 18,1 izan zen 2010ean, % 17,3, berriz, 2014an eta % 15,6 izan da 2018an.

Ikasketak izateak nabarmenki bereizten ditu atzerritar jatorriko biztanleak beren etorkiaren arabera. Ikasketa gutxien dituztenei dagokienez, herrialde multzo batzuk nabarmentzen dira, berorietan gehienez ere lehen mailako ikasketak izan dituzten 16 urtetik gorako pertsonen proportzioa % 50 ingurukoa edo handiagoa baita, eta ikasketa kualifikatuak dituztenen pisu erlatiboa % 15etik beherakoa. 2018an, egoera hori dute ezaugarri etorkia Afrikan duten taldeek eta Txinan duenak. Afrikako gainerako herrialdeetan izan ezik, kontuan hartutako talde guztietan gora egin du ikasketarik ez duten edo derrigorrezko ikasketak dituzten pertsonen proportzioak 2014 eta 2018 artean.

Bitarteko posizioan, biztanleen % 45 inguruk edo gehiagok bigarren mailako ikasketak dauzkate, baina balioak % 25 ingurukoak edo txikiagoak dira ikasketa kualifikatuak. Egoera hori dute ezaugarri jatorria Latinoamerikan (Kolonbia/Ekuador/Peru, Bolivia, Paraguai eta Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublika) duten zenbait taldek. Era berean, posizio hori Errumaniatik eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuetatik iritsitako pertsonen ezaugarri bereizgarria da.

Talde horretan, ordea, desberdin samarrak diren barne-dinamika batzuk hautematen dira. Hala, Boliviaren kasuan, gora egin du lehen mailako ikasketak edo derrigorrezkoak dituzten biztanleen pisuak (% 37,1 2018. urtean; 2010ean % 34,5 eta 2014an % 31,9 izan ondoren). Kolonbia/Ekuador/Peruri dagokienez, berriz, gora egin du ikasketa kualifikatuak dituzten pertsonen proportzioak: % 15,5 2010ean; % 18,1, 2014an; eta % 24,4 2018an).

Ikasketa mailarik handieneko aldean, ikasketa kualifikatuak dituzten biztanleen pisu erlatiboa % 30etik gertukoa edo handiagoa da latinoamerikar jatorriko gainerako taldeetan (Argentina/Txile/Uruguai eta Latinoamerikako gainerako herrialdeak). Gauza bera gertatzen da EBko mendebaldeko herrialdeetatik eta Munduko gainerako herrialdeetatik iritsitakoen artean, baina kasu horretan ere bigarren edo hirugarren mailako ikasketarik egin ez duten pertsonen proportzioa batezbestekoa baino handiagoa da.

Aipatutako azken lau taldeetan, ordea, nabarmen egin du behera (gutxienez portzentajezko -2 puntu) 2014 eta 2018 artean ikasketa kualifikatuak dituzten pertsonen proportzioak. Gainera, oso igoera nabarmena (eta etengabea 2010etik) izan du ikasketarik ez duten edo derrigorrezko ikasketak dituzten pertsonen proportzioak Latinoamerikako eta munduko gainerako herrialdeen kasuan (% 21,3 2010ean eta % 33,1 2018an; eta % 24,9 eta % 39,4, hurrenez hurren).

### 2.3. Kultura-alderdiak

11.- 2018an, atzerritar jatorriko biztanleen % 13,8k identifikazio mota espezifikoren bat adierazi du berariaz: nazionala, etnikoa, kulturala edo erlijiosoa. Erlijiosoa da atxikipen nagusia: pertsonen % 8,4k kontu hori nabarmentzen dute (% 4,6k kristau-erlijioei dagokienez; % 3,7k erlijio musulmanaz den bezainbatean; eta gainerakoek beste batzuek). Proportzioa % 3,9koa da lurralde-oinarriko identifikazio nazionalaren adierazpideei lotuta, eta % 1,5ekoa identifikazio etniko edo kulturalen kasuetan.<sup>2</sup>

12. Bizi diren lekuko komunikazio-hizkuntzari dagokionez, nabarmentzen da oso zabalduta dagoela gaztelaniaren erabilera, 2018an atzerritar jatorriko biztanleen % 69,7k erabili baitute, 2010. urteaz geroztik (% 58,9) erabilera hori etengabe handitu ondoren. Ehuneko horiek ez dute batere zerikusirik euskarari dagokion % 5,9arekin. Euskararen lehentasunezko erabilera, ordea, 2010 eta 2014 artean jaitsi ondoren (% 1,3tik % 0,6ra), nabarmen igo da 2014 eta 2018 artean.

Arabiera da atzerritar jatorriko biztanleek asko erabiltzen duten beste hizkuntza bat; biztanle horien % 7,8rentzat da erabilera nagusiko hizkuntza. Hala ere, 2010 eta 2014 artean % 9,2tik % 10,8ra handitu ondoren, jaitsiera handia izan da 2014-2018 aldian. Errumanieraren erabilera ere ezaugarritzen du beheranzko joerak; 2010ean erabilera handiena izan zuen, % 7,5ekoa, baina 2018an % 4,1ekoa.

Beste hizkuntza batzuen ezarpena askoz txikiagoa da. % 2,1ek urduera erabiltzen dute; % 1,7k ingelesa; % 1,7k txinera; eta % 1,4k portugesa. Kasu horietan ere argi eta garbi jaitsi da erabilera 2014tik. Urduera da salbuespen bakarra; zertxobait igo da 2010etik (% 1,4) eta 2014tik (% 2,0).

Jatorria Txinan duten biztanleen % 64,3k txinera erabiltzen dute lehentasunez etxean, jatorria Magreben dutenen % 41,5ek arabiera, eta errumaniarren % 38,6k errumaniera. Jatorria munduko gainerako herrialdeetan dutenen % 25,1ek urduera erabiltzen dute nagusiki etxean.

---

<sup>2</sup> Komeni da esatea 2010eko eta 2014ko ehunekoak 2018koak baino askoz handiagoak izan zirela. Adibidez, identifikazio erlijiosoaren ehunekoa % 8,3 izan zen 2018an, baina 2014an % 30,3ra artekoa zen, 2010ean % 18,4 izan ondoren. 2018an, ordea, baliatutako galdera adierazpeneko borondatezko tasan-printzipioari espresuki lotuta dago. Horregatik, gertatutako beherakada handia ezin da automatikoki ulertu gutiz amaitutako joera bat delako ikuspuntutik.



**ID-1. Atzerritar jatorriko biztanleak, sexuaren arabera. 2010 eta 2018 arteko aldia  
(Datu absolutuak eta % bertikalak)**

Sexua	2010		2014		2018	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Gizonezkoak	86.984	48,4	91.571	46,9	94.937	44,9
Emakumezkoak	92.598	51,6	103.675	53,1	116.272	55,1
<b>Guztira</b>	<b>179.582</b>	<b>100,0</b>	<b>195.245</b>	<b>100,0</b>	<b>211.208</b>	<b>100,0</b>

Iturria: ABEI, 2010 eta 2018 arteko aldia Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Ekonomia Azterlanen Bulegoa

**ID-2. Atzerritar jatorriko biztanleak, sexuaren eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2018 arteko aldia  
(% horizontalak)**

Jatorrizko eremua	2010		2014		2018	
	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Emakumezkoak
	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.
EBko mendebaldea	57,2	42,8	52,8	47,2	54,1	45,9
Errumania eta EBko ekialdeko beste batzuk	48,6	51,4	45,8	54,2	43,9	56,1
Magreb	59,2	40,8	59,9	40,1	55,2	44,8
Argentina, Txile, Uruguai	48,6	51,4	45,7	54,3	44,5	55,5
Kolonbia, Ekuador, Peru	43,5	56,5	40,5	59,5	39,9	60,1
Bolivia	41,7	58,3	39,0	61,0	37,4	62,6
Paraguai	39,1	60,9	29,0	71,0	24,7	75,3
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	36,3	63,7	36,1	63,9	33,8	66,2
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	27,1	72,9	28,5	71,5	28,7	71,3
Txina	52,7	47,3	48,8	51,2	49,3	50,7
Senegal	78,2	21,8	76,2	23,8	68,9	31,1
Afrikako gainerako herrialdeak	53,2	46,8	61,5	38,5	48,9	51,1
Munduko gainerako herrialdeak	51,6	48,4	48,5	51,5	51,1	48,9
<b>Guztira</b>	<b>48,4</b>	<b>51,6</b>	<b>46,9</b>	<b>53,1</b>	<b>44,9</b>	<b>55,1</b>

Iturria: ABEI, 2010 eta 2018 arteko aldia Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Ekonomia Azterlanen Bulegoa

**ID-3. Atzerritar jatorriko biztanleak, adinaren arabera. 2010 eta 2018 arteko aldia  
(Datu absolutuak eta % bertikalak)**

Adina	2010		2014		2018	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
0-5 urte	10.506	5,9	14.723	7,5	17.567	8,3
6-15 urte	19.592	10,9	20.229	10,4	28.489	13,5
16-24 urte	31.002	17,3	20.426	10,5	20.542	9,7
25-44 urte	84.347	47,0	94.313	48,3	84.649	40,1
45-64 urte	31.971	17,8	39.420	20,2	51.862	24,6
65 urte edo gehiago	2.165	1,2	6.134	3,1	8.100	3,8
<b>Guztira</b>	<b>179.582</b>	<b>100,0</b>	<b>195.245</b>	<b>100,0</b>	<b>211.208</b>	<b>100,0</b>

Iturria: ABEI, 2010 eta 2018 arteko aldia Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Ekonomia Azterlanen Bulegoa

**ID-4. Atzerritar jatorriko biztanleak, adinaren eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2018 arteko aldia.**

(% horizontalak)

	2010			2014				2018				
	Betetako adina				Betetako adina				Betetako adina			
	< 16 urte	16-24 urte	25-44 urte	45 urte eta gehiago	< 16 urte	16-24 urte	25-44 urte	45 urte eta gehiago	< 16 urte	16-24 urte	25-44 urte	45 urte eta gehiago
	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.
Jatorrizko eremua												
EBko mendebaldea	11,6	10,8	48,3	29,3	13,6	6,9	30,0	49,6	9,6	6,3	25,7	58,4
Errumania eta EBko ekialdeko beste batzuk	15,8	19,3	45,1	19,9	23,7	8,4	50,7	17,1	26,9	7,8	44,3	21,1
Magreb	24,3	14,5	43,7	17,5	26,0	9,8	49,0	15,2	35,2	8,2	36,6	20,0
Argentina, Txile, Uruguai	13,2	19,5	37,5	29,7	8,6	7,9	45,8	37,8	10,5	10,0	32,0	47,4
Kolonia, Ekuador, Peru	15,4	22,1	43,9	18,6	10,6	17,0	47,7	24,8	9,3	15,0	39,8	36,0
Bolivia	19,6	17,2	49,4	13,8	23,1	9,1	51,4	16,3	18,3	14,6	44,0	23,1
Paraguai	11,7	20,1	54,4	13,8	11,2	12,4	56,8	19,6	8,8	14,2	52,6	24,5
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublikak	11,3	24,2	43,8	20,6	16,6	14,2	46,3	22,9	11,2	13,4	42,2	33,2
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	9,4	14,4	58,0	18,2	12,7	9,5	54,1	23,6	14,2	5,8	47,0	33,0
Txina	19,8	17,6	47,8	14,8	23,7	9,9	45,3	21,1	30,9	9,4	40,4	19,4
Senegal	16,4	10,8	62,7	10,0	16,9	8,7	54,9	19,5	29,9	6,2	50,3	13,6
Afrikako gainerako herrialdeak	24,0	17,3	51,0	7,7	22,2	8,1	56,1	13,6	37,7	7,8	40,6	13,9
Munduko gainerako herrialdeak	21,7	11,2	51,4	15,7	18,6	7,5	54,2	19,8	28,5	8,1	38,6	24,9
Guztira	16,8	17,3	47,0	19,0	17,9	10,5	48,3	23,3	21,8	9,7	40,1	28,4

Iturria: ABEI, 2010 eta 2018 arteko aldia Eusko Jaurlaritzak. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Ekonomia Azterlanen Bulegoa

**ID-5. 16 urte eta gehiago dituzten atzerritar jatorriko biztanleak, ikasketa-mailaren arabera. 2010 eta 2018 arteko aldia**

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

	2010		2014		2018	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Ikasketa-maila						
Ikasketa adierazgarririk gabe	12.193	8,2	20.610	12,9	21.339	12,9
Derrigorrezkoak	42.960	28,7	40.679	25,4	43.859	26,6
Bigarren mailakoak	52.872	35,4	53.366	33,3	51.597	31,2
LH I/Erdi-maila	7.008	4,7	9.436	5,9	12.335	7,5
LH II/Goi-maila	7.347	4,9	8.405	5,2	10.222	6,2
Hirugarren mailako ikasketak	27.104	18,1	27.798	17,3	25.801	15,6
Guztira	149.484	100,0	160.294	100,0	165.153	100,0

Iturria: ABEI, 2010 eta 2018 arteko aldia Eusko Jaurlaritzak. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Ekonomia Azterlanen Bulegoa



ID-6. 16 urte eta gehiago dituzten atzerritar jatorriko biztanleak, ikasketa-mailaren eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2018 arteko aldia  
(% horizontalak)

	2010			2014			2018		
	Lehen mailako ikasketak edo gutxiago	Bigarren mailakoak edo Erdi Mailako LH	Goi-mailako LH edo hirugarren mailakoak	Lehen mailako ikasketak edo gutxiago	Bigarren mailakoak edo Erdi Mailako LH	Goi-mailako LH edo hirugarren mailakoak	Lehen mailako ikasketak edo gutxiago	Bigarren mailakoak edo Erdi Mailako LH	Goi-mailako LH edo hirugarren mailakoak
Jatorrizko eremua	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.
EBko mendebaldea	44,6	25,2	30,2	41,6	19,4	39,0	44,2	20,4	35,4
Errumania eta EBko ekialdeko beste batzuk	34,5	40,6	24,8	40,7	39,4	19,8	28,3	51,5	20,3
Magreb	52,3	34,6	13,2	52,6	35,9	11,5	62,4	27,1	10,5
Argentina, Txile, Uruguai	23,3	43,1	33,6	12,1	47,0	40,9	19,3	43,5	37,2
Kolonbia, Ekuador, Peru	33,3	51,2	15,5	31,1	50,8	18,1	27,8	47,8	24,4
Bolivia	34,5	48,3	17,2	31,9	59,3	8,7	37,1	49,2	13,6
Paraguai	26,4	53,4	20,2	41,4	42,1	16,5	36,2	51,5	12,2
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	30,8	46,0	23,2	30,9	39,9	29,1	28,7	45,1	26,2
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	21,3	43,1	35,6	32,2	32,6	35,2	33,1	38,6	28,3
Txina	46,1	42,1	11,8	52,5	37,2	10,3	56,7	33,7	9,6
Senegal	66,4	22,5	11,1	66,4	26,1	7,5	71,4	24,5	4,1
Afrikako gainerako herrialdeak	44,1	36,4	19,4	51,7	37,4	10,9	49,3	37,8	12,9
Munduko gainerako herrialdeak	24,9	24,5	50,6	31,9	33,8	34,3	39,4	28,4	32,2
Guztira	36,9	40,1	23,0	38,2	39,2	22,6	39,5	38,7	21,8

Iturria: ABEI, 2010 eta 2018 arteko aldia Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Ekonomia Azterlanen Bulegoa

ID-7. Talde nazional, etniko, kultural edo erlijioso jakin batekoak direla uste duten atzerritar jatorriko biztanleak atxikimendu motaren arabera. 2010 eta 2018 arteko aldia

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Atxikimendu mota	2010		2014		2018	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Nazioz gaindiko/nazio anitzeko identifikazioa	962	,5	348	,2	1.123	,5
Identifikazioa, Espainia	774	,4	1.346	,7	149	,1
Identifikazioa, Euskadi	396	,2	960	,5	649	,3
Identifikazio nazionala, beste batzuk	7.224	4,0	7.631	3,9	6.405	3,0
Identifikazio lokala	824	,5	72	,0	15	,0
Identifikazio etnokulturala	4.679	2,6	6.471	3,3	3.199	1,5
Kristau-identifikazioa, oro har	1.815	1,0	6.592	3,4	2.743	1,3
Identifikazio katolikoa	6.350	3,5	14.380	7,4	4.001	1,9
Identifikazio ortodoxoa	3.464	1,9	7.245	3,7	1.365	,6
Beste kristau-identifikazio batzuk	4.138	2,3	5.486	2,8	1.623	,8
Identifikazio musulmana	16.904	9,4	24.618	12,6	7.834	3,7
Beste erlijio batzuekiko identifikazioa	375	,2	909	,5	54	,0
Identifikazioa ateismoarekin	197	,1	0	,0	34	,0
Identifikazio soziologikoa	293	,2	137	,1	0	,0
Talde-identifikaziorik gabe	131.188	73,1	119.051	61,0	182.015	86,2
Guztira	179.582	100,0	195.245	100,0	211.208	100,0

Iturria: ABEI, 2010 eta 2018 arteko aldia Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Ekonomia Azterlanen Bulegoa





**ID-8. Talde nazional, etniko, kultural edo erlijioso jakin batekoak direla uste duten atzerritar jatorriko biztanleak atxikimendu motaren arabera (taldeka). 2010 eta 2018 arteko aldia (Datu absolutuak eta % bertikalak)**

Atxikimendu mota	2010		2014		2018	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Lurralde-mailakoa	10.179	5,7	10.356	5,3	8.341	3,9
Etnokulturala	4.679	2,6	6.471	3,3	3.199	1,5
Erlijio-jarrera	33.243	18,5	59.230	30,3	17.654	8,4
Soziologikoa	293	0,2	137	0,1	0	0,0
Talde-identifikaziorik gabe	131.188	73,1	119.051	61,0	182.015	86,2
<b>Guztira</b>	<b>179.582</b>	<b>100,0</b>	<b>195.245</b>	<b>100,0</b>	<b>211.208</b>	<b>100,0</b>

Iturria: ABEI, 2010 eta 2018 arteko aldia Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Ekonomia Azterlanen Bulegoa

**ID-9. Talde nazional, etniko, kultural edo erlijioso jakin batekoak direla uste duten atzerritar jatorriko biztanleak atxikimendu motaren eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2018 arteko aldia (% horizontalak)**

Jatorrizko eremua	2010						2014						2018					
	Lurralde-mailakoa	Etno-kulturala	Erlijio-jarrera	Soziologikoa	Talde-identifikaziorik gabe	Guztira	Lurralde-mailakoa	Etno-kulturala	Erlijio-jarrera	Soziologikoa	Talde-identifikaziorik gabe	Guztira	Lurralde-mailakoa	Etno-kulturala	Erlijio-jarrera	Soziologikoa	Talde-identifikaziorik gabe	Guztira
EBko mendebaldea	5,5	1,4	6,6	0,3	86,2	100,0	3,8	0,0	10,1	0,0	86,1	100,0	9,5	0,0	6,5	0,0	84,0	100,0
Errumania eta EBko ekialdeko	5,3	1,3	17,3	0,0	76,1	100,0	11,3	2,2	31,3	0,0	55,2	100,0	2,3	0,0	7,7	0,0	90,0	100,0
Magreb	1,9	11,2	48,0	0,0	38,9	100,0	2,1	9,0	55,5	0,0	33,4	100,0	0,2	3,0	13,3	0,0	83,5	100,0
Argentina, Txile, Uruguai	0,1	0,0	8,4	0,4	91,0	100,0	7,3	0,8	10,4	0,0	81,5	100,0	5,3	0,0	3,9	0,0	90,8	100,0
Kolonbia, Ekuador, Peru	5,1	0,0	10,4	0,3	84,2	100,0	2,9	0,2	19,7	0,2	77,0	100,0	5,1	0,1	3,8	0,0	91,0	100,0
Bolivia	8,2	0,5	13,1	0,0	78,2	100,0	5,2	1,5	30,1	0,6	62,6	100,0	2,9	2,9	4,1	0,0	90,2	100,0
Paraguai	8,8	0,6	15,2	0,2	75,2	100,0	16,7	1,2	23,3	0,0	58,9	100,0	2,1	0,4	4,3	0,0	93,3	100,0
Brasil, Venezuela, Latinoamerikako gainerako	4,3	0,1	12,6	0,1	82,8	100,0	0,3	10,9	12,1	0,0	76,8	100,0	8,8	0,4	4,1	0,0	86,6	100,0
Txina	0,0	0,0	14,2	0,7	85,1	100,0	5,2	0,6	24,5	0,0	69,7	100,0	8,3	1,5	8,8	0,0	81,5	100,0
Senegal	27,3	0,3	5,0	0,0	67,4	100,0	15,9	0,6	10,6	0,0	72,9	100,0	6,6	0,0	0,5	0,0	92,9	100,0
Afrikako gainerako	1,1	9,8	55,2	0,0	33,9	100,0	10,0	3,5	60,3	0,0	26,2	100,0	0,0	1,6	25,5	0,0	72,9	100,0
Munduko gainerako	23,0	7,6	14,9	0,0	54,5	100,0	3,7	4,8	59,2	0,0	32,3	100,0	1,1	6,0	16,9	0,0	75,9	100,0
<b>Guztira</b>	<b>2,1</b>	<b>0,0</b>	<b>19,7</b>	<b>0,0</b>	<b>78,2</b>	<b>100,0</b>	<b>6,0</b>	<b>2,4</b>	<b>41,0</b>	<b>0,0</b>	<b>50,6</b>	<b>100,0</b>	<b>2,7</b>	<b>1,7</b>	<b>6,8</b>	<b>0,0</b>	<b>88,8</b>	<b>100,0</b>
<b>Guztira</b>	<b>5,7</b>	<b>2,6</b>	<b>18,5</b>	<b>0,2</b>	<b>73,1</b>	<b>100,0</b>	<b>5,3</b>	<b>3,3</b>	<b>30,3</b>	<b>0,1</b>	<b>61,0</b>	<b>100,0</b>	<b>3,9</b>	<b>1,5</b>	<b>8,4</b>	<b>0,0</b>	<b>86,2</b>	<b>100,0</b>

Iturria: ABEI, 2010 eta 2018 arteko aldia Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Ekonomia Azterlanen Bulegoa

ID-10. Jatorri atzerritarreko biztanleak, bizilekuan erabiltzen duten komunikatzeko hizkuntzaren arabera. 2010 eta 2018 arteko aldia

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Komunikazio-hizkuntza	2010		2014		2018	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Euskara	2.255	1,3	1.101	,6	12.506	5,9
Gaztelania edo espainiera	105.818	58,9	122.428	62,7	147.205	69,7
Ingelesa	2.320	1,3	6.828	3,5	3.649	1,7
Frantsesa	1.531	,9	1.993	1,0	916	,4
Arabiera	16.560	9,2	21.183	10,8	16.504	7,8
Errumaniera	13.500	7,5	12.251	6,3	8.636	4,1
Portugeses	8.207	4,6	4.574	2,3	3.022	1,4
Txinera	4.729	2,6	5.222	2,7	3.528	1,7
Berberera	4.771	2,7	604	,3	977	,5
Urdua	2.546	1,4	3.948	2,0	4.413	2,1
Wolofera	2.061	1,1	2.209	1,1	1.052	,5
Europako beste batzuk	7.364	4,1	7.208	3,7	4.994	2,4
Afrikako beste batzuk	5.300	3,0	3.702	1,9	1.286	,6
Amerikako beste batzuk	1.403	,8	57	,0	142	,1
Asiako beste batzuk	1.216	,7	1.939	1,0	2.378	1,1
Guztira	179.582	100,0	195.245	100,0	211.208	100,0

Iturria: ABEI, 2010 eta 2018 arteko aldia Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Ekonomia Azterlanen Bulegoa



**ID-11. Atzerritar jatorriko biztanleak, bizilekuan komunikatzeko erabiltzen duten hizkuntzaren eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2018 arteko aldia (% horizontalak)**

	Jatorrizko eremua	Gaztelania edo										Europako beste batzuk	Afrikako beste batzuk	Amerikako beste batzuk	Asiako beste batzuk	Guztira		
		Euskara	espainiera	Ingelesa	Frantsesa	Arabiera	Errumaniera	Portugesa	Txinera	Berberera	Urdua						Wolofera	
		% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	
2010	EBko mendebaldea	3,6	59,6	5,1	2,7	0,0	0,0	25,5	0,0	0,0	0,0	0,0	3,4	0,0	0,0	0,0	100,0	
	Errumania eta EBko ekialdeko	0,0	13,8	0,0	0,0	0,0	71,9	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	14,3	0,0	0,0	0,0	100,0	
	Magreb	1,0	17,5	0,0	0,5	59,9	0,0	0,0	0,0	17,5	0,0	0,0	0,0	3,7	0,0	0,0	0,0	100,0
	Argentina, Txile, Uruguai	0,9	98,6	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,3	0,0	0,1	0,0	100,0	
	Kolonbia, Ekuador, Peru	0,3	99,7	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
	Bolivia	0,0	97,6	0,0	0,0	0,2	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	2,3	0,0	0,0	100,0
	Paraguai	0,0	81,9	0,3	0,0	0,0	0,0	1,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	16,7	0,0	0,0	100,0
	Brasil, Venezuela, Dominikar	2,9	78,4	0,0	0,0	0,0	0,0	18,7	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
	Latinoamerikako gainerako	4,0	96,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
	Txina	0,0	2,2	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	97,8	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
	Senegal	0,0	3,0	0,0	2,5	2,1	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	53,3	0,0	39,1	0,0	0,0	0,0	100,0
	Afrikako gainerako herrialdeak	1,6	44,6	4,6	8,6	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	3,6	0,0	35,4	1,7	0,0	0,0	100,0
	Munduko gainerako herrialdeak	1,1	22,7	7,2	0,0	1,1	0,9	0,0	0,0	0,0	22,1	0,0	34,4	0,0	0,0	0,0	10,6	100,0
	<b>Guztira</b>	<b>1,3</b>	<b>58,9</b>	<b>1,3</b>	<b>0,9</b>	<b>9,2</b>	<b>7,5</b>	<b>4,6</b>	<b>2,6</b>	<b>2,7</b>	<b>1,4</b>	<b>1,1</b>	<b>4,1</b>	<b>3,0</b>	<b>0,8</b>	<b>0,7</b>	<b>100,0</b>	
2014	EBko mendebaldea	3,9	63,9	6,0	5,0	0,0	0,0	16,3	0,0	0,0	0,0	0,0	4,9	0,0	0,0	0,0	100,0	
	Errumania eta EBko ekialdeko	0,0	32,8	0,2	0,0	0,0	57,4	0,4	0,0	0,0	0,0	0,0	9,2	0,0	0,0	0,0	100,0	
	Magreb	0,0	28,4	0,0	0,0	68,0	0,0	0,0	0,0	1,9	0,0	0,4	0,0	1,2	0,0	0,0	0,0	100,0
	Argentina, Txile, Uruguai	0,8	97,6	1,5	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
	Kolonbia, Ekuador, Peru	0,0	99,8	0,1	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,1	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
	Bolivia	0,0	100,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
	Paraguai	0,0	99,6	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,4	0,0	0,0	100,0
	Brasil, Venezuela, Dominikar	1,0	89,9	0,3	0,2	0,0	0,0	8,7	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
	Latinoamerikako gainerako	0,2	98,9	0,7	0,0	0,0	0,0	0,2	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
	Txina	0,0	2,7	0,4	0,0	0,0	0,0	0,0	96,9	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
	Senegal	0,4	25,0	0,0	7,9	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	43,6	0,0	23,0	0,0	0,0	0,0	100,0
	Afrikako gainerako herrialdeak	0,0	32,2	40,3	5,5	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,3	0,0	21,3	0,3	0,0	0,0	100,0
	Munduko gainerako herrialdeak	0,4	25,4	6,7	0,2	0,6	1,0	0,0	0,0	0,0	25,5	0,0	27,6	0,0	0,0	0,0	12,5	100,0
	<b>Guztira</b>	<b>0,6</b>	<b>62,7</b>	<b>3,5</b>	<b>1,0</b>	<b>10,8</b>	<b>6,3</b>	<b>2,3</b>	<b>2,7</b>	<b>0,3</b>	<b>2,0</b>	<b>1,1</b>	<b>3,7</b>	<b>1,9</b>	<b>0,0</b>	<b>1,0</b>	<b>100,0</b>	
2018	EBko mendebaldea	11,3	69,8	1,0	1,8	0,0	0,0	11,7	0,0	0,0	0,0	0,0	4,4	0,0	0,0	0,0	100,0	
	Errumania eta EBko ekialdeko	7,9	43,6	1,5	0,0	0,0	38,6	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	8,4	0,0	0,0	0,0	100,0	
	Magreb	7,7	47,9	0,0	0,4	41,5	0,0	0,0	0,0	2,5	0,0	0,0	0,0	0,1	0,0	0,0	0,0	100,0
	Argentina, Txile, Uruguai	5,1	94,9	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
	Kolonbia, Ekuador, Peru	5,9	93,0	0,8	0,0	0,3	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
	Bolivia	7,3	92,7	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
	Paraguai	0,2	98,7	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	1,1	0,0	0,0	100,0
	Brasil, Venezuela, Dominikar	3,1	90,3	0,0	0,0	0,3	0,0	6,3	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
	Latinoamerikako gainerako	2,0	98,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
	Txina	8,2	26,8	0,7	0,0	0,0	0,0	0,0	64,3	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
	Senegal	8,4	67,6	0,0	0,5	3,3	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	13,3	0,0	6,7	0,0	0,0	0,0	100,0
	Afrikako gainerako herrialdeak	4,0	65,7	17,5	3,1	0,0	0,0	1,7	0,1	0,0	0,0	1,8	0,0	5,7	0,4	0,0	0,0	100,0
	Munduko gainerako herrialdeak	3,0	42,3	1,8	0,0	0,0	0,1	0,4	0,0	0,0	25,1	0,0	13,8	0,0	0,0	0,0	13,5	100,0
	<b>Guztira</b>	<b>5,9</b>	<b>69,7</b>	<b>1,7</b>	<b>0,4</b>	<b>7,8</b>	<b>4,1</b>	<b>1,4</b>	<b>1,7</b>	<b>0,5</b>	<b>2,1</b>	<b>0,5</b>	<b>2,4</b>	<b>0,6</b>	<b>0,1</b>	<b>1,1</b>	<b>100,0</b>	

Iturria: ABEI, 2010 eta 2018 arteko aldia Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Ekonomia Azterlanen Bulegoa

### 3. EGUNGO OKUPAZIO-EGOERA

#### 3.1. Hezkuntza-jardueretan parte hartzea

13.- 16 urte eta gehiago dituzten atzerritar jatorriko biztanleen % 12k ikasketaren egiten du, baina proportzio hori askoz txikiagoa da 2014koa (% 20,5) eta 2010ekoa (% 19,5) baino. % 10,2k ikasketa arautuak egiten dituzte (gutxiago 2010ean, % 11,7k, eta 2014an, % 13,6k, baino). % 1,8k baino ez dituzte egiten arautu gabeko ikasketak, eta proportzio hori etengabe txikitu da 2010. urtetik (% 9) eta 2014. urtetik (% 6,8) aurrera.

Ikasketa arautuen garapenak 2018an iritsi du mailarik handiena boliviarraren artean: % 18,8. Proportzioa % 10,5 eta % 12,1 artekoa da latinoamerikar jatorriko beste talde batzuetan; besteak beste, jatorria Kolonbia/Ekuador/Perun, Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublikan eta Paraguain dutenetan. Gauza bera gertatzen da afrikar talde batzuekin; jatorria Magreben edo Afrikako gainerako herrialdeetan dutenekin, adibidez. Boliviarr eta paraguaitar jatorriko biztanleen artean baino ez da handitu 2014 eta 2018 artean ikasketa arautuetan aritu direnen kopurua.

Bestalde, 2018an, jatorria Magreben eta Paraguain duten pertsonen artean baino ez da gertatu arautu gabeko ikasketetan ari direnak % 3 baino gehiago izatea (% 4,6 eta % 3,8). Nolanahi ere, jatorriaren arabera, talde guztietan egin du behera 2014-2018 aldian arautu gabeko ikasketak egiten dituztenen ehunekoak.

14. Atzerritar jatorriko biztanleek hezkuntza-prozesuan duten integrazioaren adierazle batzuk jasotzen ditu ABEIk.

Atzerritar jatorriko 16 urtez azpiko biztanleei dagokienez, % 13,1en arabera, eskolan integratzeko arazo motaren bat dago; proportzioa % 24,7raino iristen da adin horretatik gorako biztanleen artean. Balio horiek adierazten dute gorakada nabarmena izan dela 2014ko balioekin alderatuta (% 8,4 eta % 11,7, hurrenez hurren). 2010ekoak baino txixieagoak dira 16 urtetik beherako kasuan (% 13,1 eta % 15,1), baina handiagoak 16 urte eta gehiago dauzkaten artean (% 24,7 eta % 21,7 2010. urtean).

2018an, eskola-atzerapena da oraindik ere arazo nagusia bi kasuetan. 16 urtetik beherako % 7ri eragiten die; hau da, eragindakoen ehunekoa 2010ekoa baino txikiagoa da (% 8,7), baina 2014koa (% 4,5) baino handiagoa. 2014-2018 aldiko gorakada askoz deigarriagoa da 16 urtekoen eta gehiagokoen artean, % 7,3tik % 19,3ra artekoa izan baita, baina kasu horretan ere proportzioa 2010ekoa (% 20,9) baino txikiagoa da.

Jatorrizko taldearen arabera, eskola-atzerapenaren mailek % 10eko muga gainditzen dute jatorria Bolivian eta EBko mendebaldeko herrialdeetan duten 16 urtetik beherakoen artean (% 20,1 eta % 12,6). % 7,5etik gora daude, % 7,9 eta % 9,5 artean, jatorria Magreben, Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublikan eta Latinoamerikako gainerako herrialdeetan duten adingabekoen artean. 16 urtetik gorakoei dagokienez, paraguaitarrak soilik geratzen dira maila horien azpitik, % 5,4arekin. % 20tik gorako balioak dituzte, ordea, jatorria Magreben eta Senegalen edo Latinoamerikako herrialdeetan dutenek, jatorria Paraguain eta Kolonbia/Ekuador/Perun dutenak salbuetsita.

Gainerako problematikek askoz eragin txikiagoa izan dute 2018an, baina batzuetan adierazgarriak izan daitezke; hori gertatzen da, adibidez, irakaskuntzan erabilitako hizkuntzari lotutako arazoekin. Ikasketa arautuak egiten dituzten 16 urtetik gorakoen artean, % 4,9k aipatzen dituzte; hau da, 2010ean (% 1,9) baino nabarmen gehiagok, eta 2014an (% 4,3) baino gehixegok. Proportzioa % 9,3 eta % 13,8 artekoa da, jatorria Europar Batasuneko mendebaldeko herrialdeetan, Bolivian, Latinoamerikako gainerako herrialdeetan, Txinan eta Afrikako gainerako herrialdeetan dutenen artean.



16 urtetik beherakoen artean, irakasteko hizkuntzari lotutako problematikaren inpaktua % 3,5 da: oso hurbil 2010eko baliotik (% 3,4); are 2014kotik ere (% 3). Inpaktu deigarria du boliviarrak jatorrikoen (% 12,7) eta senegaldar jatorrikoen (% 8,5) artean.

Baztertze-arazoen nabarmen behera egin zuten 2010 eta 2014 artean, % 4tik % 0,9ra 16 urtetik beherakoen artean, eta % 2,7tik % 0,5era 16 urtetik gorakoaren artean, baina 2014-2018 aldian ageriko okertze bat gertatu da. Arazo horien inpaktua % 2,8ra handitu da 16 urtetik beherakoen artean (oraindik ere 2010eko balioaren azpitik: % 4), eta baliorik handiena izan du, % 3,8, adin horretatik gorakoaren artean.

Kolektibo gazteenean, hautemandako errefusatzeko-mailak % 8,3 eta % 9,8 artekoak dira jatorria Kolonbia/Ekuador/Perun, Bolivian eta Senegalen dutenen artean, eta % 6,0-% 6,5 artekoak, berriz, jatorria Txinan edo EBko mendebaldeko herrialdeetan duten adingabeen artean. 16 urtetik gorakoaren artean, % 9,3 eta % 10 arteko balioak jatorria Bolivian, Latinoamerikako gainerako herrialdeetan eta Afrikako gainerako herrialdeetan duten biztanleei dagozkie, eta % 5,8 eta % 6,8 artekoak, berriz, jatorria EBko mendebaldeko herrialdeetan edo Paraguain dutenei.

Hezkuntza-sisteman gizarteratzeko prozesuei dagokienez, ABEik aztertutako beste kontu batzuek adierazten dute problematiketan areagotzeko dinamika izan dela 2014 eta 2018 artean. Hartara, % 0,6ra handitu da 2018an eskolako absentismo-arazoak izan dituzten 16 urtetik beherako pertsonak dauzkaten familia-unitateetako biztanleen presentzia, 2014an intzidentzia ia hutsa izan ondoren (% 0,7koa izan arren 2010ean: egungoaren oso antzekoa). Proporzioa % 2 izan da ikasketak goizegi utzi dituzten 25 urtetik beherako pertsonak dauzkaten familia-unitateei dagokienez, bai eta 2014koa (% 0,8) baino handiagoa ere; eta bi-biak 2010ekoa (% 2,4) baino txikixeagoak izan dira. 2018an, adierazlearen baliorik handienek, ordea, ez dute gainditu % 2,9-% 3,3ko muga jatorria Hego Amerika andetarrean, Paraguain eta Afrikako gainerako herrialdeetan dutenen artean.

2014-2018 aldian, hobekuntza nagusia da behera egin duela haurtzaindegiko-plazarik izan ez duten 6 urtetik beherako seme-alabak dituzten bizikidetzako unitateetako biztanleen pisu erlatiboak. Problematika horren inpaktua 2010ean % 6,4 eta 2014an % 5,3 izan ondoren % 3,6ra jaitsi da 2018an. 2018an, jatorria EBko ekialdeko herrialdeetan eta Magreben duten biztanleen artean baino ez da gainditu % 5eko atalasea.

## **3.2. Jarduerarekiko, okupazioarekiko eta langabeziarekiko erlazioa**

### **3.2.1. Adierazle orokorrak**

15.a) Atzerritar jatorriko 159.052 pertsona daude aktiboa izan daitekeen adin-tartean, 16 eta 66 urte artean; hau da, 2014an (155.685) baino % 2,2 baino gehiago eta 2010ean (147.790) baino % 7,6 gehiago. Kolektibo horrek EAEko 16-66 urteko biztanleria osoa duen pisua % 11,2ra igo da 2018. urtean 2010ean % 9,9 eta 2014an % 10,8 izan ondoren.

2018an, atzerritar jatorriko 98.661 pertsona landunak dira. Zenbateko horrek esan nahi du okupazioa 2014koa eta 2010ekoa baino askoz handiagoa dela. Landunen kopurua 2010 eta 2014 artean -% 2,2 gutxitu ondoren (77.000tik 75.280ra), 2018ko okupazioa 2010ekoa baino % 28,1 eta 2014koa baino % 31,1 handiagoa da. Atzerritar jatorriko 16-66 urteko landunen ehunekoa % 52,1etik % 48,4ra jaitsi zen 2010 eta 2014 artean, eta % 62ra handitu da 2018an.

Bestalde, etengabe handitu da EAEko landun guztien artean atzerritar jatorriko kolektiboari dagokion proportzioa: % 8,3tik (2010ean), % 8,5era (2014an) eta, modu bereziki deigarrian, % 10,5era 2018an.

Daukaten jardueraren gaineko adierazpen orokorrean oinarrituta langabe potentzialtzat jo litezkeen biztanleen kopurua 23.875era iritsi da<sup>3</sup>: 16-66 urteko atzerritar jatorriko biztanleen % 15. Langabeen kopuruak gora egin zuen 2010 eta 2014 artean, 34.539tik 48.880ra, baina oso jaitsiera deigarria izan du 2018an, -% 30,9koa, 2010eko langabeen kopuruarekin alderatuta, eta -% 51,2koa, 2014. urtearekin alderatuta.

Biztanleria ez-aktiboa gainerako % 23,0 da: 2010ekoa (% 24,5) baino txikiagoa, baina oraindik 2014koa (% 20,2) baino handiagoa. 16-66 urteko atzerritar jatorriko biztanleen jarduera-tasa 2010 eta 2014 artean % 75,5etik % 79,8ra handitu ondoren, % 77ra jaitsi da 2018an.

2014 eta 2018 artean okupazioa asko handitu delako testuinguruan (75.280tik 98.661era), aldi horretan biztanle aktiboen kopurua murriztea lagungarria izan da talde horretan langabeziaren beheranzko bide argia areagotzeko. Langabezia-tasa potentziala, % 31tik % 39,4ra handitu ondoren 2010 eta 2014 artean, % 19,5era jaitsi da 2018an.

Etorkinen jatorrizko herrialdeari erreparatuz gero, alde esanguratsuak daude jardueran, okupazioan eta langabezian. Okupazio-koefiziente handieneko taldearen eta txikiena duenaren arteko aldea 66,9 puntukoa izan zen 2014an<sup>4</sup>, eta 49,6koa 2010ean, eta 2018an hain handia izan gabe ere, oraindik ere portzentajezko 42,4 puntukoa da.

Okupazio-maila handiena txinatar jatorrikoei dagokie: 16-66 urteko 100 landuneko 81,1 da, eta langabezia-tasa potentziala, berriz, % 0. Kolektibo horrek 2010etik izan ditu ezohiko balio on horiek. Historikoki atipikoa da okupazio-eredu txinatarra Euskadiko atzerritar jatorriko biztanleen testuinguruan, baina emaitzetan, batez ere okupazioaren ikuspegitik, gero eta gutxiago urruntzen da 2018an atzerritar jatorriko beste talde batzuei dagokienetik. Hartara, urte horretan, benetan landuna den adin aktiboko biztanleen proportzioa % 75,8 izan da Paraguairi dagokionez, eta % 76,2 Latinoamerikako gainerako herrialdeei dagokienez, eta paraguaitar jatorriko biztanleak jada 2014an hurbiltzen ziren maila horietara. Langabezia-tasa potentziala, ordea, handiagoa da txinatar jatorriko kolektiboan baino, % 10,4 baita Paraguairen kasuan, eta % 15,1 Latinoamerikako gainerako herrialdeei dagokienez. Txinatarren kasuan bezala, ordea, balio horiek hobeak dira talde horretan 2010ean eta 2014an zeudenak baino.

% 69,1 eta % 70,4 arteko okupazio-koefizienteak izanik, atzerritar jatorriko beste biztanle-talde batzuk aipatu mailetara hurbildu dira 2018an. Egoera horretan daude jatorria EBko mendebaldeko herrialdeetan, Argentina/Txile/Uruguain eta Kolonia/Ekuador/Perun duten biztanleak, 2018an okupazio-balioak 2010eko eta 2014ko gehienekoak baino portzentajezko 8,2-11,1 puntu handiagoak izan baitira. Litekeen langabeziako tasak nabarmen murriztu dira talde horietan 2018an, eta % 14,7 eta % 15,3 artekoak izan dira Argentina/Txile/Uruguain eta Kolonia/Ekuador/Perun, eta % 6,2koak EBko mendebaldeko herrialdeetan (bigarren langabezia-tasa txikiena jatorria Txinan duten biztanleen tasaren ondoren).

---

<sup>3</sup> Biztanleria langabea potentzialtzat jotzen da ABEIn ez direlako kontuan hartzen LANE kolektibo langabea definitzeko kontuan hartzen diren aldagai guztiak, bereziki enplegua bilatzeko mekanismo eraginkorren erabilera. Ondoriozko tasa, beraz, benetako LANE tasa baino handiagoa da.

<sup>4</sup> Okupazio-koefizienteak adierazten du zer proportzio dagokion biztanleria landunari erreferentziazko biztanleria osoan (kasu honetan, 16-66 urteko biztanlerian).



2010-2014 aldiarekin alderatuta, okupazioaren hobekuntza portzentajezko 5,6 eta 9,8 puntu artekoa izan da 2018an, eta okupazio-koefizienteak % 60,8-% 66,0koak izan dira jatorria Errumanian eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuetan, Bolivian, Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublikan eta munduko gainerako herrialdeetan duten taldeetan. Talde horietan, langabezia-tasa % 14,7 eta % 15,6 artekoa da jatorria Errumanian eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuetan eta munduko gainerako herrialdeetan duten kolektiboetan. Hala ere, EAEko batezbestekora hurbiltzen da Boliviaren kasuan (% 19,3), eta handiagoa da jatorria Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublikan (% 23,3) duten biztanleei dagokienez.

EAEko batezbestekoaren oso azpitik (% 62), 16-66 urteko biztanleen okupazio-koefizientea oraindik ere % 50etik gorakoa da, % 55,5 izan baita 2018an senegaldar jatorrikoen artean. Talde horretan, Latinoamerikako gainerako herrialdeekin batera, okupazioaren hazkunde handienetako bat izan da 2010-2014 aldiarekin konparatuta. 2018ko balioa 2014koa (% 31,6) baino ia 25 puntu handiagoa da, eta 2010ekoa (% 42,4) baino 13 puntu inguru handiagoa. Taldearen langabezia-tasa, ordea, oraindik % 30,9 da 2018an.

EAEko okupazioaren batezbestekotik oso urrun eta % 42tik beherako koefizienteekin jarraitzen dute jatorria Magreben eta Afrikako gainerako herrialdeetan duten biztanleek, baina okupazio-mailak 7,2 eta 11,6 puntu hobetu dituzte 2010-2014 aldiaren izan duten baliorik onenarekin alderatuta. Magreben kasuan, okupazio-koefizientea % 23,6tik % 38,7ra handitu da 2014 eta 2018 artean, eta balio horrek 2010ekoa (% 31,5) ere gainditzen du. Afrikako gainerako herrialdeen kasuan, okupazio-koefizientea % 16tik % 41,4ra igo da 2014 eta 2018 artean, eta balio horrek ere argi eta garbi gainditzen du 2010ekoa (% 29,8). Hala eta guztiz ere, langabezia-tasak oso handiak dira oraindik ere talde horietan (% 37,3 magrebtarren artetan, eta % 42,4 etorkia Afrikako gainerako herrialdeetan dutenen artean).

Baina nabarmendu beharrekoa da asko jaitsi dela langabezia-tasa, 2014an langabeziak gehien eragindako atzerritar jatorriko biztanleen artean, orduan tasak % 25etik gorakoak baitziren. 2014 eta 2018 artean, tasak portzentajezko -11,3 eta -13,3 puntu artean jaitsi dira Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublikaren eta Latinoamerikako gainerako herrialdeen kasuan; -16,2 eta -18,2 artean Boliviari eta Kolonbia/Ekuador/Peruri dagokienez; -21,1 puntu Errumaniaren eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuen kasuan; -27,8 puntu munduko gainerako herrialdeei dagokienez; eta -30 puntutik gora jatorria Afrikako eskualdeetan (Magreb, Senegal eta Afrikako gainerako herrialdeak) duten biztanleen kasuan.

15.b) Lana dutenen ehunekoarekin (% 62) alderatuta, azken urtean enpleguarekin loturaren bat izan duten banakoen proportzioa handiagoa da, eta % 68,1era iritsi da atzerritar jatorriko 16-66 urteko biztanleen artean; balio hori 2014koa (% 59) baino portzentajezko 9,1 puntu handiagoa da, eta 2010ekoa (% 65,8) baino 2,3 handiagoa.

Une honetan lanik ez dutenen % 5,8k lanen bat egin dute azken urtean, eta proportzioa % 31,6 da langabeen kasuan. Biztanle ez-aktiboen kasuan, ehuneko hori etengabe jaitsi da 2010etik (% 10,2) eta 2014tik (% 8,8). 2014 (% 28,2) eta 2018 (% 31,6) artean gora eginda ere, langabeei dagokienez, azken urte horretako proportzioa 2010ekoa (oso handia: % 48,2) baino askoz txikiagoa da.

Lan-esperientzia duten biztanle ez-aktiboen eta langabeen proportzioa txikiagoa izan da, oro har, 2018. urtean 2010ean baino, bai eta, biztanle ez-aktiboek dagokienez, 2014an baino, eta proportzio txikiago horrek zerikusituz dauka egungo lanik gabeko biztanleek aurreko urtean lanean emandako denborarekin. Biztanle ez-aktiboek 0,6 eta 0,4 hilabetetan lan egin zuten batez beste 2010ean eta 2014an, baina batezbesteko horrek baliorik txikiena izan du 2018an: 0,3. Biztanle langabeen kasuan, 2010 eta 2014 artean gertatutako jaitsieraren ondoren (2,3 hilabetetik 1,3 hilabetera), balioa 1,8ra igo da

2018an, baina guztiz hurbildu gabe 2010eko mailetara. 2018an, ordea, baliorik handiena lortu da gaur egun landun diren biztanleek aurreko urtean batez beste izandako okupazio-denborari dagokionez. 11,0 hilabete, 2010ean 10,8 hilabete eta 2014an 10,6 hilabete izan ondoren.

Nolanahi ere, 2018an 16-66 urteko atzerritar jatorriko biztanleek okupazioarekin izandako lotura handiagoa egiaztagarria da zenbatetsiz gero zein izan den hileko benetako okupazio-proporzioa, biztanle horiei azken urtean zehar zegozkien okupazio-hilabete potentzialak kontuan hartuta. Datuek 2018an gertatutako aldaketa positiboa adierazten dute: okupazio-hilabete potentzial horien estaldura-ehunekoa % 59,6 izan da urte horretan, 2014an, atzeraldi betean, izandako ehunekoa, % 47,1, baino portzentajezko 12,5 puntu handiagoa, eta 2010ekoa, % 52,5, baino 7,0 handiagoa; izan ere, azken urte horretan hasi zen eragina izaten EAEn krisiaren lehen fasea.

Bereziki 2010. urtearekin alderatuta, ordea, okupazio potentzialaren estaldura-maila handi horrek ifrentzu negatibo bat dauka, ezaugarri duena zailagoa izatea enplegua lortzea langabezia-egoeran dauden pertsonen talde txikiagoan. Adierazi den bezala, aurreko urtean okupazio-esperientzia izan zuten langabeen proportzioa % 48,2 izan zen 2010ean, baina 2018an % 31,6ra murriztu zen proportzio hori. Edo ikuspegi adierazgarriago batetik esanda, 2010eko langabeen % 51,8k ez zuen okupazio-hilabeterik izan aurreko urtean, baina proportzio hori % 68,4 izan zen 2018an. Langabeen kopuru osoa -% 30,9 txikiagoa da 2018an eta langabezia-tasa 10 puntutik gora txikiagoa 2010ekoa baino (% 19,5 eta % 31,00 hurrenez hurren), baina langabezia-egoeran irauteko arriskua askoz handiagoa da oraindik lanik gabe daudenentzat 2018an.

### **3.2.2. Biztanle landunen ezaugarriak**

16. Atzerritar jatorriko biztanle landun gehienek zerbitzu-sektorean lan egiten dute: guztien % 76,8k. Proportzio hori 2010ekoa (% 72,6) baino handiagoa da, baina 2014koa (% 82,4) baino txikiagoa. Balio absolutuetan, ordea, zerbitzu-sektoreko okupazioak gora egiten jarraitu du: % 10,9 handitu zen 2010 (55.929 landun) eta 2014 artean (62.047 landun), eta % 22 handitu da 2014 eta 2018 (75.724) artean. Atzerritar jatorriko biztanleen barruan, oro har, okupazioa % 35,4 handitu da zerbitzu-sektorean 2010 eta 2018 artean.

Hirugarren sektorean, orain arte nagusi izandako hiru okupazio-adarrek nabarmentzen jarraitzen dute: etxe-zerbitzuak (okupazio osoaren % 21,4 2018an), ostalaritzak (% 18,5) eta merkataritzak (% 9,5). Hiru adar horiek 2018ko guztizko okupazioaren % 49,4 biltzen dute. Zeukaten pisu erlatiboa % 49,8tik % 59ra handitu zen 2010 eta 2014 artean, baina proportzio horrek behera egin du argi eta garbi 2018an.

Arrazoi nagusia izan da merkataritzan eta etxe-zerbitzuan okupazioak behera egin izana 2014 eta 2018 artean (-% 14,4 eta -% 4,4). Ostalaritza da 2018an presentzia-mailarik handiena lortu duen adar bakarra. 2010 eta 2014 artean bere kideen -% 12,3 galdu ondoren, okupazioak % 61,1 egin du gora 2014 eta 2018 artean. 2018an, atzerritar jatorriko biztanleen okupazioan % 18,5 egokitu zaio ostalaritzari, baliorik handiena 2010etik (% 16,8), etxe-zerbitzuan eta merkataritzan ez bezala, baliorik handienak 2014an izan baitzituzten (% 14,6 eta 29,3). Hala eta guztiz ere, 2018ko okupazioa handiagoa da 2010ekoa baino; izan ere, urte horrekin alderatuta, merkataritzak % 4,1 egin du gora; etxe zerbitzuak % 29; eta ostalaritzak % 41,3.





Zerbitzu-sektorean okupazio handieneko alorretako bat izan gabe ere, 2018an azpimarragarria da enpleguak sektore horretako hiru adarretan izandako gorakada handia: garraio eta komunikazioetan; enpresa/erakunde finantzarioentzako zerbitzuak; eta osasungintza eta gizarte-zerbitzuak. 2014 eta 2018 artean % 9,9 handitu zen merkataritzako, ostalaritzako eta etxe-zerbitzuko baterako okupazioa, baina aldi horretan bertan % 66,2 handitu zen aipatutako beste hiru adarretan (edo adar-taldeetan). 2010 eta 2014 artean guztizko okupazioaren % 15,7 – 16,0 egokitu zitzairen, baina 2018an okupazio horren % 20,4 egokitu zaie.

2010. urtearekin alderatuta, 2018an okupazioa % 95 handitu da garraioetan eta komunikazioetan, % 56,4 osasungintzan eta gizarte-zerbitzuetan, eta % 59,2 enpresa eta erakunde finantzarioentzako zerbitzuetan, zeina, aztertutako hiru adarretan (edo adar-taldeetan), okupazioa 2010 eta 2014 artean handitu zen bakarra izan zen. 2018an, guztizko okupazioaren % 8,4 enpresa eta erakunde finantzarioentzako zerbitzuetan gertatu da (% 6,8, berriz, 2010ean, eta % 7,8 2014an), % 6,6 osasungintzan eta gizarte-zerbitzuetan (aurretiko baliorik handiena, % 5,4, 2010ekoa izan zen) eta % 5,3 garraioetan eta komunikazioetan (% 3,5 2010ean).

Gainerako zerbitzu-adarretan, atzerritar jatorriko biztanleen guztizko okupazioaren % 6,9 metatu da, 2010ean eta 2014an baino gutxiago: % 7,2 eta % 7,4. Adar multzo horrek (batez ere hezkuntzak eta beste merkataritza-zerbitzu batzuek, baina bai eta Administrazio Publikoak ere), ordea, gero eta enplegu gehiago biltzen du, eta okupazioa % 24,2 handitu da 2010 eta 2018 artean, 2014-2018 aldiari metatuta.

Zerbitzu-sektoretik kanpo, industrian eta eraikuntzan enplegua suspertu izana da 2014-2018 aldiko funtsezko alderdi bat. 2010-2014 aldiari, okupazioa -% 39,7 jaitsi zen bi sektore horietan, eta enplegatutako atzerritar jatorriko pertsonen kopurua 19.219tik 11.587ra beheratu, baina 2018an okupazioak, suspertu ez ezik, aurreko mugak gainditu ere egin ditu, eta okupazioa 21.459 pertsonakoa izan da, 2010ekoa baino % 11,7 handiagoa. Biztanle landun guztiekin alderatuta, industrian eta eraikuntzan landunak % 21,8 izan dira, 2014an (% 15,4) baino nabarmen gehiago, baina oraindik 2010ean (% 25) baino gutxiago.

2014-2018an, orokortua izan da okupazioaren susperraldia industrian eta eraikuntzan. Hala ere, dinamikarik onena industria petrokimikoari, metalurgikoari eta materialen ekoizpenari dagokie.<sup>5</sup> 2010 eta 2014 artean okupazioan gertatutako beherakadak gutxiago eragin zien atzerritar jatorriko biztanleei dagokienez, eta bizkorrago suspertu dira 2014 eta 2018 artean. 2018ko landunak (10.117) 2010ekoak (5.505) baino % 83,8 gehiago dira. Guztizko okupazioaren % 10,3 dira 2018an, 2010eko eta 2014ko balioen gainetik (% 7,1 eta % 6,5, hurrenez hurren).

Hala ere, eta okupazioa suspertu arren 2014 eta 2018 artean, biztanleria landuna oraindik ere txikiagoa da 2010ekoa baino, bai industriako gainerakoan<sup>6</sup> (-% 2,4) bai, batez ere, eraikuntzan (-% 21,1: 8.630 pertsona 2018an; 10.934, berriz, 2010ean). 2018ko biztanle landun guztien ehunekoa (% 2,7) 2010ekoa (% 3,6) baino txikiagoa da industriako gainerakoan; eraikuntzan, 2018ko balioa (% 8,7) askoz txikiagoa da atzerritar jatorriko biztanle landun guztiei sektore horretan 2010ean zegokien balioa (% 14,2) baino.

<sup>5</sup> Petrokimikari, kautxuari, makinak egiteari, material metalikoa eta ez-metalikoa ekoizteari eta energia-ekoizpenari lotutako adarrak sartzen dira.

<sup>6</sup> Erauzketa-industria, janari-industria, papergintza eta gainerako manufaktura-industriak biltzen dira.

Azkenik, okupazioak beherantz jarraitu du nekazaritzan eta arrantzan, 2018an landunak 1.479 baino ez baitira izan, 2010ean (1.832) baino -% 19,3 gutxiago. Populazio horri atzerritar jatorriko pertsonen guztizko okupazioan dagokion pisua etengabe txikitu da 2010 eta 2018 artean: % 2,4tik % 1,5era.

2018an, askotariko okupazio-orientazioa mantendu da atzerritar jatorriko biztanleen etorkiaren arabera. Alde batetik, zerbitzu-sektoreko pertsonen proportzioa % 80ra hurbiltzen da, edo ehuneko hori gainditzen du, jatorria Latinoamerika osoan, Txinan eta munduko gainerako herrialdeetan duten biztanleen artean. Ia beti gutxiengoduna izanda ere, gainerako sektoreetako okupazioa askoz handiagoa da atzerritar jatorriko gainerako kolektiboetan. % 35,9 eta % 36,8 artekoa da jatorria Magreben, Errumanian eta EBko ekialdeko gainerako herrialdeetan dutenen artean; % 40 da etorkia EBko mendebaldeko herrialdeetan dutenen artean; % 44, berriz, Afrikako gainerako herrialdeetatik etorritako kolektiboan; eta handiena, azkenik, % 51,8, senegaldarren artean, kolektibo horretan bakarrik baitira lana batez ere zerbitzuetatik kanpo duten biztanleak.

Senegalen eta Afrikako gainerako herrialdeen kasuan zerbitzuetatik kanpo enplegu-mailak handiak izateak zerikusia du industrian % 30etik gorako presentzia (% 30,3 eta % 35,1, hurrenez hurren) izatearekin. Afrikar jatorriko biztanleek industriara jotze hori begi-bistakoa da Magreben kasuan ere, kasu horretan okupazioaren % 22,9ra mugatu arren. Industrian, batez besteko presentzia EBko mendebaldeko herrialdeetan eta Errumanian eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuetan ere gainditzen da (% 19,2 eta % 16,6), baina bi talde horietan enpleguak eraikuntza duen garrantzi konparatua (% 19,2 eta % 17,3) ezaugarri bereizgarriagoa da. Jatorria Senegalen duen kolektiboa da nekazaritzan eta arrantzan presentzia nabarmena (% 14,3) izaten jarraitzen duen bakarra.

17. Atzerritar jatorriko biztanle landunen zati nagusiak, % 54k, langile kualifikatu edo erdi kualifikatu moduan lan egin du 2018an (53.289 pertsonak), hau da, ia bider gehiagok kualifikaziorik gabeko kolektiboak baino (% 27,4k; 27.062 pertsonak). Zuzendariak, teknikariak eta enplegatu administratiboak okupazioaren % 18,6 (18.310 pertsona) baino ez dira.

Biztanle kualifikatuen eta erdi kualifikatuen talde nagusiak baino ez du areagotu presentzia erlatiboa 2018an, % 54koa izan baita, handiagoa bai 2014koa (% 44,3) bai 2010ekoa (% 50,6) baino. Zuzendariei, teknikarietara eta enplegatu administratiboetara % 18,6 dagokie: 2010ean (% 16,6) baino gehiago, baina 2014an (% 21,1) baino gutxiago. Kualifikaziorik gabeko biztanleen pisu erlatiboa 2010ean % 32,5 eta 2014an % 34,6 izan ondoren % 27,4ra jaitsi da 2018an.

2010. urtearekin alderatuta okupazioan izandako gorakada erlatibo handiagoa, ordea, zuzendarien, teknikarien eta enplegatu administratiboaren kolektiboari dagokio. Izan ere, bere okupazioa % 40,9 handitu da, biztanle kualifikatuen edo erdi kualifikatuen artean izandakoa (% 36,7) eta kualifikatu gabekoen artean izandakoa (% 8,1) baino handiagoa.

Jatorri geografikoaren araberako aldeak oraindik ere handiak dira kontu honetan. Alde batetik, zuzendarien, teknikarien edo enplegatuen pisu erlatiboa handiagoa izan da, eta % 35etik gorako okupazioa izan dute 2018an, jatorria EBko mendebaldeko herrialdeetan, Argentina/Txile/Uruguain eta Txinan duten pertsonen kasuan. % 27,7 da munduko gainerako herrialdeetan. Gainera, hori da kolektibo gehiengoduna EBko mendebaldeko herrialdeetan eta Txinan.

Baina kualifikatu gabeko biztanleen pisua oso handia da, % 35ekoa edo handiagoa, jatorria Bolivian, Paraguain, Latinoamerikako gainerako herrialdeetan eta Afrikako gainerako gainerako herrialdeetan dutenen artean. Paraguairen kasuan talde nagusia da, eta biztanle erdi kualifikatuek edo kualifikatuek Latinoamerikako gainerako herrialdeetan dutenaren antzeko pisua du.



Gainerako taldeetan (Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuk, Magreb, Kolonbia/Ekuador/Peru, Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublikak eta Senegal), biztanle erdi kualifikatuak eta kualifikatuak tarteko taldeak % 55eko mailak gainditzen ditu. Jatorria Bolivian eta Afrikako gainerako herrialdeetan duen taldeak ere dauka ezaugarri hori, baina kualifikaziorik gabeko biztanleen garrantzizko presentzia aipatuarekin (% 35 bi kasuetan). Argentinatar/txiletar/uruguaitar jatorriko biztanleen artean ere, biztanle erdi kualifikatuak edo kualifikatuak % 50 baino gehiago dira, eta, kasu horretan, % 36,8 da zuzendarien, teknikarien edo enplegatu administratiboen pisua.

18. Atzerritar jatorriko landun gehienak (% 82,5) soldatapekoak dira ekonomia-sektore pribatuan. Proporziorik handiena da 2010. urteaz geroztik (% 82,1). 2010 eta 2014 artean kopuruak behera egin zuen 63.225etik 60.933ra, baina 2018an gora egin du, pertsona kopurua 81.423 izan arte, 2010ean baino % 28,8 gehiago.

Era berean, nabarmentzekoak dira enplegataileak, biztanle autonomoak eta familia-laguntzak, % 14,9 baitira, 2010ean (% 14,5) eta 2014an (% 15,5) izandakoen tarteko balioa. Kolektibo horretan baino ez da etengabe handitu landunen kopurua 2010 eta 2018 artean (11.170 pertsonatik 14.708 pertsonara: % 31,7ko igoera). Sektorre publikoan, enpresa publikoan barne, diharduten biztanle landunen pisua oso txikia da: 2.128 pertsona baino ez 2018an; guztien % 2,2. Gainerako % 0,4ak beste esparru batzuetan lan egiten du; batez ere esparru kooperatiboan.

Ekintzaileen proportzioa bereziki handia da Txinatik etorritako landunen artean, eta talde horretan joera hori da nagusi, % 72,1 izanik. Proportzio hori etengabe handitu du 2010etik (% 50,5). Inoiz % 30eko muga gainditu gabe bada ere, handia da, halaber, kolektibo ekintzaileen pisu erlatiboa etorkia EBko mendebaldeko herrialdeetan, Argentina/Txile/Uruguain eta munduko gainerako herrialdeetan dutenen artean, eta balioak % 20,5 eta % 26,4 artekoak dira. Proportzioa oraindik % 15etik gorakoa da magrebtar jatorrikoen artean (% 16,1). % 11,0 eta % 13,9 artekoa da jatorria Errumanian eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuetan, Bolivian eta Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublikan duten biztanleen artean.

2018an, sektore publikoan, kolonbiar/ekuatortar/perutar jatorrikoen kolektiboan baino ez da % 5etik gorakoa bizilagun landunen proportzioa (% 5,3).

19. Atzerritar jatorriko 83.550 soldatapekoen artean, oraindik ere garrantzi handikoak dira behin-behinekotasuna edo kontraturik eza ezaugarri duten egoerak. Hartara, kontuan hartutako biztanleen % 32,0k mugagabea ez den kontratu batekin lan egiten dute, eta % 6,1ek kontraturik gabe, eta, orotara, guztien % 38,1 dira. Hala ere, egoera horien inpaktu erlatiboa txikitzeko joerak iraun du, eragindako pertsonak 2010ean % 51,2 eta 2014an % 44 izan ondoren.

Dinamika on horrek eragina dauka bai behin-behinekotasunaren pisan (2010-2014 aldiak % 36,6-% 36,8 izatetik 2018an % 32 izatera jaitsi baita) bai, askoz argiago, kontraturik gabeko lan-egoeretan (egoera horien inpaktuak behera egin du 2010ean, 2014an eta 2018an, hurrenez hurren % 14,6, % 7,2 eta % 6,1 izan baita). Hala ere, balio absolutuetan, aldi baterako kontratua duten edo kontratu gabe dauden landunen pisuak gora egin du 2014 eta 2018 artean, kopurua 27.765etik 31.794ra aldatu baita: 23.214tik 26.707ra, aldi baterako kontratua dutenen artean (kopururik handiena 2010etik); eta 4.551tik 5087ra kontraturik gabekoen artean (kasu horretan argi eta garbi 2010eko baliotik behera, 9.513tik).

Nolanahi ere, mugagabeko kontratazioaren pisua etengabe handitzea da dinamika azpimarragarriena. Kontratu mota hori duten atzerritar jatorriko biztanleen proportzioa % 48,8 izan zen 2010ean, % 56, berriz, 2014an eta % 61,9 izan da 2018an. Balio absolutuetan, horrek esan nahi du atzerritar jatorriko 31.884 pertsonak izan zutela kontratu mugagabea 2010ean, 35.376 pertsonak izan zutela 2014an eta 51.757k

izan dutela 2018an, eta gorakada % 11koa izan zela 2010 eta 2014 artean, eta % 46,3koa 2014 eta 2018 artean. Oro har, % 62,3 handitu da 2010 eta 2018 artean kontratu mugagabea duten soldatapekoen kopurua, eta hori, dudarik gabe, garrantzi handikoa da. Guztiz bestela, eta 2014-2018 aldian enpleguaren susperraldi orokorrari lotuta izandako gorakada gorabehera, aldi baterako kontratazioa edo kontraturik gabekoa -% 4,8 murriztu da, 2010ean kasuan 33.388 izan baitziren eta 2018an, berriz, 31.794.

2010ean eta 2014an bezala, mugagabea ez zen kontratazioaren eta kontraturik ezaren inpaktuak desberdina izaten jarraitu du atzerritar jatorriko biztanle-talde batzuetan. Hartara, 2018an, % 51,7-% 51,8 artekoa da jatorria Magreben eta Afrikako gainerako herrialdeetan duten herritarren artean. Nabariki gainerako taldeetan ez bezala, eta erreferentziazat hartuta 2010-2018 aldi osoa, 2018an kasu bakarrean izan du inpakturik handiena aldi baterako kontratazioak edo kontraturik ezak: jatorria Magreben duten biztanle landunen kasuan.

Gehiengoduna ez izan arren, eta argi eta garbi txikiagoa izanik ere 2010eko mailak baino, aldi baterako kontratazioarako moduen proportzioa, edo kontraturik ezarena, % 40tik gorakoa da boliviarr eta senegaldar jatorrikoen artean (% 43,5 eta % 40,3).

Gainerako biztanle-taldeetan, aldi baterako kontratazioaren inpaktua edo kontraturik gabeko lan-harremanena % 35,3 eta % 39,4 artekoa da, hiru salbuespen hauekin: argentinar/txiletar/uruguaitar jatorrikoen taldearena, oraindik % 30etik gorako balioa baitute (% 31,9), eta jatorria EBko mendebaldeko herrialdeetan eta Txinan duten biztanleena (% 21,8 eta % 23,8, hurrenez hurren).

20. Atzerritar jatorriko landunei dagokienez, honako datu hauek ere nabarmendu behar dira:

a) % 5,6k Gizarte Segurantzari afiliatu gabe dihardute; proportzio horrek beheranzko bide argia darama 2010. urtearekin (% 14,7) eta 2014. urtearekin (% 7,5) alderatuta.

Afiliatorik gabeko kontratazioek batezbestekoa baino presentzia handiagoa dute boliviarr jatorriko biztanleen artean (% 9,2) eta batez ere jatorria Paraguain eta Latinoamerikako gainerako herrialdeetan dutenen artean (% 16,9 eta % 16,0).

b) Lan partzialaren inpaktua, asteko 30 ordutik beherakoarena, oso handia da atzerritar jatorrikoen artean: % 24,8. Ehunekoa 2014koa (% 30,4) baino nabarmen txikiagoa izan arren, oraindik ere 2010ekoa (% 21,7) baino handiagoa da.

Denbora partzialeko lan mota horretan, % 30eko atalasea gainditzen da boliviarr eta paraguaitar jatorrikoen artean (% 34,9 eta % 34). Inpaktua % 25,4 eta % 26,9 artekoa da jatorria Errumanian eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuetan, Kolonbia/Ekuador/Perun, Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublikan eta Afrikako gainerako herrialdeetan duten herritarren artean.

c) Atzerritar jatorriko herritarren % 4,5 enplegu-aniztuna da. Ehunekoa nabarmen jaitsi da 2010etik (% 7,3) eta 2014tik (8,1). 2018an, paraguaitar jatorrikoen artean baino ez da gainditzen % 10eko atalasea (% 14,2).

d) Atzerritar jatorriko biztanleen % 12,9 beste lan baten bila ari dira, dela egungoa ordezkatzeko, dela baliabideak osatzeko. Hala ere, proportzioa txikiagoa da 2010ekoa (% 17,9) eta 2014koa (% 15,7) baino. Biztanleen % 20 baino gehiago egon dira egoera horretan 2018an jatorria Bolivian (% 23,3) eta Latinoamerikako gainerako herrialdeetan (% 24,6) dutenen taldeetan.



### 3.2.3. Biztanle langabeen egoera

21. Adierazi bezala, langabezia dauden atzerritar jatorriko herritarren kopurua txikiena izan da 2018an, 23.875 pertsonakoa. Era berean, adierazgarria da ikustea 2014-2018 aldian izandako langabeziaren jaitiera handia batez ere iraupen luzeeneko langabeen taldean gertatu dela. Hartara, iraupen luzeko langabeziak, urtebetetik gorakoak, -% 64,4 egin du behera aldi horretan, 31.838 pertsonatik 11.331 pertsonara. Langabezia molde hori, 2014an atzerritar jatorriko langabeen % 65,1 ezaugarritu ondoren, % 47,5era jaitsi da 2018an. Oso iraupen luzeko langabeziak (bi urte baino gehiago lan bila), bestalde, -% 70,2 egin du behera 2014 (19.267 pertsona) eta 2018 (5.738) artean. Langabe guztien artean duen pisua % 39,4tik % 24ra aldatu da 2014 eta 2018 artean.

Langabeziaren inpaktua aztertuta kontuan hartuta iraupen luzeenekoaren edo oso luzeenekoaren presentzia handiagoa edo txikiagoa, 2018an jatorria Magreben duten herritarrei dagokie arazorik handiena. Kasu horretan, % 37,3ko langabezia-tasak lotura dauka iraupen luzeko langabezia % 53 eta oso iraupen luzeeneko % 30,8 izatearekin. % 50etik gora edo hurbil dauden iraupen luzeko langabezia-maila horiek, oso iraupen luzeko langabezia % 25etik gorakoa izatearekin batera, atzerritar jatorriko beste talde batzuetako langabeen artean ere ikusten dira, baina langabezia-tasa orokor txikiago batzuei lotuta daude Hala gertatzen da etorkia Bolivian edo Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublikan duen kolektiboari dagokionez, % 19,3 eta 23,3 arteko langabezia-tasak baitituzte, baina are argiago gertatzen da Errumaniari eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuei edo munduko gainerako herrialdeei bagagozkie (% 14,7 eta % 15,6, hurrenez hurren).

Afrikar jatorriko beste kolektibo batzuetan, langabezia-tasa handi-handiekin batera (% 30,9 Senegalaren eta % 42,4 Afrikako gainerako herrialdeetan), oso iraupen luzeko langabeziaren inpaktua batezbestekoa baino txikiagoa da (% 18,6 eta % 20,2). Senegalaren kasuan, iraupen laburreko langabezia, urtebetetik beherakoa, nagusi ere bada, iraupen luzeeneko % 39,7 baino ez baita (% 53,5, Afrikako gainerako herrialdeetan).

22.- 2018. urtean, Lanbidera jotzea izan da enplegua bilatzeko bide nagusia atzerritar jatorriko langabeen artean: % 77,3, hau da, 2014ko proportziotik hurbil (% 78,8) eta askoz handiagoa 2010eko enplegu-zerbitzuetan guztira izandakoa (% 65) baino. ABLEak baliatzea, ordea, oso azpitik dago, baina % 17,8ra arte igo da, 2014 eta 2018 artean % 16,8tik % 11ra jaitsi ondoren.

Internet da enplegu-eskaintzen jarraipena egiteko beste bide bat, 2018an langabeen % 45,6k erabili baitute, 2014an (% 36,2) baino portzentajezko 9,4 puntu gehiagok. Prentsako iragarkien edo antzekoen jarraipena egiten duten pertsonen proportzioa 2010 eta 2014 artean % 36,2tik % 13,7ra jaitsi ondoren, berriz igo da % 18,2 izan arte.

Senide edo lagunengana jotzea da lana bilatzeko beste bide nagusi bat, kolektiboaren % 35,5ek baliatzen baitu. 2010eko balioa (% 46,2) baino txikiagoa izan arren, handiagoa da 2014koa (% 31,2) baino. Enpresekin harremanetan zuzenean jartzen diren langabeen proportzioa, ordea, 2010 eta 2014 artean % 29tik % 31ra igo ondoren, % 19,1era jaitsi da.

Elkarteetara eta GKEetara jotzea, azkenik, gorantz ari da. Bide horren erabilera % 9tik % 4,4ra jaitsi zen 2010 eta 2014 artean, baina 2018an % 10,4ra arte igo da.

23. Atzerritar jatorriko langabeek diote hainbat oztopo dituztela enplegua aurkitzeko. 2018an, berriz ere, oztopo nagusiak kualifikazioarekin eta esperientziarekin zerikusia duten alderdiei lotuta daude. Hala, % 26,7k prestakuntza-maila aipatu dute enplegua eskuratzeko muga gisa, eta % 32,6k lan-esperientzia.

Kualifikazioari dagokion atal horren barruan, % 21,8k toki-esparruan erabiltzen diren hizkuntzen (euskara eta/edo gaztelania) jakite-maila ere aipatu dute. Balio horiek 2010 eta 2014koetatik hurbil daude, baina, urte horrekin alderatuta, lan-esperientziarik ezari lotutako mugen pisuak gora egin du (% 32,6, 2014an eta 2010ean % 30,3 eta % 26,6 izan ondoren), eta nolabaiteko egonkortasuna egon da prestakuntza-mailari lotutako faktoreetan (normalean % 27,7 eta % 26 artekoak 2010 eta 2014 artean, eta % 26,7, berriz, 2018an). Gaztelania eta/edo euskara jakiteari lotutako mugek, ordea, behera egin dute (% 28,7 2010ean; % 25,9, berriz, 2014an; eta % 21,8, azkenik, 2018an).

Adina da inpaktu handia duten beste mugetako bat, eta aztertutako langabeen % 17,2k aipatu dute; hau da, 2010ean (% 11k) eta 2014an (% 15,2k) baino nabarmen gehiagok. Familia-kargak ere maiz aipatzen dira: aztertutako kolektiboaren % 10,9k aipatzen ditu; ehuneko hori 2014koa (% 8,8) baino handiagoa da, eta 2010ekoa (% 11,5) baino txikiagoa. Oso azpitik geratzen dira sexua (% 2,2), soldata-xedeak (% 3,5) eta muga fisikoak (% 3,8).

Jakina denez, aipatu faktoreek eragin negatibo bera dute bertoko langabeek enplegua eskuratzeko dauzkaten posibilitateetan. Bi muga, ordea, atzerritar jatorriko biztanleei baino ez dagozkie. Lehenengoa egoera administratibo edo legalari dago lotuta: aztertutako biztanleen % 15,4k egin behar diete aurre egoera horri lotuta dauden enplegua eskuratzeko oztopoei. Faktore horren inpaktua txikiagoa da 2010ean (% 17,8) baino, baina handiagoa 2014an (% 13,6) baino.

Bigarren alderdiak eragin handixeagoa izan du 2018an. Zerikusia du etorkiari lotuta hautemandako mugekin, eta egiaztatu da etorkin langabeen % 18,1ek nabarmentzen dutela enplegua eskuratzeko mugak daudela jatorrizko herrialdeari lotuta. Inpaktu hori 2010ean (% 17,7) izandakoaren oso antzekoa da, baina askoz txikiagoa 2014koa (% 32,3) baino.

Atzerritar jatorriko biztanle-talde guztiek ez diete berdin aurre egiten atzerritar jatorriko biztanleen berezko problematika espezifikorik. Bizileku- eta lan-baimenak eskuratzeari lotutako lege- edo administrazio-egoerari dagokionez, egoera hori bi problematika handienetako bat da jatorria Paraguan, Latinoamerikako gainerako herrialdeetan, Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublikan eta munduko gainerako herrialdeetan duten langabeen artean.

Talde horietan, aztertutako pertsonen arteko % 26,7-% 40,3k planteatzen dute arazo hori. Eta garrantzitsua izaten jarraitzen du, erreferentziazko biztanleen % 16-% 22,1ek aipatzen baitute, etorkia Senegalen eta Afrikako gainerako herrialdeetan duten pertsonen artean. Aipatu talde guztietan, egoera horien inpaktua 2014an izandakoaren antzekoa edo handiagoa da.

Senegaldik eta Afrikako gainerako herrialdeetatik etorritakoei dagokienez, are garrantzitsuagoa da "Jatorrizko herrialdea" faktorea: senegaldar jatorriko langabeen % 43,1ek eta jatorria Afrikako gainerako herrialdeetan dutenetatik % 36,6k lehen edo bigarren postuan aipatzen dute talde horiek 2018an enplegua aurkitzeko izandako arazo handien artean. Proporzioa % 20,6 eta % 24,4 artekoa da jatorria Magreben, Errumanian eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuetan eta munduko gainerako herrialdeetan dutenen artean. Hala ere, problematika hori, 2014an gertatutakoaren aldean, Senegalen kasuan baino ez da areagotzen eragindako biztanleen proportzioaren aldetik.



ACT-1. 16 urte eta gehiago dituzten atzerritar jatorriko ikasleak, ikasketa motaren eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2018 arteko aldia  
(Ikasketak egiten dituztenen ehunekoa)

	2010			2014			2018		
	Araututako ikasketak egiten ari da	Arautu gabeko ikasketak egiten ari da	Ikasketak egiten ari da	Araututako ikasketak egiten ari da	Arautu gabeko ikasketak egiten ari da	Ikasketak egiten ari da	Araututako ikasketak egiten ari da	Arautu gabeko ikasketak egiten ari da	Ikasketak egiten ari da
	%	%	%	%	%	%	%	%	%
<b>Jatorrizko eremua</b>									
EBko mendebaldea	6,0	4,9	10,5	9,0	3,0	12,0	6,6	0,0	6,6
Errumania eta EBko ekialdeko beste batzuk	8,1	7,5	13,9	11,5	5,4	16,9	8,4	2,6	11,0
Magreb	10,8	11,7	22,0	14,6	11,9	26,6	10,5	4,6	15,1
Argentina, Txile, Uruguai	17,7	8,7	25,7	17,2	9,1	26,3	9,9	0,0	9,9
Kolonia, Ekuador, Peru	16,0	6,6	21,4	16,5	3,6	20,1	12,1	0,3	12,3
Bolivia	17,0	4,9	21,7	9,6	5,8	15,3	18,8	1,6	20,4
Paraguai	7,9	4,3	11,4	7,4	4,9	12,3	10,7	3,8	14,5
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	16,5	8,8	22,8	17,7	4,1	21,8	12,0	2,5	14,5
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	11,5	8,2	18,2	10,4	3,1	13,4	5,0	0,0	5,0
Txina	8,0	4,1	12,1	7,8	2,0	9,8	7,5	1,3	8,9
Senegal	6,9	32,8	38,4	18,3	13,3	31,7	8,8	1,4	10,2
Afrikako gainerako herrialdeak	12,6	20,0	30,0	13,2	9,5	22,8	11,6	2,6	14,2
Munduko gainerako herrialdeak	6,1	16,5	20,3	17,6	15,4	33,1	8,7	2,2	10,9
<b>Guztira</b>	11,7	9,0	19,5	13,6	6,8	20,5	10,2	1,8	12,0

Iturria: ABEI, 2010 eta 2018 arteko aldia Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Ekonomia Azterlanen Bulegoa

Gutxien eragindako aldean, adierazlea % 4,7 eta % 8,4 artekoa da jatorria EBko herrialdeetan, Argentina/Txile/Uruguain eta Kolonbia/Ekuador/Perun duten taldeetan, eta portzentajezko 0,4 eta 2,5 puntu arteko igoerak izan dira 2010eko balio txikiarekin alderatuta. 2014an % 14-% 17,5era igo ondoren, murrizketa oso nabarmena izan da 2014 eta 2018 artean Errumaniaren eta EBko ekialdeko beste herrialdeen kasuan (% 17,5etik % 8,4ra), bai eta Kolonbia/Ekuador/Peruren kasuan ere (% 14,0tik % 7,9ra). Magrebtar jatorriko biztanleekin batera, 2014 eta 2018 artean premia kronikoen adierazle honetan dinamikarik onena izan duten hiru taldeak dira.

Txinatar jatorriko herritarren kasuan, azkenik, oinarrizko premiek sei hilabetez edo denbora gehiagoz izandako inpaktua 2010ean eta 2014an % 1,3-% 1,6 izatetik 2018an % 0 izatera jaitsi da.

32. Atzerritar jatorriko biztanle-ehuneko handiek 2018an ere izan dituzte arazoak oinarrizko premiak betetzeko, baina horren atzean biztanle horien bizi-baldintzetan gertatutako begi-bistako hobetze-ildo batzuk ezkututzen dira.

Hobekuntza hori premien adierazpide larrienak gainditzeari lotutako adierazle askotan ikusten da. Bereziki nabarmentzekoa da elikadura egokia izateari buruzko adierazleen bilakaera ona, bai eta nahi ez izatekoak diren gizarte-egintza batzuei buruz, adibidez, hornidura (argia, ura, telefonoa eta abar) moztetari buruz dauden adierazleetan izandako bilakaera ona ere. Lehen kasuan, elikadura egokia bermatzeko gauza ez diren etxeetako pertsonen proportzioa, % 10,7tik % 14,8ra igo ondoren 2010 eta 2014 artean, % 6,5eko balio txikienera jaitsi da 2018an, portzentajezko -8,4 puntu behera eginda 2014tik.



Ildo on berean, hornidura-mozketen inpaktuak beherantz egin du 2010 eta 2014 artean gertatu bezala (% 9,4tik % 5,5era), eta beste gutxienerako balio bat izan du 2018an: % 4.1. Era berean, ondasunen bahitura-prozesuen inpaktuak 2010-2014 aldian izandako balio txikietan (% 1,2-% 1,3) jarraitu du 2018an.

Gainzorpetzeko arriskuari dagokionez ere gertatu da dinamika on hori. 2018ko proportzioa 2010ekotik hurbil egonda ere (% 10,7 eta % 10,8, hurrenez hurren), portzentajezko -6,2 puntu txikiagoa da 2014an izandakoa (% 16,9) baino.

Ildo beretik, 2018an aztertutako kolektiboaren % 24ri eragiten diote oraindik ere neguko hotz-arazoek, baina proportzio hori 2014koa (% 36,1) baino -12,1 puntu txikiagoa da, eta baliorik txikiena 2010ekoaz (% 25,5) geroztik. Antzeko zerbait esan daiteke bigarren eskuko jantziak erabili behar izateari dagokionez. Baina desberdintasun bat dago: 2014-2018 aldiko jaitsiera (% 29,1etik % 25,5era) ez da aski 2010eko balioarekiko (% 23,3) murrizketa ahalbidetzeko.

Gainera, gertatutako hobekuntzen parte batekin zerikusia duten (baliabideen) kudeaketa-estrategiek berekin ekartzen dute ez ordaintzea edo ordainketa atzeratzea, kontsumoari lotutako betebeharrak ekonomikoen paguez den bezainbatean. Hala, atzerritar jatorriko biztanleen artean, ez ordaintze edo atzeratze horiek ukitutako pertsonen ehunekoa etengabe handitu da: % 16,2 2010. urtean; % 18,1, 2014. urtean; eta % 20,6 2018. urtean.

Nolanahi ere, aipatu joeren kontsiderazio orokorrak adierazten du bilakaera ona izan dela oro har, eta, horren ondorioz, bizikidetzaren unitate kanpoko laguntzetara jotzeko beharra txikiagoa izan dela. Hartara, laguntzak senideei edo beste gizarte-sostengu batzuei eskatzearen proportzioa, 2010-2014 aldian % 28,2 eta % 29,3 artekoa izan ondoren, % 21,4ra jaitsi da 2018an. Bide beretik, 2010 eta 2014 artean laguntza instituzionalen eskaera % 41,4tik % 47ra igo ondoren, proportzioa txikiena izan da 2018an, % 33,2. Azpierrentamenduak ere, 2010ean eta 2014an % 10,7 izan ondoren, behera egin du 2018an % 8,2ra.

## **2.2. Metaketako adierazleak (etxebizitzaren kalitatea)**

33. ABEIk ez du etxearen ondare-egoerarako hurbilketa osorik eskaintzen, baina bidea ematen du etxeetako epe luzerako bizi-kalitatearen alde erabakigarri batzuk, batez ere etxebizitzari lotutakoak, aztertzeko. Horri dagokionez, nabarmendu beharreko lehen elementua da etxebizitzaren jabe izatearen inpaktua nahiko mugatua dela atzerritar jatorriko biztanleen artean, % 22,9 baino ez baitaude egoera horretan. Proportzioak gora egin du 2014koarekin (% 19,9) alderatuta, baina 2010ekoa (% 25,8) baino txikiagoa da. Ordaindutako jabetzaren pisu erlatiboa % 6,5ekoa da, eta amortizatu gabeko jabetza hipotekatuarena % 16,4koa. Osorik ordaindutako jabetzari dagokionez mailarik apalena da (% 6,9 2010ean eta % 7,2 2014an), baina hipotekatutako jabetzaren inpaktuak gora egin du 2014koarekin (% 12,7) alderatuta, eta 2010ekotik (% 18,9) behera jarraitzen du.

Edukitze modu nagusia alokairua da oraindik ere: atzerritar jatorriko biztanleen % 63,7 egoera horretan daude, eta errealitate horri etxebizitza partekatua dutenak (% 8,8) gehitu beharko litzaizkioke.

Kontuan hartu gabe kasuen % 4,5ean etxebizitza lagata dagoela, edo doan eskuratu dela, datu horiek adierazten dute atzerritar jatorriko pertsonen % 88,9k dituzten edukitze moduen ondorio dela aldizka ordainketa bat egin behar izatea etxebizitza edukitzeko; puntu batzuk baino ez. Baliorik handiena da, 2014koa (% 85,1) baino handiagoa, baina 2010eko baliotik (% 88,2) hurbil dago.

Aurreko urteetan bezala, alokairua erabakigarria da ia atzerritar jatorriko biztanleria mota guztietan, eta bi salbuespen baino ez daude, zeinetan jabetza lortzeak, jabetzari lotutako hipoteka-ordainketa osatuta egon zein ez, inpaktu handiagoa baitauka. Alde batetik, EBko mendebaldeko herrialdeetatik etorritako

pertsonak daude: % 56,2 aipatu egoera horretan daude eta % 37,7, berriz, alokairuan (% 57,8 eta % 36,3 2010ean). Beste taldea txinatarrena da: % 67,6 da jabetzari dagokion proportzioa, eta % 26,9 alokairuari dagokiona; kasu honetan jabetzak argi egin du gora 2010arekin alderatuta (% 47,5 urte hartan; alokairuan, berriz, % 25 urte berean).

Aipatu bi taldeetatik kanpo, eta alokairua nagusi bada ere, jabetzaren pisua ere % 30etik gorakoa da jatorria Argentina/Txile/Uruguain (% 38), Brasil/Venezuela Dominikar Errepublikan (% 31,6) eta Kolonbia/Ekuador/Perun (% 31,3) dutenen artean. Hiru kasuetan, 2018koa izan da ehunekorik handiena, baina Argentina/Txile/Uruguairen kasuan baino ez zaio eusten etengabe gorantz egiteko joerari etxebizitza jabetzan izateari dagokionez.

Etxebizitza eskuratzeko aldizka ordainketa bat egiteari lotutako bideen nagusitasunaren ondorioak erabakigarriak dira atzerritar jatorriko biztanleen artean. Alde horretatik, 2018an etxebizitza eskuratzeko batez besteko gastua hilean 533,70 € da ordainpeko edukitze-erregimenen kasuan, betiere biztanleria horri dagokionez eta bizikidetzta-unitateek egindako batez besteko gastuaren arabera neurtuta. Zenbateko hori 2014koa (518,89 euro) baino % 2,9 handiagoa izanda ere, 2010ekoa (613,19 euro) baino -% 13 txikiagoa da.

2010-2018 aldian, gastuaren murrizketarik urriena alokairuari dagokio. Kasu horretan, murrizketa -% 11,1ekoa da 2010eko batez besteko gastuaren (609,52 euro) eta 2018koaren (542,03 euro) artean (azken kasu horretan 2014koa baino -% 1,7 txikiagoa, orduan 551,22 eurokoa izan baitzen kopurua). Jaitsiera -% 13,2koa da hipotekak eta jabetza lortzeari lotutako gainerako gastuak ordaintzeari dagokionez (711,36 eurotik 617,40 eurora; % 0,7 baino ez 2014ko zenbatekoaren gainetik, orduan 613,36 eurokoa izan baitzen kopurua). Murrizketarik handiena etxebizitza partekatuari dagokio; izan ere, ordainketa -% 26,7 jaitsi da 2010 (431,49 euro) eta 2018 (316,20 euro) artean. Azken zenbateko hori % 9,6 handiagoa da 2014koa (288,64 euro) baino.

34. Etxebizitzaren egoerari eta dauzkan instalazioei eta ekipamenduei buruzko datuen azterketak erakusten digu oro har intzidentzia mugatuta daukatela oinarrizko instalazio eta ekipamenduetako gabeziei lotutako arazo larrienek.

Alde horretatik, ur beroan, instalazio elektrikoan, komunean, bainugelan, dutxan edo gisako instalazioetan gabeziak dituzten etxebizitzetako biztanleak % 0,2 baino ez dira izan 2018an; hozkailua, sukaldea, garbigailua, labea, mikrouhina edo gisako ekipamenduak falta dituztenak, berriz, 1,8. Lehen adierazleak 2018an izan du baliorik txikiena, baina urte horretan bertan oinarrizko ekipamenduen gabezia 2010-2014 aldikoa (% 1,3-% 1,4) baino handixeagoa izan da. 2018an, jatorria Senegalen eta Afrikako gainerako herrialdeetan duten biztanleek baino ez dute gainditu % 2,5eko langa (% 6,0 eta % 8,6).

Errealitate ekologiko eta sozial batzuetan ere nagusi dira datu onak: zaratetikiko edo kutsadurarekiko esposizioa aipatzen duten pertsonak % 7,9 dira, eta % 4,4k diote gizarte-arazo larriak daudela bizilekuaren inguruan (eskaletasuna, alkoholismoa, droga-mendekotasuna, delinkuentzia, lapurretak, oldarkortasuna eta abar). Azken adierazle hori egonkortu arren 2014 eta 2018 artean (% 4,2 2014an), oraintsuko dinamikak adierazten du egoera argi hobetu dela 2010etik, eta balioak hauek izan dira: % 14,7 zaratetikiko eta kutsadurarekiko esposizioari dagokionez; eta % 10,2, berriz, inguruneko gizarte-arazo larriei dagokienez.

Hala ere, atzerritar jatorriko biztanleen artean intzidentzia handia duten etxebizitza-arazo mota batzuk ageri dira, okerrera egin baitute 2014-2018 aldian. Alde batetik, isolamendu-arazoak, arrailak, aire-iragazketak, itoginak edo hezetasuna dituzten etxebizitzetan bizi direla dioten pertsonen proportzioa % 19ra igo da, 2010 eta 2014 artean % 19,2tik % 10,7ra jaitsi ondoren. Proportzioak % 20,6 eta % 26,0 artekoak dira etorkia Afrikako lurraldeetan duten biztanleen artean, eta % 38,8ra iristen dira boliviarrak.





jatorrikoen artean. Argentinar/txiletar/uruguaitar eta txinatar jatorrikoen kasuan izan ezik, gainerako taldeetan, jatorriaren arabera, proportzioak oraindik ere % 12,6 eta % 19,9 artekoak izan dira 2018an.

Arazo nagusia, ordea, etxebizitzaren tamainari dago lotuta oraindik ere; izan ere, atzerritar jatorriko biztanleen % 34,2 pertsonako 20 metro karratu baino gutxiagoko azalera duten etxebizitzetan bizi dira. Proportzio hori ez da iristen 2010ekora (% 39,6), baina portzentajezko 8,9 handiagoa da 2014koa (% 25,3) baino. Mailarik handienak (% 43,7 eta % 63,4 artekoak) jatorria Afrikan, Txinan eta Munduko gainerako herrialdeetan duten biztanleei dagozkie. Hala ere, koloniar/ekudortar/perutar eta boliviarr jatorriko taldeetan ere gainditzen da % 30eko maila.

Bizilagunek etxebizitzaren egoeraz egiten duten balorazio orokorrak erakusten duenez, oro har, atzerritar jatorriko biztanle gehien-gehienek etxebizitzaren bizigarritasun-baldintza gutxienez onargarriak lortzen dituzte. Kolektiboaren % 93,9 egoera horretan dago, hobeto 2010ean (% 89,3) eta 2014an baino (% 90,5). Hala ere, kasuen % 37,5ean, etxebizitzako bizi-baldintzak hobetu egin litezke. Proportzio horrek, 2010ekoa (% 40,6) baino txikiagoa izanda ere, argi egin du gora 2014tik (% 31,3).

Biztanleen % 1,1ek baino ez diote bizigarritasun-baldintzek ez dutela ezein kasutan ere bermatzen etxebizitzak maila eta erosotasun nahikoak izatea, eta kontserbazio-egoera, dekorazio-maila eta barne-zainketa txukuna izatea. Proportzio hori 2010ekoaren antzekoa da, eta 2014koa (% 3,1) baino txikiagoa. Aipatu muturrera iritsi gabe, kasuen beste % 5,0 batean, egoera eskastzat jotzen da, eta proportzio hori 2010ekoa (% 9,5) eta 2014koa (% 6,4) baino txikiagoa da. Oro har, atzerritar jatorriko biztanleen % 6,1ek nabarmentzen dute etxebizitzan ez direla behar bezain onargarriak bizi-baldintzak (2010ean, % 10,7 izan zen proportzio hori; 2014an, berriz, % 9,5).

Etxebizitzaren eskastasun-egoera horiek gehien eragindako taldeak jatorria Afrikako lurraldeetan dutenak dira: % 11,9 Magreben kasuan; % 16,2, berriz, Afrikako gainerako herrialdeei dagokienez; eta % 17,2, azkenik, senegaldar jatorrikoen kasuan. Boliviarr jatorriko biztanleak ere batezbestekoa baino goraxeago daude: % 6,7

### **2.3. Pobreziaren eta prekaritatearen inpaktua**

35. Ikuspegi sintetiko batetik, 2014 eta 2018 artean, datuek adierazten dute pobrezia- eta prekaritate-adierazleek hobera egin dutela atzerritar jatorriko biztanleen artean.

Hartara, pobrezia gehien lotutako alderdian, eta 2010 eta 2014 artean % 18,4tik % 24,7ra igo ondoen, oinarrizko premiak betetzeko arazo multidimentsionalak dituzten bizikidetz-unitateei lotutako biztanleen proportzioa % 19,3ra jaitsi da 2018an. Hala ere, 2018ko balioa oraindik portzentajezko puntu bat inguru handiagoa da 2014koa baino.

Pertzepzio subjektiboak askoz bilakaera hobea adierazten du. Alde horretatik, pobreak edo pobre samarrak direla dioten etxeetako pertsonen ehunekoa, 2010 eta 2014 artean % 24,6tik % 32,8ra handitu ondoren, % 17,4ra jaitsi da 2018an (-15,5 puntu txikiagoa 2014koa baino, zeina baliorik handiena izan baitzen, eta -7,2 txikiagoa 2010ekoa baino). Zentzu hertsian pobre direla dioten etheen proportzioa, bestalde, % 11,4tik % 18ra handitu zen 2010 eta 2014 artean, baina % 7,9ra jaitsi da 2018an (-10 puntu txikiagoa 2014koa baino, eta -3,4 txikiagoa 2010ekoa baino). Beste muturrean, egoera eroso edo oparoa dutela dioten unitateetako biztanleen proportzioa % 23,3tik % 15,7ra jaitsi zen 2010 eta 2014 artean, eta % 32,5era handitu da 2018an.

Ongizatearekin zerikusirik handiena duen alderdiari dagokionez, 2018ko datuek adierazten dute aurrera egin dela ongizate-egoera horretara hurbiltzeko. Eta hala, 2010 eta 2014 artean % 51,8tik % 45,4ra jaitsi ondoren, 2018. urtean % 58 izan da aisialdia eta denbora libre izateko arazoei lotuta inolako gabeziarik ez duten edo, gehienez ere, larritasun txikiko gabezia motaren bat duten bizikidetz-unitateetako atzeritar jatorriko biztanleen proportzioa. Tarteko posizioan, biztanleen % 22,7k oinarrizko premiak betetzearekin zerikusia duten arazo partzial batzuk izan dituzte 2018an, baina orokorrak izan gabe. Balioa argi eta garbi txikiagoa da 2010 eta 2014 artekoak baino (% 29,8% 29,9).

Azterketaren ardaztat gabezia multidimentsionala (% 19,3ko inpaktu orokorrarekin) duten etxeetako pertsonen proportzioa hartuta, oso egoera desberdinak daude atzeritar jatorriko biztanleen artean. Alde onean, pobrezia-adierazle horren inpakturik txikiena txinatar jatorriko biztanleei lotuta dago, egoera horiek ez baitute inpakturik izan 2018an (% 1,1-% 1,6, berriz, 2010 eta 2014an).

Gabezia multidimentsionalaren inpaktua handiagoa baina konparatiboki mugatua da, eta balioak % 6,1 eta % 6,7 artekoak dira jatorria EBko lurraldeetan eta Argentina/Txile/Uruguain dutenen artean. Egoera hori 2010ekoaren antzekoa da EBko mendebaldeko herrialdeetan eta hizpide hartutako latinoamerikar taldean, baina hobekuntza oso nabarmena izan da 2014 eta 2018 artean Errumaniaren eta EBko ekialdeko herrialdeen kasuan. Kasu horretan, gabezia-egoeran zeuden pertsonen proportzioa % 18,2tik % 22,8ra handitu zen 2010 eta 2014 artean, eta, horregatik, 2018ko balioa, % 6,7, aurrerapauso kualitatibo handia da herritar horientzat.

Gabezia multidimentsionalaren inpaktua EAEko batezbestekoaren azpitik dago oraindik, eta 2018an % 12,7 eta % 14,4 artekoa izan da jatorria Kolonia/Ekuador/Perun, Paraguain eta Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublikan duten biztanleen artean. Hobekuntza, oro har, oso adierazgarria da 2010eko eta 2014ko balioez den bezainbatean, % 20tik hurbilekoak edo gorakoak izaki (Paraguairen kasuan izan ezik, 2010eko balioari dagokionez: % 9,3). Talde horretan aipatzekoa da, nolana ere, pobrezia pertzepzioa konparatiboki askoz txikiagoa dela Kolonia/Ekuador/Peru taldearen kasuan (% 8,3: EAE osorako balioaren erdia baino txikiagoa, % 17,4 baita).

Baina gabezia multidimentsionalaren inpaktua EAEko batezbestekotik oso hurbil dago jada Latinoamerikako eta munduko gainerako herrialdeei dagokionez: % 18,7 eta % 18,3. Kolektibo horietan okertze handia izan da 2010. urtearekin alderatuta; are, munduko gainerako herrialdeetan gertatzen den bezala, 2014aren alderatuta ere.

Gehien eragindako taldeak etorkia Bolivian eta Afrikako lurraldeetan dutenak dira: gabezia multidimentsionalaren balioa % 26,7 izan da senegaldar jatorrikoen artean, % 30,5 magrebtar jatorrikoen artean, % 37,5 jatorria Afrikako gainerako herrialdeetan dutenen artean, eta baliorik handiena, % 39,1, boliviarr jatorrikoen egokitu zaie (hala ere, pobrezia pertzepzio subjektiboaren maila txikixeagoa da latinoamerikar kolektibo horretan afrikar jatorriko taldeetan baino: % 24,4; afrikar taldeetan, berriz, % 29,5 eta % 33,5 artean).

## **2.4. Prekaritate sozio-ekonomikoa eta erakundeen laguntza eskatzea**

36. Atzeritar jatorriko biztanleen egoera hobetuta, 2018an nabarmen gutxiagotan eskatu eta erabili dira gizarte-zerbitzuak eta -prestazioak. Joera orokor hori, ordea, bateragarria da elkarte-mugimenduari egindako laguntza-eskaera handiagoa izatearekin.

Zerbitzuen eskaera eta erabilera jaisteko ildo horretan, azken urtean gizarte-zerbitzu publikoen sistema erabili duten unitateetako atzeritar jatorriko biztanleen ehunekoa % 23,2 izan da 2018an, 2010ean % 37,9 eta 2014an % 38,6 izan ondoren. Bilakaera horren ondorioz, 2018an eskaera portzentajezko 15 puntu inguru txikiagoa izan da 2010ean eta 2014an baino.



Dinamika hori publikoak ez diren elkarte edo erakundeen gizarte-zerbitzuen erabileran dagoena ez bezalakoa da. Erabilera 2014 eta 2018 artean % 18,8tik % 16,8ra jaitsita ere, argi eta garbi da 2010ekoa (% 10,6) baino handiagoa.

Elkarte-sare horren erabilera % 14,1 eta % 15,6 artekoa da jatorria Bolivian, Paraguain eta munduko gainerako herrialdeetan dutenen artean, eta % 21,3koa etorkia Latinoamerikako gainerako herrialdeetan dutenen artean. Boliviaren kasuan izan ezik, zerbitzu horien erabilerak gorantz egin du 2010etik. Gauza bera gertatzen da magrebtar jatorriko biztanleekin, talde horretan zerbitzu horien erabilera % 30,8koa izan baita 2018an. 2014. urtearekin alderatuta behera egin duen arren, erabilera mailarik handienak etorkia Senegalaren eta Afrikako gainerako herrialdeetan dutenenak izan dira 2018an: % 37,2 eta % 38,6, hurrenez hurren.

37. Joera berak daude atzerritar jatorriko biztanleek EAEko prestazio ekonomikoak eskatu eta baliatzeari dagokionez: DSEB prestazioaren erabilerak behera egin du, baina EPO, GLL eta gisako prestazio osagarrien eskaerak eta erabilerak gora egin dute berriz. Horren gaineko datu nagusiak, ABEI aplikatu aurreko hamabi hilabeteetakoak, honako hauek dira:

- Gehien eskatzen den prestazio ekonomikoa DSBE da oraindik ere; prestazioa eskatu duten bizikidetzak unitateei lotutako biztanleak % 28,1 dira eta benetan eskuratu dutenak % 24,3. Balio horiek 2010etik izandako txikiak dira. 2018an, eskaria portzentajezko -7,0 puntu jatsi da 2010ean (% 35,1) izandakoarekin alderatuta, eta -10,7 puntu 2014an (% 38,9) izandakoekin alderatuta, baina erabilerak portzentajezko -8,2 puntu egin du behera 2014tik (% 32,5) eta -1,1 baino ez 2010etik (% 25,4).
- Etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO) DSBE prestazioaren eskaerari lotuta egon ohi da, eta % 28,2tik % 21,8ra jaitsi da 2014 eta 2018 artean, eta 2010ekoa (% 21,7) baino hamarren bat soilik handiagoa izan da. Erabilera % 18koa izan da 2018an, 2014koa (% 22,4) baino txikiagoa, baina oraindik 2010ekoa (% 16,3) baino handiagoa.
- Etxebizitzagatiko udal-tasetatik salbuesteak, tason murrizketak eta etxebizitzarako bestelako laguntzek nabarmen egin dute gora, etxebizitzarako prestazio ekonomikoa (EPE) eta etxebizitzarako eskubide subjektiboa garatzearekin batera. Atzerritar jatorriko biztanleen % 12,1etik horrelako jarduketak eskatzen dituzte, eta % 7,7k jaso egin dituzte, portzentajezko 6 puntu gehiagok 2010ean eta 2014an baino.
- 2010 eta 2014 artean % 9,2tik % 6,8ra jaitsi ondoren, 2018an % 8ra arte igo da GLL prestazioaren eskaera. Joera antzekoa da erabileraren proportzioari dagokionez: % 6,6tik % 3,9ra jaitsi zen 2010 eta 2014 artean, baina % 5,1era igo da 2018an.
- Prestazioak edo asistentzia-laguntzak jasotzeko eskariaren beste esparru garrantzitsu bat haurtzaindegirako eta eskola-jantokirako bekei lotuta dago. 2018an, eskaera egiten duten bizikidetzak unitateetako biztanleak atzerritar jatorriko biztanle guztien % 33,7 dira, eta % 28k benetan eskuratzen dituzte laguntzak. 2010 eta 2014 artean izandako jaitsieren ondoren, 2018ko mailak handienak dira.
- Eskatzen diren bestelako laguntza ekonomikoei dagokienez (elikagaiak, arropa eta abar), atzerritar jatorriko biztanleen % 7,2 daude 2018an horrelako laguntzak eskatu dituzten unitateetan. Proportzio hori txikiagoa da 2010ekoa eta 2014koa baino (% 9,2). 2018an, aztertutako biztanleen % 6,4k baliatu dituzte laguntza horiek, hau da, orain ere 2010ean eta 2014an baino gutxiagok (% 8 inguru). Kasu horretan, 2018an, laguntzak baliatu dituztenak % 7,1 izan dira senegaldar jatorriko biztanleen artean, % 9,2 magrebtar jatorrikoen artean, % 14,9 etorkia Latinoamerikako gainerako herrialdeetan dutenen artean, eta % 15,9 jatorria Afrikako gainerako herrialdeetan dutenen artean.

**PREC-1. Atzerritar jatorriko biztanleak, biztanleko diru-sarreraren eta gastuen batez besteko mailaren eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera.**

Jatorrizko eremua	2010		2014		2018	
	Biztanleko hileko diru-sarrerak	Biztanleko hileko gastuak	Biztanleko hileko diru-sarrerak	Biztanleko hileko gastuak	Biztanleko hileko diru-sarrerak	Biztanleko hileko gastuak
	Batezbestekoa	Batezbestekoa	Batezbestekoa	Batezbestekoa	Batezbestekoa	Batezbestekoa
EBko mendebaldea	1.032,26	784,58	1.107,66	893,89	1.351,85	1.113,21
Errumania eta EBko ekialdeko beste batzuk	974,73	809,93	754,55	690,34	1.020,15	908,01
Magreb	659,08	566,04	604,32	598,02	619,25	609,51
Argentina, Txile, Uruguai	1.011,78	811,88	1.074,38	850,24	1.248,93	1.089,88
Kolonbia, Ekuador, Peru	837,06	718,62	750,56	691,56	947,52	842,55
Bolivia	699,76	640,13	739,76	682,25	765,13	735,51
Paraguai	798,65	685,10	790,91	706,13	901,97	776,59
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	906,76	768,56	852,73	789,79	1.031,33	939,10
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	1.053,68	732,70	836,18	763,98	976,19	897,44
Txina	1.121,64	790,46	984,10	799,20	995,89	793,85
Senegal	733,31	723,47	692,47	682,46	754,88	716,68
Afrikako gainerako herrialdeak	651,26	633,42	625,08	630,22	643,37	656,65
Munduko gainerako herrialdeak	931,23	765,21	813,75	735,75	913,64	833,47
Guztira	863,49	715,58	795,91	719,31	902,49	819,46

Oharra: Unitate osoaren diru-sarrerei eta gastuei buruzko datu estandarizatuak, Eurostat baliokidetasun-eskala erabilita. 2010 eta 2018 arteko aldia

Iturria: ABEI, 2010 eta 2018 arteko aldia Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Ekonomia Azterlanen Bulegoa

**PREC-2. Atzerritar jatorriko biztanleak, premia ekonomikoei aurre egiteko zailtasunak izatearen arabera. 2010 eta 2018 arteko aldia**

(Datu absolutuak)

Zailtasunak izatea	2010		2014		2018	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Elikadura-, arropa-, oinetako- edo etxebizitza-beharrak betetzeko	53.316	29,7	68.544	35,1	55.646	26,3
Ezusteko gastuei aurre egiteko	54.559	30,4	60.752	31,1	64.342	30,5
Zailtasunik ez	71.708	39,9	65.950	33,8	91.220	43,2
Guztira	179.582	100,0	195.245	100,0	211.208	100,0
<b>Azken urtean 6 hilabetez edo denbora gehiagoz oinarritako premiak betetzeko zailtasunak</b>	11.929	6,6	30.333	15,5	30.761	14,6

Iturria: ABEI, 2010 eta 2018 arteko aldia Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Ekonomia Azterlanen Bulegoa



**PREC-3. Atzerritar jatorriko biztanleak: Premia ekonomikoei aurre egiteko zailtasunen adierazleak, jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2018 arteko aldia**

(Taldearen %)

	2010			2014			2018		
	Zailtasun ekonomikoren bat (%)	Zailtasunak oinarritzko premietan (%)	Azken urtean 6 hilabetez edo denbora gehiagoz oinarritzko premiak betetzeko zailtasunak	Zailtasun ekonomikoren bat (%)	Zailtasunak oinarritzko premietan (%)	Azken urtean 6 hilabetez edo denbora gehiagoz oinarritzko premiak betetzeko zailtasunak	Zailtasun ekonomikoren bat (%)	Zailtasunak oinarritzko premietan (%)	Azken urtean 6 hilabetez edo denbora gehiagoz oinarritzko premiak betetzeko zailtasunak
<b>Jatorrizko eremua</b>									
EBko mendebaldea	37,5	14,1	3,8	38,9	8,1	2,8	23,8	8,5	4,7
Errumania eta EBko ekialdeko beste batzuk	51,5	24,4	5,9	66,1	39,8	17,5	34,7	15,7	8,4
Magreb	75,7	42,2	13,1	89,6	57,9	30,2	80,1	40,5	22,5
Argentina, Txile, Uruguai	39,9	19,5	3,5	40,7	20,7	8,6	36,0	10,5	5,7
Kolonbia, Ekuador, Peru	69,7	32,2	7,5	70,2	37,1	14,0	49,3	20,7	7,9
Bolivia	82,1	41,7	4,1	75,7	37,0	11,3	73,8	49,0	20,6
Paraguai	69,9	25,1	3,2	58,3	38,9	11,9	49,1	19,3	10,6
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	59,0	30,2	8,7	58,1	31,4	12,7	49,1	20,0	12,1
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	40,9	23,6	6,3	63,5	31,2	12,3	63,6	24,1	11,8
Txina	20,9	5,9	1,3	20,1	2,9	1,6	5,5	,4	,0
Senegal	74,8	36,5	10,1	84,0	42,6	19,8	75,2	41,1	19,6
Afrikako gainerako herrialdeak	83,8	50,4	7,6	89,7	48,7	22,5	94,1	45,8	36,5
Munduko gainerako herrialdeak	45,7	22,4	,7	60,7	25,1	16,2	52,3	21,2	15,5
Guztira	60,1	29,7	6,6	66,2	35,1	15,5	56,8	26,3	14,6

Iturria: ABEI, 2010 eta 2018 arteko aldia Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Ekonomia Azterlanen Bulegoa

**PREC-4. Atzerritar jatorriko biztanleak: Zailtasun ekonomikoei aurre egiteko erabilitako estrategiak, zailtasun ekonomikoaren mailaren arabera. 2010 eta 2018 arteko aldia**  
(Datu absolutuak)

		Zailtasun ekonomikoak				
Gabezia-adierazleak		Elikadura-, arropa-, oinetako- edo etxebizitza-beharrak betetzeko	Ezustekei aurre egiteko	Zailtasunik ez	Guztira	
2010	Otordu egokiak egiteko ezintasuna (%)	36,0	0,0	0,0	10,7	
	Neguan hotza (%)	44,9	28,4	8,8	25,5	
	Bigarren eskuko jantziak erabiltzea (%)	48,5	24,2	3,9	23,3	
	Azpierrentamendura jotzea (%)	12,1	10,5	9,8	10,7	
	Senideei edo beste batzuei laguntza eskatzea (%)	66,2	24,3	2,9	28,2	
	Erakundeetan laguntza eskatzea (%)	71,9	49,9	12,2	41,4	
	Ez ordaintzea/berandu ordaintzea (%)	44,8	7,7	1,3	16,2	
	Hornidura —argindarra, ura, telefonoa— etetea (%)	25,5	4,7	0,9	9,4	
	Ondasunak enbargatzea (%)	3,4	0,2	0,3	1,2	
	Gainzorpetzea (%)	28,8	6,3	1,0	10,8	
2014	Otordu egokiak egiteko ezintasuna (%)	42,3	0,0	0,0	14,8	
	Neguan hotza (%)	64,7	29,7	12,2	36,1	
	Bigarren eskuko jantziak erabiltzea (%)	54,6	25,3	6,0	29,1	
	Azpierrentamendura jotzea (%)	13,2	11,9	6,9	10,7	
	Senideei edo beste batzuei laguntza eskatzea (%)	61,5	21,4	3,1	29,3	
	Erakundeetan laguntza eskatzea (%)	79,9	52,2	8,1	47,0	
	Ez ordaintzea/berandu ordaintzea (%)	45,4	5,8	1,0	18,1	
	Hornidura —argindarra, ura, telefonoa— etetea (%)	14,7	0,9	0,3	5,5	
	Ondasunak enbargatzea (%)	3,5	0,3	0,0	1,3	
	Gainzorpetzea (%)	38,9	7,7	2,4	16,9	
2018	Otordu egokiak egiteko ezintasuna (%)	24,5	0,0	0,0	6,5	
	Neguan hotza (%)	59,5	22,0	3,7	24,0	
	Bigarren eskuko jantziak erabiltzea (%)	65,2	21,5	4,2	25,5	
	Azpierrentamendura jotzea (%)	13,8	9,5	3,8	8,2	
	Senideei edo beste batzuei laguntza eskatzea (%)	60,8	14,7	2,2	21,4	
	Erakundeetan laguntza eskatzea (%)	76,5	34,2	6,0	33,2	
	Ez ordaintzea/berandu ordaintzea (%)	62,2	8,3	3,8	20,6	
	Hornidura —argindarra, ura, telefonoa— etetea (%)	14,6	0,6	0,1	4,1	
	Ondasunak enbargatzea (%)	4,3	0,1	0,2	1,2	
	Gainzorpetzea (%)	35,5	3,7	0,6	10,7	

Iturria: ABEI, 2010 eta 2018 arteko aldia Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Ekonomia Azterlanen Bulegoa



**PREC-5. Atzerritar jatorriko biztanleak: Zailtasun ekonomikoei aurre egiteko erabilitako estrategiak, jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2018 arteko aldia (Taldearen %)**

		Eremu geografikoa (talde zehaztuak)													
		EBko mendebaldea	Errumania eta EBko ekialdeko beste batzuk	Magreb	Argentina, Txile, Uruguai	Kolonbia, Ekuador, Peru	Bolivia	Paraguai	Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	Txina	Senegal	Afrikako gainerako herrialdeak	Munduko gainerako herrialdeak	Guztira
2010	Otordu egokiak egiteko ezintasuna (%)	5,6	11,1	19,6	9,4	12,7	9,5	8,8	7,5	1,2	2,1	21,8	16,1	4,1	<b>10,7</b>
	Neguan hotza (%)	13,8	26,0	34,3	14,0	29,3	37,9	18,7	25,1	15,0	9,1	34,7	37,2	15,5	<b>25,5</b>
	Bigarren eskuko jantziak erabiltzea (%)	7,3	18,8	35,2	6,2	21,0	51,5	28,3	24,1	15,1	3,1	38,0	40,3	11,8	<b>23,3</b>
	Azpierrentamendura jotzea (%)	6,6	12,0	5,7	4,7	14,0	13,0	11,3	13,7	10,3	9,5	14,0	20,7	8,4	<b>10,7</b>
	Senideei edo beste batzuei laguntza eskatzea (%)	17,4	27,4	38,9	12,5	31,5	37,6	19,8	21,4	24,6	7,8	34,7	46,5	22,9	<b>28,2</b>
	Erakundeetan laguntza eskatzea (%)	15,0	32,6	54,9	25,4	39,1	72,1	58,8	41,7	34,2	3,1	63,4	75,4	35,2	<b>41,4</b>
	Ez ordaintzea/berandu ordaintzea (%)	3,4	13,7	20,0	11,9	17,8	26,4	8,9	20,5	10,9	1,1	26,9	29,6	16,6	<b>16,2</b>
	Hornidura —argindarra, ura, telefonoa— eskatzea (%)	2,9	8,5	6,2	3,0	13,2	25,8	6,0	11,0	6,7	1,1	9,3	12,9	6,5	<b>9,4</b>
	Ondasunak enbargatzea (%)	0,7	1,1	2,5	1,4	1,9	0,4	0,0	1,8	0,0	0,0	3,2	0,0	0,0	<b>1,2</b>
	Gainzorpetzea (%)	4,0	5,9	11,2	7,3	15,8	19,1	5,2	10,8	6,2	1,7	12,0	24,7	8,7	<b>10,8</b>
2014	Otordu egokiak egiteko ezintasuna (%)	2,3	12,4	25,0	7,1	14,4	14,9	5,4	10,1	13,6	1,3	26,2	34,9	15,9	<b>14,8</b>
	Neguan hotza (%)	15,1	35,5	52,4	26,4	32,7	44,6	38,9	31,9	33,4	18,5	41,6	54,7	32,6	<b>36,1</b>
	Bigarren eskuko jantziak erabiltzea (%)	8,2	22,6	39,3	12,3	29,0	47,9	44,9	24,1	28,7	12,9	35,5	58,8	20,3	<b>29,1</b>
	Azpierrentamendura jotzea (%)	1,6	13,7	9,8	9,0	10,6	11,4	22,7	6,5	9,2	9,4	14,9	23,9	11,0	<b>10,7</b>
	Senideei edo beste batzuei laguntza eskatzea (%)	17,2	30,6	39,9	18,3	33,2	28,3	32,5	29,7	29,6	8,8	31,0	35,3	22,2	<b>29,3</b>
	Erakundeetan laguntza eskatzea (%)	15,9	44,6	76,1	19,6	47,0	54,5	41,4	37,0	35,5	2,4	65,2	81,0	49,6	<b>47,0</b>
	Ez ordaintzea/berandu ordaintzea (%)	4,0	18,3	23,6	13,8	24,6	24,5	22,3	19,0	15,5	0,3	14,6	21,4	12,7	<b>18,1</b>
	Hornidura —argindarra, ura, telefonoa— eskatzea (%)	0,1	3,9	7,3	4,1	7,9	7,8	8,1	6,8	8,2	0,0	5,8	5,0	3,1	<b>5,5</b>
	Ondasunak enbargatzea (%)	0,0	0,6	2,1	0,4	1,9	0,0	1,1	2,4	3,4	0,0	0,8	1,6	0,8	<b>1,3</b>
	Gainzorpetzea (%)	2,8	16,2	24,0	10,8	27,4	14,5	15,6	13,9	13,4	1,7	18,8	17,5	16,3	<b>16,9</b>
2018	Otordu egokiak egiteko ezintasuna (%)	0,7	3,2	12,0	0,6	2,6	5,1	1,1	4,0	6,8	0,0	13,0	15,7	9,5	<b>6,5</b>
	Neguan hotza (%)	11,4	9,4	36,3	13,1	20,0	34,5	15,2	20,3	24,9	0,0	26,8	47,3	22,2	<b>24,0</b>
	Bigarren eskuko jantziak erabiltzea (%)	12,7	13,8	36,6	12,8	19,1	40,3	18,9	23,7	30,3	0,9	29,6	41,9	24,8	<b>25,5</b>
	Azpierrentamendura jotzea (%)	1,0	4,1	6,6	2,0	7,6	10,6	11,6	8,4	7,8	3,1	15,9	22,2	11,1	<b>8,2</b>
	Senideei edo beste batzuei laguntza eskatzea (%)	6,4	15,2	27,6	9,8	17,2	34,9	22,2	16,5	28,3	0,7	25,7	37,1	19,7	<b>21,4</b>
	Erakundeetan laguntza eskatzea (%)	6,6	15,9	58,4	14,6	21,7	35,9	30,7	24,6	35,2	0,0	44,8	68,4	31,2	<b>33,2</b>
	Ez ordaintzea/berandu ordaintzea (%)	8,6	12,8	30,7	6,5	17,4	42,8	21,4	13,1	14,5	3,5	23,2	35,9	17,6	<b>20,6</b>
	Hornidura —argindarra, ura, telefonoa— eskatzea (%)	0,6	0,9	7,7	0,1	0,9	13,0	7,7	2,8	1,1	0,0	6,6	9,4	2,9	<b>4,1</b>
	Ondasunak enbargatzea (%)	0,6	0,0	1,5	0,0	2,2	0,8	0,4	0,0	0,4	0,0	0,5	4,8	1,7	<b>1,2</b>
	Gainzorpetzea (%)	2,5	7,6	17,5	2,9	5,7	21,8	12,7	8,7	7,1	0,0	4,9	26,1	7,8	<b>10,7</b>

Iturria: ABEI, 2010 eta 2018 arteko aldia Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Ekonomia Azterlanen Bulegoa

**PREC-6. Atzerritar jatorriko biztanleak, etxebizitzaren edukitze-erregimenaren arabera. 2010 eta 2018 arteko aldia**  
**(Datu absolutuak eta % bertikalak)**

Edukitze-erregimena	2010		2014		2018	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Jabetza guztiz ordaindua	12.394	6,9	14.090	7,2	13.771	6,5
Jabetza partzialki ordaindua	34.028	18,9	24.840	12,7	34.680	16,4
Alokairua	108.092	60,2	114.931	58,9	134.518	63,7
Partekatua	16.206	9,0	26.316	13,5	18.494	8,8
Doakoa, lagata	8.863	4,9	14.812	7,6	9.514	4,5
Beste egoera batzuk	0	,0	257	,1	230	,1
<b>Guztira</b>	<b>179.582</b>	<b>100,0</b>	<b>195.245</b>	<b>100,0</b>	<b>211.208</b>	<b>100,0</b>

Iturria: ABEI, 2010 eta 2018 arteko aldia Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Ekonomia Azterlanen Bulegoa





**PREC-7. Atzeritar jatorriko biztanleak, etxebizitzaren edukitze-erregimenaren eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2018 arteko aldia  
(% horizontalak)**

		Etxebizitzaren edukitze-erregimena							
Jatorrizko eremua		Doakoa, lagata	Jabetza guztiz	Ordainpeko	Jabetza partzialki	Alokairua	Partekatua	Beste egoera	Guztira
		% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.
2010	EBko mendebaldea	4,7	25,6	69,8	32,2	36,3	1,2	0,0	100,0
	Errumania eta EBko ekialdeko beste batzuk	1,4	1,1	97,5	14,1	70,5	12,9	0,0	100,0
	Magreb	1,8	4,2	94,0	17,0	68,7	8,3	0,0	100,0
	Argentina, Txile, Uruguai	2,7	7,4	90,0	19,2	67,7	3,1	0,0	100,0
	Kolonbia, Ekuador, Peru	2,5	4,8	92,7	21,2	64,6	6,8	0,0	100,0
	Bolivia	4,3	1,4	94,2	1,6	75,6	17,0	0,0	100,0
	Paraguai	4,8	1,4	93,8	1,9	79,1	12,8	0,0	100,0
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	5,9	7,8	86,2	22,8	58,3	5,2	0,0	100,0
	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	24,4	4,7	70,9	24,3	33,9	12,6	0,0	100,0
	Txina	21,4	8,0	70,7	39,5	25,0	6,2	0,0	100,0
	Senegal	2,8	0,3	96,9	10,2	50,0	36,7	0,0	100,0
	Afrikako gainerako herrialdeak	4,2	0,4	95,3	19,9	58,9	16,5	0,0	100,0
	Munduko gainerako herrialdeak	5,1	9,7	85,2	13,1	64,3	7,8	0,0	100,0
	<b>Guztira</b>	<b>4,9</b>	<b>6,9</b>	<b>88,2</b>	<b>18,9</b>	<b>60,2</b>	<b>9,0</b>	<b>0,0</b>	<b>100,0</b>
2014	EBko mendebaldea	6,0	25,3	68,7	24,2	33,4	11,1	0,0	100,0
	Errumania eta EBko ekialdeko beste batzuk	4,9	4,0	89,9	11,4	70,2	8,3	1,2	100,0
	Magreb	6,8	2,5	90,7	6,4	67,0	17,3	0,0	100,0
	Argentina, Txile, Uruguai	5,7	11,1	83,2	22,9	55,0	5,3	0,0	100,0
	Kolonbia, Ekuador, Peru	6,3	4,4	89,3	14,9	65,5	8,9	0,0	100,0
	Bolivia	7,2	2,3	90,5	6,1	70,8	13,7	0,0	100,0
	Paraguai	19,3	4,3	76,4	4,7	58,5	13,2	0,0	100,0
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	2,9	12,5	84,7	13,5	59,7	11,5	0,0	100,0
	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	19,5	10,9	69,5	14,0	44,7	10,9	0,0	100,0
	Txina	16,2	4,6	79,1	33,6	34,0	11,5	0,0	100,0
	Senegal	9,5	0,4	90,1	5,3	55,6	29,1	0,0	100,0
	Afrikako gainerako herrialdeak	4,0	1,6	94,5	2,5	61,9	30,1	0,0	100,0
	Munduko gainerako herrialdeak	8,0	5,6	86,4	11,1	56,7	18,6	0,0	100,0
	<b>Guztira</b>	<b>7,6</b>	<b>7,2</b>	<b>85,1</b>	<b>12,7</b>	<b>58,9</b>	<b>13,5</b>	<b>0,1</b>	<b>100,0</b>
2018	EBko mendebaldea	3,4	30,3	66,0	25,9	37,7	2,5	0,3	100,0
	Errumania eta EBko ekialdeko beste batzuk	2,0	1,3	96,7	20,8	70,9	5,0	0,0	100,0
	Magreb	2,8	2,1	94,9	4,2	83,7	7,0	0,2	100,0
	Argentina, Txile, Uruguai	5,3	9,1	84,3	29,0	52,9	2,5	1,3	100,0
	Kolonbia, Ekuador, Peru	2,7	6,1	91,2	25,2	58,5	7,5	0,0	100,0
	Bolivia	3,7	5,7	90,6	13,1	69,8	7,7	0,0	100,0
	Paraguai	15,5	3,7	80,8	6,5	52,2	22,1	0,0	100,0
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	4,8	11,0	84,2	20,6	58,4	5,2	0,0	100,0
	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	17,3	9,5	73,2	10,6	46,7	15,9	0,0	100,0
	Txina	2,7	6,3	91,0	61,2	26,9	2,9	0,0	100,0
	Senegal	0,5	0,9	98,6	1,5	73,9	23,2	0,0	100,0
	Afrikako gainerako herrialdeak	2,4	0,1	97,5	2,5	83,7	11,3	0,0	100,0
	Munduko gainerako herrialdeak	1,8	3,7	94,5	20,8	60,0	13,7	0,0	100,0
	<b>Guztira</b>	<b>4,5</b>	<b>6,5</b>	<b>88,9</b>	<b>16,4</b>	<b>63,7</b>	<b>8,8</b>	<b>0,1</b>	<b>100,0</b>

Iturria: ABEI, 2010 eta 2018 arteko aldia Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Ekonomia Azterlanen Bulegoa

**PREC-8. Atzerritar jatorriko biztanleak ordainpeko edukitze-erregimenetan: Hileko batez besteko gastua, etxebizitzaren edukitze-erregimenaren eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2018 arteko aldia**

		Etxebizitzaren edukitze-erregimena			
	Jatorrizko eremua	Jabetza partzialki ordaindua	Alokairua	Partekatua	Guztira
2010	EBko mendebaldea	620,88	574,03	315,66	591,19
	Errumania eta EBko ekialdeko beste batzuk	693,96	616,37	628,65	629,22
	Magreb	577,76	466,95	344,28	476,19
	Argentina, Txile, Uruguai	703,11	686,41	552,44	685,39
	Kolonbia, Ekuador, Peru	773,58	665,09	391,82	669,86
	Bolivia	841,11	645,87	502,28	623,19
	Paraguai	898,00	730,83	523,70	705,90
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	670,59	665,69	382,81	650,01
	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	779,17	646,85	336,76	637,10
	Txina	930,70	659,18	443,55	792,11
	Senegal	915,97	493,11	308,58	467,56
	Afrikako gainerako herrialdeak	640,58	515,70	375,10	517,43
	Munduko gainerako herrialdeak	995,22	656,99	377,04	683,68
	<b>Guztira</b>	<b>711,36</b>	<b>609,52</b>	<b>431,49</b>	<b>613,19</b>
2014	EBko mendebaldea	641,10	637,92	300,33	584,46
	Errumania eta EBko ekialdeko beste batzuk	570,18	547,74	327,64	530,38
	Magreb	489,14	441,73	289,07	415,91
	Argentina, Txile, Uruguai	604,59	578,89	315,18	569,19
	Kolonbia, Ekuador, Peru	677,50	592,43	300,81	577,67
	Bolivia	484,14	591,82	343,06	547,06
	Paraguai	511,83	589,47	244,24	525,05
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	651,07	610,63	277,72	571,90
	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	501,56	603,27	334,43	540,84
	Txina	750,55	598,62	337,82	625,31
	Senegal	524,21	484,68	231,72	405,20
	Afrikako gainerako herrialdeak	584,52	526,56	240,07	436,87
	Munduko gainerako herrialdeak	602,29	514,67	270,20	473,14
	<b>Guztira</b>	<b>613,26</b>	<b>551,22</b>	<b>288,64</b>	<b>518,89</b>
2018	EBko mendebaldea	658,72	546,05	335,79	582,32
	Errumania eta EBko ekialdeko beste batzuk	566,42	560,09	326,56	549,27
	Magreb	434,43	441,85	299,03	430,94
	Argentina, Txile, Uruguai	714,06	628,33	322,55	648,75
	Kolonbia, Ekuador, Peru	677,92	604,73	360,49	604,91
	Bolivia	426,99	518,34	384,62	493,78
	Paraguai	586,08	633,98	384,68	561,85
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	639,88	616,44	369,76	606,80
	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	440,78	628,10	282,08	525,92
	Txina	675,33	629,26	309,24	650,17
	Senegal	336,01	452,23	249,07	402,64
	Afrikako gainerako herrialdeak	451,81	514,47	288,70	486,78
	Munduko gainerako herrialdeak	669,42	599,60	297,73	571,09
	<b>Guztira</b>	<b>617,40</b>	<b>542,03</b>	<b>316,20</b>	<b>533,70</b>

Iturria: ABEI, 2010 eta 2018 arteko aldia Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Ekonomia Azterlanen Bulegoa



PREC-9. Atzerritar jatorriko biztanleak etxebizitza-arazoak dituzten bizikidetz-unitateetan 2010 eta 2018 arteko aldia

(Datu absolutuak)

	Urtea		
	2010	2014	2018
	Abs.	Abs.	Abs.
<b>Ikusitako gabeziak</b>			
Ur beroaren instalaziorik, instalazio elektrikorik, komunik eta/edo bainuontzi-dutxarik gabe	1.062	837	359
Hozkailurik, sukaldeko etxetresna elektrikorik, garbigailurik eta/edo mikrouhin-laberik gabe	2.432	2.565	3.735
Zarata- edo kutsadura-arazoak	26.465	16.707	16.603
Isolamendu-arazoak, pitzadurak, iragazketak, itoginak, hezetasuna	34.566	20.913	40.207
Azalera desegokia	71.157	49.338	72.163
Arazo sozial larriak etxebizitzaren ingurunean	18.367	8.248	9.326

Iturria: ABEI, 2010 eta 2018 arteko aldia Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Ekonomia Azterlanen Bulegoa

**PREC-10. Etxebizitza-arazoak dituzten familia-unitateetan bizi diren atzerritar jatorriko biztanleak, jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2018 arteko aldia  
(%, eraginda daudela dioten unitateetan)**

Jatorrizko eremua		Ur beroaren instalaziorik, instalazio elektrikorik, komunik eta/edo bainuontzi-dutxarrik gabe	Hozkailurik, sukaldeko etxetresna elektrikorik, garbigailurik eta/edo mikrouhin-laberik gabe	Zarata- edo kutsadura- arazoak	Isolamendu-arazoak, pitzadurak, iragazketak, itoginak, hezetasuna	Azalera desegokia	Arazo sozial larriak etxebizitzaren ingurunean	
		%	%	%	%	%	%	%
2010	EBko mendebaldea	1,3	0,4	10,3	16,6	19,5		11,7
	Errumania eta EBko ekialdeko beste batzuk	0,7	0,9	8,3	25,0	29,4		10,2
	Magreb	1,1	2,3	12,9	19,9	51,5		7,5
	Argentina, Txile, Uruguai	0,0	0,8	10,3	11,6	28,4		6,7
	Kolonia, Ekuador, Peru	0,3	0,8	17,3	17,0	47,0		13,0
	Bolivia	0,0	0,7	15,1	30,8	51,2		9,3
	Paraguai	0,0	1,2	17,5	14,4	42,3		13,3
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	1,7	3,4	13,1	17,9	29,4		9,6
	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	0,0	0,0	20,6	15,3	26,5		1,6
	Txina	0,0	1,3	22,8	10,3	42,0		22,4
	Senegal	0,3	1,0	19,6	25,8	55,5		25,6
	Afrikako gainerako herrialdeak	0,0	3,3	16,4	30,0	52,9		12,3
	Munduko gainerako herrialdeak	0,0	1,7	22,9	12,3	45,1		5,0
	<b>Guztira</b>	<b>0,6</b>	<b>1,4</b>	<b>14,7</b>	<b>19,2</b>	<b>39,6</b>		<b>10,2</b>
2014	EBko mendebaldea	0,0	1,7	8,6	5,7	11,5		1,4
	Errumania eta EBko ekialdeko beste batzuk	1,2	1,8	11,6	19,0	37,2		5,8
	Magreb	0,4	2,0	7,7	8,8	34,6		5,1
	Argentina, Txile, Uruguai	0,0	0,0	9,9	4,5	16,9		3,6
	Kolonia, Ekuador, Peru	0,5	0,0	5,6	10,7	19,3		2,0
	Bolivia	0,0	1,7	15,5	13,2	26,0		8,0
	Paraguai	0,0	0,0	10,8	9,4	16,8		7,6
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	0,0	0,0	10,5	8,9	24,2		7,4
	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	0,0	0,0	5,1	9,6	14,1		2,7
	Txina	0,0	0,0	3,5	4,5	36,7		3,4
	Senegal	0,0	9,1	8,0	13,7	44,4		5,3
	Afrikako gainerako herrialdeak	2,8	3,0	1,9	9,5	29,0		2,2
	Munduko gainerako herrialdeak	0,0	1,6	11,9	16,4	25,3		3,4
	<b>Guztira</b>	<b>0,4</b>	<b>1,3</b>	<b>8,6</b>	<b>10,7</b>	<b>25,3</b>		<b>4,2</b>
2018	EBko mendebaldea	0,0	0,5	9,2	17,2	14,9		1,9
	Errumania eta EBko ekialdeko beste batzuk	0,0	0,5	7,5	19,9	16,6		4,8
	Magreb	0,8	1,3	3,4	21,1	53,1		1,6
	Argentina, Txile, Uruguai	0,0	1,6	4,2	7,5	16,8		2,4
	Kolonia, Ekuador, Peru	0,2	2,0	6,2	18,7	33,3		2,8
	Bolivia	0,0	0,8	12,8	38,8	31,1		11,9
	Paraguai	0,0	0,0	7,1	13,5	17,6		8,5
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	0,0	0,0	10,1	14,6	18,5		9,9
	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	0,0	0,9	11,6	19,1	19,9		7,0
	Txina	0,0	0,0	0,7	5,3	45,3		0,0
	Senegal	0,0	6,0	10,3	26,0	43,7		0,2
	Afrikako gainerako herrialdeak	0,0	8,6	11,2	20,6	63,4		4,7
	Munduko gainerako herrialdeak	0,0	2,3	11,0	12,6	45,7		4,5
	<b>Guztira</b>	<b>0,2</b>	<b>1,8</b>	<b>7,9</b>	<b>19,0</b>	<b>34,2</b>		<b>4,4</b>

Iturria: ABEI, 2010 eta 2018 arteko aldia Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Ekonomia Azterlanen Bulegoa



## PREC-11. Atzerritar jatorriko biztanleak, etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzen arabera.

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Etxebizitzari bizigarritasuna	dagokionez	hautemandako	2010		2014		2018	
			Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Ez, inoiz ere ez			2.041	1,1	6.007	3,1	2.360	1,1
Ez, ez da nahikoa			17.124	9,5	12.548	6,4	10.526	5,0
Maila onargarria du, baina hobe daiteke			72.880	40,6	61.179	31,3	79.052	37,5
Bai, maila egokia du			87.538	48,7	115.511	59,2	119.143	56,4
Guztira			179.582	100,0	195.245	100,0	211.081	100,0

Oharra: Bizigarritasun-baldintzek zerikusia dute etxebizitzaren mailarekin, erosotasunekin, kontserbazio-egoerarekin, dekorazioarekin eta barne-zainketarekin.

Iturria: ABEI, 2010 eta 2018 arteko aldia Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Ekonomia Azterlanen Bulegoa

**PREC-12. Atzerritar jatorriko biztanleak, etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzen eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2018 arteko aldia  
(% horizontalak)**

		Etxebizitzaren egoera						
Jatorrizko eremua	Ez, inoiz ere ez	Ez, ez da nahikoa	Gutxiegi	Maila onargarria du, baina hobe daiteke	Bai, maila egokia du	Guztira		
2010	EBko mendebaldea	2,5	4,0	6,5	27,1	66,3	100,0	
	Errumania eta EBko ekialdeko beste batzuk	1,1	9,2	10,3	33,6	56,1	100,0	
	Magreb	3,5	15,1	18,5	48,8	32,7	100,0	
	Argentina, Txile, Uruguai	0,3	2,5	2,8	31,6	65,6	100,0	
	Kolonbia, Ekuador, Peru	0,3	7,5	7,8	48,4	43,8	100,0	
	Bolivia	0,9	19,7	20,6	39,9	39,4	100,0	
	Paraguai	0,0	7,1	7,1	36,6	56,3	100,0	
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	0,4	5,6	6,0	47,7	46,3	100,0	
	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	0,0	2,0	2,0	33,1	64,9	100,0	
	Txina	0,0	2,2	2,2	35,7	62,1	100,0	
	Senegal	1,5	25,1	26,5	37,8	35,7	100,0	
	Afrikako gainerako herrialdeak	0,0	15,4	15,4	59,1	25,5	100,0	
	Munduko gainerako herrialdeak	0,0	12,2	12,2	30,4	57,4	100,0	
	<b>Guztira</b>	<b>1,1</b>	<b>9,5</b>	<b>10,7</b>	<b>40,6</b>	<b>48,7</b>	<b>100,0</b>	
2014	EBko mendebaldea	1,5	2,5	4,0	28,1	67,9	100,0	
	Errumania eta EBko ekialdeko beste batzuk	5,7	6,8	12,5	34,0	53,5	100,0	
	Magreb	6,1	10,1	16,3	31,7	52,1	100,0	
	Argentina, Txile, Uruguai	1,0	1,5	2,4	14,8	82,8	100,0	
	Kolonbia, Ekuador, Peru	0,6	6,8	7,4	29,3	63,3	100,0	
	Bolivia	2,3	7,5	9,8	42,8	47,4	100,0	
	Paraguai	2,1	3,4	5,5	31,1	63,4	100,0	
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	1,6	5,5	7,1	35,2	57,7	100,0	
	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	5,8	4,5	10,3	28,5	61,1	100,0	
	Txina	2,4	2,0	4,4	15,3	80,3	100,0	
	Senegal	0,4	8,7	9,1	44,8	46,1	100,0	
	Afrikako gainerako herrialdeak	5,0	11,4	16,4	27,9	55,7	100,0	
	Munduko gainerako herrialdeak	1,6	5,8	7,4	37,5	55,1	100,0	
	<b>Guztira</b>	<b>3,1</b>	<b>6,4</b>	<b>9,5</b>	<b>31,3</b>	<b>59,2</b>	<b>100,0</b>	
2018	EBko mendebaldea	0,0	1,4	1,4	26,6	72,0	100,0	
	Errumania eta EBko ekialdeko beste batzuk	0,8	3,7	4,5	26,9	68,7	100,0	
	Magreb	1,9	10,1	11,9	44,1	44,0	100,0	
	Argentina, Txile, Uruguai	0,5	0,4	0,8	32,1	67,1	100,0	
	Kolonbia, Ekuador, Peru	0,0	4,8	4,8	34,1	61,2	100,0	
	Bolivia	3,3	3,5	6,7	47,2	46,1	100,0	
	Paraguai	0,0	1,0	1,0	50,0	49,0	100,0	
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	0,0	1,3	1,3	39,4	59,4	100,0	
	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	1,8	0,0	1,8	37,0	61,2	100,0	
	Txina	0,0	3,2	3,2	28,0	68,8	100,0	
	Senegal	3,3	13,9	17,2	43,8	38,9	100,0	
	Afrikako gainerako herrialdeak	3,0	13,3	16,2	50,9	32,8	100,0	
	Munduko gainerako herrialdeak	0,2	2,6	2,7	30,4	66,9	100,0	
	<b>Guztira</b>	<b>1,1</b>	<b>5,0</b>	<b>6,1</b>	<b>37,5</b>	<b>56,4</b>	<b>100,0</b>	

Iturria: ABEI, 2010 eta 2018 arteko aldia Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Ekonomia Azterlanen Bulegoa



**PREC-13. Atzerritar jatorriko biztanleak, bizikidetz-unitatearen gabezia-egoeraren arabera. 2010 eta 2018 arteko aldia**

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

	2010		2014		2018	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Gabezia-egoera						
Multidimentsionala oinarritzko alderdietan	32.961	18,4	48.272	24,7	40.792	19,3
Partziala oinarritzko alderdietan	53.545	29,8	58.288	29,9	47.987	22,7
Gabeziarik ez edo gabezia larririk ez	93.077	51,8	88.685	45,4	122.430	58,0
Guztira	179.582	100,0	195.245	100,0	211.208	100,0

Iturria: ABEI, 2010 eta 2018 arteko aldia Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Ekonomia Azterlanen Bulegoa

**PREC-14. Atzerritar jatorriko biztanleak, pobreziaren/ongizatearen eskalako pertzepzioaren arabera. 2010 eta 2018 arteko aldia**

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Pertzepzio eskala	subjektiboa: Pobreziaren/Ongizatearen	2010		2014		2018	
		Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Pobrea		20.423	11,4	35.049	18,0	16.744	7,9
Pobre samarra		23.684	13,2	29.041	14,9	19.941	9,4
Moldatzen da		93.686	52,2	100.573	51,5	105.817	50,1
Eroso edo oparoa		41.790	23,3	30.582	15,7	68.707	32,5
Guztira		179.582	100,0	195.245	100,0	211.208	100,0

Iturria: ABEI, 2010 eta 2018 arteko aldia Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Ekonomia Azterlanen Bulegoa

**PREC-15. Atzerritar jatorriko biztanleak, gabezia-, pobrezia- edo prekaritate-adierazle orokor batzuen eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2018 arteko aldia**

	2010		2014		2018	
	% gabezia multidimentsionala	% gutxienez pobre samarra	% gabezia multidimentsionala	% gutxienez pobre samarra	% gabezia multidimentsionala	% gutxienez pobre samarra
<b>Jatorrizko eremua</b>						
EBko mendebaldea	5,3	11,9	4,8	9,6	6,4	7,0
Errumania eta EBko ekialdeko beste batzuk	18,2	22,5	22,8	30,1	6,7	9,9
Magreb	24,7	38,7	41,9	61,1	30,5	29,5
Argentina, Txile, Uruguai	6,4	9,3	12,1	10,1	6,1	5,1
Kolonbia, Ekuador, Peru	19,8	16,1	26,2	33,0	13,6	8,3
Bolivia	33,3	38,3	29,4	30,3	39,1	24,4
Paraguai	9,3	27,4	30,2	24,3	12,7	17,4
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	19,7	24,2	19,2	17,5	14,4	11,6
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	10,5	14,4	22,6	26,4	18,7	17,2
Txina	1,1	4,3	1,6	9,7	,0	,5
Senegal	28,0	49,5	29,9	52,3	26,7	33,5
Afrikako gainerako herrialdeak	41,2	53,0	43,9	67,4	37,5	30,4
Munduko gainerako herrialdeak	11,0	24,2	17,0	26,7	18,3	18,8
<b>Guztira</b>	<b>18,4</b>	<b>24,6</b>	<b>24,7</b>	<b>32,8</b>	<b>19,3</b>	<b>17,4</b>

Iturria: ABEI, 2010 eta 2018 arteko aldia Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Ekonomia Azterlanen Bulegoa





**PREC-16. Azken hamabi hilabeteetan bai gizarte-zerbitzuak bai lege-aholkularitza izateko laguntza publikoa baliatu ahal izan dituzten bizikidetza unitateetako atzeritar jatorriko biztanleak, jatorrizko eremu geografikoaren arabera.**

**2010 eta 2018 arteko aldia**

**(Taldearen %)**

	2010			2014			2018		
Latinoamerikar jatorriko taldeetan, edo EBko mendebaldeko herrialdeetakoetan, gaztelania behar adina ez jakitea % 3tik beherakoa da. Inpaktua % 8,6 da Errumaniaren eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuen kasuan, eta % 13,3-% 17,8 Magrebetik, Senegaldik eta Afrikako gainerako herrialdeetatik iritsitakoen artean. Proportzioa % 21,7 da munduko gainerako herrialdeetan, eta jatorria Txinan duten biztanleen artean baliorik handiena izan da, % 36,8.

Gaztelania gutxien dakiten taldeetan, ordea, adierazle horiek hobera egin dute 2010. eta 2014. urteez geroztik. Salbuespen bakarra magrebtar jatorriko biztanleena da, behar adina ez jakitearen proportzioa % 12,9tik % 15,6ra igo baita. Proportzioa, nolana ere, 2010ekoa (% 24,6) baino askoz txikiagoa da.

b) Gaztelaniari dagozkion datuak euskarari dagozkionak ez bezalakoak dira; izan ere, 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko biztanleen % 66,6k ez dakite ezer bigarren hizkuntza horretan. Euskara behar adina jakiteari dagokion proportzioa ez da % 8,7tik gorakoa aztertuen artean, eta % 6,1ek baino ez dute esan ondo edo oso ondo dakitela. Hala ere, baliorik handienak dira 2010etik, eta nahikotzat jotako jakiteari dagokion proportzioa % 5,3tik eta % 4,8tik (2010ean eta 2014an) % 8,7ra arte (gaur egun) igo da.

2018an, EBko mendebaldeko herrialdeetatik (% 14,4), Argentina/Txile/Uruguaitik (% 14,8) eta Boliviatik (% 13,5) iritsitako biztanleen artean baino ez da % 10etik gorakoa euskara behar adina jakiteari lotutako maila. 2018an, euskara gutxienez behar adina jakitea lortzeko prozesuan aurrerapausoak egin dira, 2010-2014 aldiko balio gorenekin alderatuta, baina prozesu hori ez aurrera ez atzera gelditu da, eta are pixka bat atzera ere egin du, 2018an jakite-mailan portzentajezko -2,8 puntura arteko jaitsierak izan baitira, jatorria EBko mendebaldeko herrialdeetan, Paraguain, Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublikan eta munduko gainerako herrialdeetan duten biztanleen artean.

c) 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko biztanleen % 46,5ek diote badakitela zerbait ingelesez, dakitena oso mugatua eta hobetzeko modukoa izanda ere (% 46,6k 2010ean eta % 50,1ek 2014an). Are gehiago, % 17,4k diote ondo edo oso ondo dakitela hizkuntza hori. Ehuneko hori handiagoa zen 2010ean (% 14,4), baina txikiagoa 2014an (% 19,0)

Hizkuntza hori ondo edo oso ondo jakiteari dagokionez, aurrera egin da 2010 eta 2018 artean ia-ia talde guztietan jatorriaren arabera, Latinoamerikako gainerako herrialdeak, Senegal eta munduko gainerako herrialdeak salbuetsita. 16 urtetik gorako biztanleen % 20k baino gehiagok diote oso ondo dakitela ingelesa jatorria EBko lurraldeetan, Argentina/Txile/Uruguain eta Afrikako nahiz munduko gainerako herrialdeetan dutenen artean.

d) Bestalde, etorkinen kolektiboaren heterogeneotasun handiaren ondorioz, bermatuta dago beste hizkuntza batzuk ondo edo oso ondo dakizkiten biztanle-poltsa nabarmenak egotea.

Alde horretatik, 16 urtetik gorako etorkinen artean 23.867 pertsonak (kopururik handiena 2010etik) diote ondo dakitela arabiera, eta 19.956k, berriz, gauza bera diote frantsesari buruz (kasu horretan argi eta garbi gutxiago 2010ean eta 2014an baino, kopuruak, hurrenez hurren, 25.988 eta 33.047 izan baitziren).

Atzerritar jatorriko 10.000 pertsonak baino gehiagok ondo edo oso ondo dakizkitez beste hizkuntza batzuk ere: portugesa (13.463k) eta errumaniera (13.257k); orain ere, mailak 2010ekoa eta 2014koa baino handiagoak dira. Urduari (4.607), errusierari (4.369) eta guaraniari (4.328) dagokienez, hizkuntza dakitenak 4.000 pertsona baino gehiago dira.

EAEEn bizi diren atzerritar jatorriko biztanleen artean, 16 urtetik gorako biztanleetatik gutxienez 1.000k dakitez honako hizkuntza hauetako bat ere: txinera (3.919k), berberera (3.291ek), alemana (3.189k), wolofera (2.844k), italiara (2.833k), ukrainera (2.151ek), poloniera (1.752k) eta tagaloa (1.229k).



**EDU-1. 16 urteko eta urte gehiagoko atzerritar jatorriko biztanleak, Euskadin izandako ikasketa-esperientziaren arabera. 2010 eta 2018 arteko aldia**

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Ikasketa arautuetan izandako esperientzia	2010		2014		2018	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Bai	33.846	22,6	36.982	23,1	35.663	21,6
Ez	115.638	77,4	123.312	76,9	129.490	78,4
Guztira	149.484	100,0	160.294	100,0	165.153	100,0

Iturria: ABEI, 2010 eta 2018 arteko aldia Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Ekonomia Azterlanen Bulegoa

**EDU-2. 16 urte eta gehiago dituzten atzerritar jatorriko biztanleak, Euskadin egindako ikasketa arautuetan izandako esperientziaren eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2018 arteko aldia**

(% horizontalak)

Jatorrizko eremua	2010		2014		2018	
	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez
	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.
EBko mendebaldea	32,2	67,8	19,1	80,9	23,1	76,9
Errumania eta EBko ekialdeko beste batzuk	15,2	84,8	15,2	84,8	15,0	85,0
Magreb	21,1	78,9	25,4	74,6	22,1	77,9
Argentina, Txile, Uruguai	30,6	69,4	30,4	69,6	29,0	71,0
Kolonia, Ekuador, Peru	25,1	74,9	30,2	69,8	26,5	73,5
Bolivia	23,8	76,2	17,5	82,5	26,2	73,8
Paraguai	12,7	87,3	10,5	89,5	15,5	84,5
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	29,3	70,7	31,8	68,2	25,1	74,9
Latinoamerikako herrialdeak	18,4	81,6	18,0	82,0	19,4	80,6
Txina	13,0	87,0	18,7	81,3	18,5	81,5
Senegal	11,1	88,9	25,6	74,4	12,3	87,7
Afrikako gainerako herrialdeak	15,9	84,1	21,8	78,2	23,2	76,8
Munduko gainerako herrialdeak	16,4	83,6	20,6	79,4	13,0	87,0
Guztira	22,6	77,4	23,1	76,9	21,6	78,4

Iturria: ABEI, 2010 eta 2018 arteko aldia Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Ekonomia Azterlanen Bulegoa

**EDU-3. Ikasketa arautuak EAEn egin dituzten edo egiten ari diren 16 urteko eta urte gehiagoko atzerritar jatorriko biztanleak, Euskadin jasotako irakaskuntza mota eta hizkuntza-eredua kontuan hartuta, jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2018 arteko aldia (% horizontalak)**

		Zer ikasketa-mailatan sartu zinen lehenengo aldiz EAEko hezkuntza-sisteman?				Eredua:			
		Haur-hezkuntza edo Lehen Hezkuntza	DBH	Bigarren Hezkuntza/LH	Unibertsitatekoa	A	B	D	Informaziorik gabe
Jatorrizko eremua		% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.
2010	EBko mendebaldea	64,5	10,5	11,4	13,6	68,2	6,5	25,3	0,0
	Errumania eta EBko ekialdeko beste batzuk	19,6	19,2	52,0	9,2	75,7	8,6	15,7	0,0
	Magreb	54,0	22,3	10,9	12,8	83,4	11,9	4,7	0,0
	Argentina, Txile, Uruguai	28,7	33,3	24,0	14,0	84,5	13,3	2,2	0,0
	Kolonbia, Ekuador, Peru	27,4	35,0	31,4	6,2	94,8	5,2	0,0	0,0
	Bolivia	37,6	35,1	20,7	6,6	69,2	8,8	22,0	0,0
	Paraguai	0,0	54,2	45,8	0,0	100,0	0,0	0,0	0,0
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	34,0	38,3	22,7	4,9	94,7	4,1	1,2	0,0
	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	26,0	15,9	54,4	3,7	75,1	10,0	14,9	0,0
	Txina	27,1	54,1	7,8	11,1	84,9	7,3	7,8	0,0
	Senegal	8,8	53,8	37,3	0,0	88,8	0,0	11,2	0,0
	Afrikako gainerako herrialdeak	0,0	0,0	78,2	21,8	100,0	0,0	0,0	0,0
	Munduko gainerako herrialdeak	51,8	0,0	23,8	24,4	75,7	24,3	0,0	0,0
	Guztira	38,0	25,5	26,5	10,0	82,9	8,0	9,1	0,0
2014	EBko mendebaldea	50,0	3,1	13,8	33,1	79,3	18,0	1,8	0,9
	Errumania eta EBko ekialdeko beste batzuk	38,1	25,5	12,4	24,0	96,2	3,8	0,0	0,0
	Magreb	27,7	34,5	30,2	7,6	97,9	2,1	0,0	0,0
	Argentina, Txile, Uruguai	6,2	23,9	31,1	38,7	96,6	0,0	3,4	0,0
	Kolonbia, Ekuador, Peru	26,5	33,0	26,7	13,9	86,5	11,5	2,1	0,0
	Bolivia	28,4	18,7	49,5	3,4	100,0	0,0	0,0	0,0
	Paraguai	18,1	27,5	45,6	8,8	93,4	6,6	0,0	0,0
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	19,1	27,8	31,6	21,5	81,8	9,1	9,1	0,0
	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	23,5	10,9	45,9	19,6	86,5	8,9	4,6	0,0
	Txina	28,8	31,8	23,7	15,7	97,7	0,0	2,3	0,0
	Senegal	48,4	22,5	29,1	0,0	92,7	3,8	3,5	0,0
	Afrikako gainerako herrialdeak	47,5	27,4	21,0	4,1	90,9	3,8	5,3	0,0
	Munduko gainerako herrialdeak	28,3	29,5	18,3	23,9	91,0	4,7	2,9	1,4
	Guztira	28,9	26,1	27,6	17,4	90,2	6,9	2,7	0,2
2018	EBko mendebaldea	80,4	4,3	7,4	8,0	78,0	9,6	12,3	0,0
	Errumania eta EBko ekialdeko beste batzuk	30,0	19,6	31,2	19,1	73,0	13,9	13,0	0,0
	Magreb	26,4	44,0	25,1	4,5	79,3	14,6	6,1	0,0
	Argentina, Txile, Uruguai	32,1	13,3	36,5	18,0	83,2	11,4	5,5	0,0
	Kolonbia, Ekuador, Peru	27,3	31,3	29,5	12,0	85,7	5,1	9,2	0,0
	Bolivia	46,9	23,3	28,6	1,3	61,0	14,4	24,5	0,0
	Paraguai	8,3	32,6	53,6	5,4	99,0	1,0	0,0	0,0
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	35,4	29,7	26,0	8,9	83,8	15,2	1,1	0,0
	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	34,5	2,4	48,1	15,0	86,0	0,0	14,0	0,0
	Txina	78,9	11,8	2,1	7,1	73,4	10,8	15,8	0,0
	Senegal	22,8	77,2	0,0	0,0	60,7	30,3	9,0	0,0
	Afrikako gainerako herrialdeak	41,3	41,5	15,6	1,6	82,0	8,2	9,8	0,0
	Munduko gainerako herrialdeak	26,1	30,5	27,2	16,3	91,2	0,0	8,8	0,0
	<b>Guztira</b>	<b>36,5</b>	<b>26,6</b>	<b>27,3</b>	<b>9,5</b>	<b>80,7</b>	<b>9,4</b>	<b>9,9</b>	<b>0,0</b>

Iturria: ABEI, 2010 eta 2018 arteko aldia Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Ekonomia Azterlanen Bulegoa



EDU-4. Ikasketa arautuak EAEn egin dituzten edo egiten ari diren 16 urteko eta urte gehiagoko atzerritar jatorriko biztanleak, hezkuntza-integrazioari buruzko alderdien eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2018 arteko aldia (% taldean)

	Beheko mailan sartu zen	Ez zuen ulertzen/hitz egiten EAEko hizkuntzaren bat	A ereduari buruzko orientazioa	Oso etorkin kopuru handia	Jatorrizko ezaugarriengatik bakartzea	Jatorrizko ezaugarriengatik baztertzea	Hizkuntza-maila lortzeko laguntzarik ez izatea	Prestakuntza-maila lortzeko laguntzarik ez izatea	Harreman esklusiboa/lehentasunezkoa ikasle atzerritarrekin	Arazoak gaztelaniarekin	Arazoak euskararekin
Jatorrizko eremua	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.		
2010											
EBko mendebaldea	1,6	12,5	35,6	6,1	3,2	0,0	1,6	1,6	0,0	.	.
Errumania eta EBko	11,1	44,7	12,8	6,9	3,2	3,2	3,2	5,1	3,5	.	.
Magreb	17,8	58,9	58,9	28,8	2,3	2,3	5,9	5,9	8,7	.	.
Argentina, Txile, Uruguai	20,2	0,0	30,0	19,5	0,0	0,0	1,2	6,1	0,0	.	.
Kolonbia, Ekuador, Peru	12,8	1,0	55,1	24,7	3,9	4,4	2,5	6,5	3,2	.	.
Bolivia	39,3	0,0	37,6	9,2	25,5	25,0	2,1	6,4	18,9	.	.
Paraguai	16,9	0,0	43,2	15,8	0,0	0,0	0,0	0,0	11,7	.	.
Brasil, Venezuela,	11,1	15,3	54,7	15,1	6,5	6,5	10,8	6,9	1,6	.	.
Latinoamerikako gainerako	27,7	0,0	28,8	0,0	0,0	5,9	5,9	2,8	0,0	.	.
Txina	45,8	53,0	66,1	5,9	13,7	9,8	11,9	8,2	6,0	.	.
Senegal	56,8	49,6	66,9	16,2	19,7	19,7	2,2	2,2	7,9	.	.
Afrikako gainerako	0,0	43,9	15,0	11,8	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	.	.
Munduko gainerako	0,0	11,1	51,9	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	.	.
Guztira	14,4	17,9	43,5	14,9	5,0	4,7	3,7	4,7	4,1	.	.
2014											
EBko mendebaldea	1,3	21,8	32,3	4,5	0,0	0,0	0,0	1,2	0,0	.	.
Errumania eta EBko	12,8	19,2	69,2	20,8	8,1	4,5	0,0	8,4	8,5	.	.
Magreb	14,5	35,1	68,0	31,7	1,1	1,1	6,6	6,6	11,8	.	.
Argentina, Txile, Uruguai	7,4	0,0	42,4	2,3	3,4	2,3	0,0	3,4	0,0	.	.
Kolonbia, Ekuador, Peru	18,0	0,0	56,1	18,3	5,0	7,2	2,7	4,5	5,0	.	.
Bolivia	34,1	0,0	74,0	6,2	7,8	7,8	2,9	2,9	10,8	.	.
Paraguai	28,3	0,0	61,0	8,8	4,4	4,4	0,0	0,0	7,9	.	.
Brasil, Venezuela,	4,6	17,8	55,2	6,0	4,4	2,9	4,4	2,9	5,8	.	.
Latinoamerikako gainerako	7,2	0,0	74,1	6,4	10,4	10,4	13,1	10,4	8,3	.	.
Txina	10,8	45,2	78,0	27,2	8,4	6,0	7,3	10,3	12,6	.	.
Senegal	7,6	39,4	79,3	41,5	0,0	2,2	1,9	1,9	9,1	.	.
Afrikako gainerako	19,2	34,5	63,8	48,0	5,3	0,0	3,0	0,0	15,4	.	.
Munduko gainerako	19,0	55,9	57,5	29,0	1,9	1,9	5,4	1,8	11,7	.	.
Guztira	13,5	18,3	59,2	18,6	4,1	3,9	3,7	4,4	7,4	.	.
2018											
EBko mendebaldea	2,2	18,3	19,7	2,2	7,1	6,6	10,1	5,5	0,0	6,7	13,4
Errumania eta EBko	14,4	40,2	40,0	9,6	7,0	0,0	19,4	0,0	5,5	21,7	29,8
Magreb	28,4	41,1	28,7	19,4	3,0	3,0	26,4	13,5	20,4	22,6	37,9
Argentina, Txile, Uruguai	3,7	2,0	19,0	14,9	0,0	0,0	11,9	0,0	3,8	8,3	20,6
Kolonbia, Ekuador, Peru	17,7	0,0	14,4	17,5	7,8	9,2	13,2	3,2	3,8	8,5	25,3
Bolivia	17,4	0,0	38,2	17,3	10,3	11,0	31,0	10,2	6,8	6,2	50,9
Paraguai	2,0	0,0	33,3	12,7	8,7	15,0	30,8	2,2	4,7	7,7	44,1
Brasil, Venezuela,	8,3	4,7	33,1	31,1	5,4	5,4	10,5	5,4	8,7	12,4	23,1
Latinoamerikako gainerako	15,1	0,0	18,8	3,0	9,7	9,7	15,6	3,0	3,0	3,0	9,7
Txina	21,6	63,4	39,3	11,1	9,0	15,9	22,6	2,5	0,0	30,3	38,8
Senegal	11,7	49,6	24,2	46,6	3,5	7,9	15,4	5,3	17,2	38,9	34,7
Afrikako gainerako	33,7	48,5	41,2	29,5	19,0	21,1	31,8	7,3	17,4	18,5	37,3
Munduko gainerako	13,7	43,3	25,1	25,1	4,1	8,6	7,8	4,5	5,6	19,9	31,7
<b>Guztira</b>	<b>16,2</b>	<b>18,0</b>	<b>26,2</b>	<b>16,9</b>	<b>7,2</b>	<b>7,7</b>	<b>18,2</b>	<b>5,6</b>	<b>7,8</b>	<b>13,0</b>	<b>28,6</b>

Iturria: ABEI, 2010 eta 2018 arteko aldia Eusko Jaurlaritzan. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Ekonomia Azterlanen Bulegoa

**EDU-5. Ikasketa arautuak EAEn egin dituzten edo egiten ari diren 16 urteko eta urte gehiagoko atzerritar jatorriko biztanleak, lortu nahi duten ikasketa-mailaren eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2014 eta 2018 arteko aldia (% horizontalak)**

		Oinarrizkoak	Lehen mailako ikasketak	Bigarren mailakoak	Erdi-mailako Lanbide-ikasketak	Goi-mailako Lanbide-ikasketak	Erdi-mailako hirugarren mailakoak	Goi-mailako hirugarren mailakoak	Guztira
Jatorrizko eremua		% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.	% hor.
2014	EBko mendebaldea	0,0	4,9	5,5	11,0	42,3	14,3	21,9	100,0
	Errumania eta EBko ekialdeko herrialdeak	6,0	28,3	25,9	13,2	5,5	4,1	16,9	100,0
	Magreb	3,8	37,2	24,0	9,0	5,0	7,6	13,4	100,0
	Argentina, Txile, Uruguai	0,0	7,8	5,9	10,5	0,0	10,5	65,3	100,0
	Kolonbia, Ekuador, Peru	0,0	4,1	22,3	22,7	13,8	16,2	20,9	100,0
	Bolivia	0,0	0,0	32,7	18,6	37,9	6,3	4,4	100,0
	Paraguai	0,0	9,2	14,3	48,1	15,5	0,0	12,9	100,0
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublikak	0,0	0,0	22,7	23,4	15,2	4,8	33,8	100,0
	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	0,0	1,9	27,2	21,5	15,7	11,6	22,2	100,0
	Txina	0,0	0,0	54,4	0,0	0,0	6,8	38,9	100,0
	Senegal	14,8	36,8	13,2	14,5	9,6	5,8	5,3	100,0
	Afrikako gainerako herrialdeak	22,3	33,6	24,0	10,1	3,6	0,0	6,4	100,0
	Munduko gainerako herrialdeak	8,1	37,5	16,4	12,1	6,0	0,0	19,9	100,0
	<b>Guztira</b>	<b>3,6</b>	<b>16,6</b>	<b>21,0</b>	<b>16,3</b>	<b>12,7</b>	<b>8,2</b>	<b>21,5</b>	<b>100,0</b>
2018	EBko mendebaldea	0,0	0,0	9,3	17,3	14,9	9,3	49,2	100,0
	Errumania eta EBko ekialdeko herrialdeak	0,0	0,0	0,0	20,4	22,1	0,0	57,6	100,0
	Magreb	0,0	5,2	13,5	18,2	26,4	19,9	16,8	100,0
	Argentina, Txile, Uruguai	0,0	0,0	7,6	20,9	42,5	7,3	21,6	100,0
	Kolonbia, Ekuador, Peru	0,0	0,0	14,6	13,8	17,6	6,9	47,1	100,0
	Bolivia	0,0	10,0	14,8	12,4	23,2	21,9	17,7	100,0
	Paraguai	0,0	0,0	0,0	46,5	24,0	3,9	25,7	100,0
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublikak	0,0	2,5	28,9	14,3	23,7	11,9	18,7	100,0
	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	0,0	0,0	14,3	36,7	23,2	0,0	25,8	100,0
	Txina	0,0	0,0	60,3	7,8	0,0	0,0	31,9	100,0
	Senegal	27,9	9,5	17,4	37,0	8,2	0,0	0,0	100,0
	Afrikako gainerako herrialdeak	0,0	0,0	25,0	18,5	18,9	18,3	19,3	100,0
	Munduko gainerako herrialdeak	0,0	0,0	26,2	12,3	11,7	8,7	41,1	100,0
	<b>Guztira</b>	<b>0,5</b>	<b>2,4</b>	<b>16,2</b>	<b>18,6</b>	<b>21,2</b>	<b>11,1</b>	<b>30,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: ABEI 2014 Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Ekonomia Azterlanen Bulegoa



EDU-6. 16 urte eta urte gehiago dituzten atzerritar jatorriko biztanleak, gaztelaniaren jakintza-mailaren eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2018 arteko aldia  
(% horizontalak)

		Gaztelania			
	Jatorrizko eremua	Ona edo oso ona	Nahikoa	Mugatua/hobetu daitekeena	Ez daki
2010	EBko mendebaldea	93,1	3,8	3,1	0,0
	Errumania eta EBko ekialdeko beste batzuk	67,8	13,2	17,3	1,7
	Magreb	54,6	20,8	20,3	4,3
	Argentina, Txile, Uruguai	100,0	0,0	0,0	0,0
	Kolonia, Ekuador, Peru	99,6	0,4	0,0	0,0
	Bolivia	98,4	1,6	0,0	0,0
	Paraguai	99,9	0,1	0,0	0,0
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	89,2	6,5	4,3	0,0
	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	100,0	0,0	0,0	0,0
	Txina	22,0	30,1	45,3	2,6
	Senegal	49,4	28,0	22,2	0,4
	Afrikako gainerako herrialdeak	64,0	15,2	20,8	0,0
	Munduko gainerako herrialdeak	57,7	14,9	26,4	1,0
	Guztira	81,4	8,3	9,4	0,9
	2014	EBko mendebaldea	89,4	3,7	6,9
Errumania eta EBko ekialdeko beste batzuk		80,5	9,9	9,7	0,0
Magreb		70,5	16,6	11,8	1,1
Argentina, Txile, Uruguai		100,0	0,0	0,0	0,0
Kolonia, Ekuador, Peru		99,5	0,0	0,0	0,5
Bolivia		97,9	0,0	1,5	0,6
Paraguai		98,5	0,8	0,0	0,7
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika		92,7	3,9	2,9	0,5
Latinoamerikako gainerako herrialdeak		100,0	0,0	0,0	0,0
Txina		21,7	15,9	59,7	2,8
Senegal		66,0	17,8	15,3	0,8
Afrikako gainerako herrialdeak		54,1	26,2	19,7	0,0
Munduko gainerako herrialdeak		57,9	17,9	22,0	2,2
Guztira		83,4	7,7	8,4	0,6
2018		EBko mendebaldea	94,3	2,9	2,2
	Errumania eta EBko ekialdeko beste batzuk	83,6	7,7	7,9	0,7
	Magreb	63,9	20,5	13,5	2,1
	Argentina, Txile, Uruguai	98,3	1,1	0,6	0,0
	Kolonia, Ekuador, Peru	97,6	0,0	0,0	2,4
	Bolivia	95,6	1,5	1,4	1,5
	Paraguai	96,8	1,3	0,0	1,9
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	94,0	3,3	1,4	1,3
	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	96,7	2,2	0,0	1,1
	Txina	45,7	17,6	36,3	0,4
	Senegal	64,5	22,2	13,1	0,2
	Afrikako gainerako herrialdeak	61,9	20,3	17,8	0,0
	Munduko gainerako herrialdeak	61,6	16,6	20,1	1,7
	<b>Guztira</b>	<b>83,7</b>	<b>8,1</b>	<b>6,9</b>	<b>1,4</b>

Iturria: ABEI, 2010 eta 2018 arteko aldia Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Ekonomia Azterlanen Bulegoa

**EDU-7. 16 urteko eta urte gehiagoko atzerritar jatorriko biztanleak, euskararen jakintza-mailaren eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2018 arteko aldia  
(% horizontalak)**

		Euskara			
	Jatorrizko eremua	Ona edo oso ona	Nahikoa	Mugatua/hobetu daitekeena	Ez daki
2010	EBko mendebaldea	13,7	0,8	30,8	54,6
	Errumania eta EBko ekialdeko beste batzuk	2,5	0,3	24,4	72,7
	Magreb	3,8	1,5	19,8	74,9
	Argentina, Txile, Uruguai	3,7	1,1	47,0	48,2
	Kolonbia, Ekuador, Peru	1,3	1,1	30,8	66,8
	Bolivia	1,4	5,9	30,0	62,7
	Paraguai	0,0	0,0	27,3	72,7
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	2,8	2,8	35,1	59,4
	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	3,3	0,0	29,9	66,8
	Txina	0,4	0,5	13,2	85,9
	Senegal	0,7	0,0	28,8	70,5
	Afrikako gainerako herrialdeak	0,7	0,4	23,3	75,6
	Munduko gainerako herrialdeak	4,5	3,3	18,5	73,7
	<b>Guztira</b>	<b>3,8</b>	<b>1,5</b>	<b>28,0</b>	<b>66,7</b>
	2014	EBko mendebaldea	9,1	2,6	23,7
Errumania eta EBko ekialdeko beste batzuk		0,4	0,7	18,5	80,5
Magreb		1,9	0,8	19,2	78,1
Argentina, Txile, Uruguai		4,2	6,7	34,2	54,9
Kolonbia, Ekuador, Peru		2,1	1,9	25,1	70,9
Bolivia		1,2	0,6	35,2	63,1
Paraguai		2,3	0,8	18,5	78,4
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika		6,5	3,2	35,3	55,0
Latinoamerikako gainerako herrialdeak		2,7	0,4	25,0	72,0
Txina		3,3	0,9	7,3	88,6
Senegal		1,9	0,6	33,0	64,5
Afrikako gainerako herrialdeak		1,6	1,1	9,9	87,4
Munduko gainerako herrialdeak		3,1	0,4	17,2	79,2
<b>Guztira</b>		<b>3,1</b>	<b>1,6</b>	<b>23,5</b>	<b>71,7</b>
2018		EBko mendebaldea	9,1	5,3	38,8
	Errumania eta EBko ekialdeko beste batzuk	6,3	2,8	27,9	63,0
	Magreb	6,6	1,4	18,1	73,8
	Argentina, Txile, Uruguai	7,9	7,0	23,1	62,1
	Kolonbia, Ekuador, Peru	7,0	2,6	26,1	64,3
	Bolivia	9,2	4,2	31,8	54,8
	Paraguai	1,9	0,3	17,6	80,2
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	5,3	2,5	26,9	65,3
	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	4,0	1,1	25,0	69,9
	Txina	6,6	2,6	11,5	79,2
	Senegal	2,9	3,3	30,5	63,3
	Afrikako gainerako herrialdeak	4,6	1,9	15,3	78,2
	Munduko gainerako herrialdeak	3,8	1,2	18,2	76,8
	<b>Guztira</b>	<b>6,1</b>	<b>2,6</b>	<b>24,6</b>	<b>66,6</b>

Iturria: ABEI, 2010 eta 2018 arteko aldia Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Ekonomia Azterlanen Bulegoa





EDU-8. 16 urteko eta urte gehiagoko atzeritar jatorriko biztanleak, ingelesaren jakintza-mailaren eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010 eta 2018 arteko aldia  
(% horizontalak)

		Ingelesa				
	Jatorrizko eremua	Ona edo oso ona	Nahikoa	Mugatua/hobetu daitekeena	Ez daki	
2010	EBko mendebalde	28,8	8,8	12,6	49,8	
	Errumania eta EBko ekialdeko beste batzuk	12,5	8,2	26,4	53,0	
	Magreb	5,0	8,0	19,4	67,7	
	Argentina, Txile, Uruguai	21,6	17,3	26,1	35,1	
	Kolonia, Ekuador, Peru	5,8	4,6	33,0	56,6	
	Bolivia	2,9	3,5	30,2	63,4	
	Paraguai	1,7	6,1	20,9	71,2	
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	12,4	6,2	36,4	45,0	
	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	21,5	8,2	30,3	40,1	
	Txina	8,4	7,5	21,1	62,9	
	Senegal	5,9	2,2	25,2	66,7	
	Afrikako gainerako herrialdeak	29,8	7,9	17,8	44,6	
	Munduko gainerako herrialdeak	42,0	10,4	13,6	34,0	
	Guztira	14,4	7,4	24,8	53,4	
	2014	EBko mendebalde	40,0	7,4	10,6	42,0
Errumania eta EBko ekialdeko beste batzuk		16,7	11,6	23,9	47,9	
Magreb		8,8	7,9	20,6	62,7	
Argentina, Txile, Uruguai		25,8	14,2	32,3	27,7	
Kolonia, Ekuador, Peru		7,7	11,4	27,3	53,6	
Bolivia		4,0	6,3	22,5	67,2	
Paraguai		2,9	5,3	17,9	74,0	
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika		19,0	12,1	28,4	40,5	
Latinoamerikako gainerako herrialdeak		12,5	9,8	27,7	50,0	
Txina		6,2	6,6	14,5	72,7	
Senegal		13,0	9,8	24,0	53,2	
Afrikako gainerako herrialdeak		57,6	2,0	11,6	28,8	
Munduko gainerako herrialdeak		39,6	12,8	11,6	36,0	
Guztira		19,0	9,5	21,6	49,9	
2018		EBko mendebalde	39,5	7,0	18,9	34,7
	Errumania eta EBko ekialdeko beste batzuk	22,0	9,1	21,7	47,2	
	Magreb	6,4	7,4	20,3	65,9	
	Argentina, Txile, Uruguai	22,4	12,2	21,7	43,6	
	Kolonia, Ekuador, Peru	7,7	6,5	28,2	57,7	
	Bolivia	10,3	5,9	22,9	60,9	
	Paraguai	3,1	5,9	18,8	72,2	
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	16,0	8,9	24,0	51,1	
	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	11,6	3,1	19,7	65,5	
	Txina	8,9	5,9	25,6	59,6	
	Senegal	4,2	3,1	17,0	75,6	
	Afrikako gainerako herrialdeak	47,7	11,5	17,7	23,1	
	Munduko gainerako herrialdeak	35,6	9,9	16,5	37,9	
	<b>Guztira</b>	<b>17,4</b>	<b>7,4</b>	<b>21,7</b>	<b>53,5</b>	

Iturria: ABEI, 2010 eta 2018 arteko aldia Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Ekonomia Azterlanen Bulegoa

**EDU-9. Beste hizkuntzaren bat ondo edo oso ondo dakiten 16 urteko eta urte gehiagoko atzerritar jatorriko biztanleak. 2010 eta 2018 arteko aldia  
(Datu absolutuak)**

Hizkuntza	2010	2014	2018
	Abs.	Abs.	Abs.
Alemana	3.382	3.931	3.189
Amazigera edo berberera	4.025	3.151	3.291
Arabiera	19.216	22.387	23.867
Txinera	3.916	4.042	3.919
Frantsesa	25.988	33.047	19.956
Guaraniera	4.164	3.640	4.328
Italiera	3.358	3.789	2.833
Poloniera	612	1.007	1.752
Portugesak	17.479	14.725	13.463
Errumaniera	13.905	14.030	13.257
Errusiera	5.581	5.852	4.369
Tagaloka	671	803	1.229
Ukraniera	2.174	1.786	2.151
Urdua	1.845	3.586	4.607
Wolofera	1.839	2.895	2.844

Oharra: Hizkuntza ondo edo oso ondo dakitenen kopurua 1.000tik gorakoa duten hizkuntzak bildu dira

Iturria: ABEI, 2010 eta 2018 arteko aldia Eusko Jaurlaritzak. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Ekonomia Azterlanen Bulegoa



## 4. LAN-ESPERIENTZIA EAE-N

### 4.1. Lana eskuratzeari buruzko alderdi orokorrak

52.- 2014an bezala, atzerritar jatorriko 16-66 urteko biztanleen % 86,2 EAEn edozein enplegu lortzeko moduan daude; hots, 2010ean (% 78,8) baino gehiago. % 0,1ek baino ez dituzte mugak lurraldeari edo jarduera-adarrari lotuta: etengabe beheraka 2010. urtearekin (% 0,9) alderatuta. % 6k, ordea, enplegu irregularrak baino ezin dituzte eskuratu, eta % 7,6k ez dute uneotan lan egin nahi.

Enplegu irregularrak soilik eskura ditzaketenen proportzioa 2010etik (% 10,7) etengabe txikitu da, baina 2014 eta 2018 artean, berriz, gora egin du orain lan egin nahi ez duten 16-66 urteko pertsonen proportzioak: % 5,5etik % 7,6ra; hala ere, proportzio hori 2010ekoa (% 9,5) baino txikiagoa da.

Lanpostu irregularrak soilik lor ditzaketenen biztanleen proportzioa gutxitzeko joera 2010etik oro har luzatu arren, problematika horrek garrantzia izaten jarraitzen du 2018an talde batzuetan, daukaten jatorriaren arabera. Proportzioa % 5,6 eta % 7,1 artekoa da jatorria Magreben, Bolivian eta Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublikan duten pertsonen artean. Inpaktua handiagoa da, % 9,7 eta % 11,9 artekoa, Paraguai, Senegal eta munduko gainerako herrialdeetatik etorritako pertsonen artean. Proportzioa % 15,7 da Latinoamerikako gainerako herrialdeetan, eta baliorik handiena (% 20,5) du Afrikako gainerako herrialdeetan; izan ere, kolektibo horretan soilik gainditu dira 2018an 2010eko eta 2014ko mailak.

53. Guztira, atzerritar jatorriko 16-66 urteko 128.950 pertsonak izan dute inoiz lan-esperientzia bat EAEn. Adin-tarte horretako etorkinen % 81,2 dira: baliorik handiena 2010ean % 78,8 eta 2014an % 76,8 izan ondoren.

2018an, adierazlea % 88,3 eta % 94,8 artekoa izan da Latinoamerikatik (Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublika soilik salbuetsita) eta Txinatik iritsitako ia talde guztietan. Oraindik erre EAeko batezbestekoaren gainetik, % 82,4 eta % 84,8 artekoa da jatorria EBko mendebaldeko herrialdeetan, Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublikan eta Senegalen duten pertsonen artean. Batezbestekotik beheraxeago, adierazlea % 75,2 eta % 78,9 artekoa da munduko gainerako herrialdeetan eta Errumanian nahiz EBko gainerako herrialdeetan.

EAEn aurretiazko lan-esperientzia izan duten 16 urtetik gorako pertsonen proportzioa Magreben kasuan (% 62,8) eta Afrikako gainerako herrialdeenean (% 63,8) baino ez da argi eta garbi txikiagoa. Proportzio horrek egiturazko ezaugarriak ditu lehen taldean, mailak egonkorrak izaki 2010-2018 aldian (% 62,3 eta % 63,1 artean), baina Afrikako gainerako herrialdeetan gorakada argia izan da 2014tik (% 54,2), baina oraindik 2010eko baliora (% 66) iritsi gabe.

EAEn lan-esperientzia duten biztanleek eskuratzen dituzten enpleguak pertsonen prestakuntza-mailaren arabekoak dira kasuen % 80,4an, nabarmen gehiago 2010ean (% 69,9) eta 2014an (% 77,6) baino. 2018an, maila horren azpitik daude kasuen % 18,9an eta gainetik % 0,7an.

Prestakuntza-mailaren azpiko lanpostuak betetzeak gehien eragindako kolektiboek ia % 19 eta % 20 arteko balioak edo handiagoak dituzte, eta Errumaniatik eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuetatik, Latinoamerikako lurralde gehienetatik (Argentina/Txile/Uruguai eta Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublika salbuetsita, % 15,8 eta % 17,3 arteko balioak baitituzte) eta munduko gainerako herrialdeetatik iritsitako biztanleak barruan hartzen dituzte.

## 4.2. Azken urteko lan-esperientzia

54. Enplegua eskuratzeko oraintsuko (azken urteko) prozesuei dagokienez, adin aktiboan dauden (16-66 urte dituzten) eta EAEn lan-esperientzia daukaten atzerritar jatorriko biztanleen artean, honako kontu hauek aipatu behar dira:

a) Kontuan hartutako biztanleen % 86,5ek kontaktua izan dute enpleguarekin azken urteko uneren batean, eta proportzio hori berriz izan da 2010ean (% 86,7) izandakoaren antzekoa (ia hamar puntu galdu ondoren 2014an % 76,8 izan arte). % 70,5ek enplegu bakarra izan dute, 2014an (% 68k) baino gehiagok, baina oraindik 2010ean (% 72,6k) baino gutxiagok. Azken urtean bi enplegu edo gehiago izandako pertsonak emendatu dira gehien, % 16 izan baitira: ez bakarrik 2014an (% 8,8) baino gehiago, bai eta 2010ean (% 14,1) baino gehiago ere.

Azken urtean enplegurik izan ez duten biztanleak kontsideratzean eremu geografikoaren arabera (% 13,5 EAE osoa), Txinako aurretiazko lan-esperientziako biztanleen % 2k soilik ez dute izan enplegurik azken hamabi hilabeteetan, eta proportzio hori % 5,5 izan da Latinoamerikako gainerako herrialdeetan. Adierazlea % 8,7 eta % 12 artekoa da Errumaniatik eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuetatik, Kolonbia/Ekuador/Perutik, Paraguitik eta Senegaldik iritsitakoaren artean.

Proportzioa EAeko batezbestekoa baino handiagoa da, % 14,3 eta % 17,4 artekoa, jatorria EBko mendebaldeko herrialdeetan, Argentina/Txile/Uruguain, Bolivian, Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublikan eta munduko gainerako herrialdeetan dutenei dagokienez. Baliorik handienak ditu, % 23,1 eta % 26,8 artekoak, Magrebetik eta Afrikako gainerako herrialdeetatik iritsitako biztanleen artean.

b) Adin aktiboan dauden eta EAEn lan-esperientzia izan duten biztanleen % 12,1ek gutxienez enplegu irregularren bat izan dute azken urtean; proportzio hori 2014koa (% 18,5) baino txikiagoa da, baina 2010ekoa (% 9,5) baino handiagoa. Enplegu irregularra lortzeko goranzko joera hori ia errealitate orokortua izan da 2014 eta 2018 artean, EBko mendebaldeko herrialdeetatik, Txinatik eta Latinoamerikako gainerako herrialdeetatik iritsitako biztanleak salbuetsita.

Azken urtean, enplegu irregularrak eskuratzeari dagokionez, proportziorik handiena (% 29,7) Paraguitik iritsitakoei egokitu zaie. Proportzioa % 19,2 eta % 22,8 artekoa da jatorria Bolivian, Latinoamerikako gainerako herrialdeetan eta Afrikako gainerako herrialdeetan duten pertsonen dagokienez. Gainerako taldeetan, proportzioak % 7,1 eta % 12 artekoak dira, Txinaren eta EBko mendebaldeko herrialdeen kasuan izan ezik, zeinetan hutsak edo oso txikiak baitira (% 1,3 europar jatorriko taldean).

c) Azken urtean EAEn egiazko enplegu-esperientzia izan duten 16-66 urteko atzerritar jatorriko biztanleei dagokienez, % 29,8k diote EAEn emandako aldi horretan lanean egoera arazotsuren bat izan dutela. Balioa 2010ekoa (% 35,7) baino nabarmen txikiagoa da, eta hamarren batzuk baino ez txikiagoa 2014koa (% 29,3) baino.

Izandako arazoen zentroak, populazioaren % 25,8ri eragiten baitio, zerikusia du oraindik ere lanaldiari, soldadari edo kontratuari lotutako arazoekin. Proportzioa 2014koaren antzekoa da (% 25,5), baina 2010ekoa (% 31,1) baino txikiagoa.

Atal horren barruan, arazo nagusiak aparteko orduak eta kontratuan ezarritakoak baino lanaldi luzeagoak egin beharri buruzkoak dira; hurrenez hurren, biztanleen % 13,6k eta % 12,6k izan dituzte halako arazoak. Berriz ere, problematiken inpaktuak behera egin du 2010etik, baina oraingoan gorakada argiagoa izan da 2014 eta 2018 artean, bai aparteko orduak egin behar izateari dagokionez (% 15,5etik % 12,7ra 2010 eta 2014 artean, baina % 13,6 2018an), bai kontratatutakoak baino lanaldi



luzeagoak egin behar izateari dagokionez (% 12,5 2010ean; % 11,8, berriz, 2014an eta % 12,6, azkenik, 2018an).

Lanaldia, soldata eta kontratua biltzen dituen atalari dagokionez, beste arazo garrantzitsu bat da soldata txikiagoa izatea gainerako langileena baino. Eragindako pertsonak % 7 dira, 2010ean % 9,1 eta 2014an % 8,1 izan ondoren.

Horrekin batera, kolektiboaren % 4,1-% 6,2k nabarmendu du soldata arautua edo kontratuan ezarria baino txikiagoa dela, ez dela betetzen atsedeen-eskubidea, edo lan irregularra egin behar dela enpresariak nahi duelako. Biztanleen % 1,6 – 1,8k bestelako egoerak aipatu dituzte, hala nola soldata araututakoa baino handiagoa izatea edo lanaldia kontratukoa baino laburragoa. Kasu horietan guztietan, adierazleetan nolabaiteko jarraitutasuna dago 2010eko eta 2014ko balioak kontuan hartuta, portzentajezko +/-1,5 puntutik gorako edo beherako aldaketarik gabe. Hala ere, batik bat lan-inpaktu handieneko kasuetan, joera nagusia da aipatu inpaktuak behera egitea 2010 eta 2014 artean, eta 2014-2018 aldian goranzko joera txiki baino bistakoa gertatzea.

Azken urtean lan-esperientzia izan duten atzeritar jatorriko biztanleen % 9,8k mailaz igotzeko aukerei, ardurak hartzeko aukerei eta tratu pertsonalari lotutako arazoak aipatu dituzte. Ehuneko hori 2010ekoa (% 10,9) baino txikiagoa da, baina, era berean, handiagoa 2014koa (% 8,2) baino.

Atal honetan, kolektiboaren % 3,8k aipatu du mailaz igotzeko aukerarik eza atzeritar izateari lotuta; 2010ean (% 4,8) eta 2014an (% 4,3) baino gehiagok. Beste adierazle batzuetan, ordea, 2010. urteaz geroztiko baliorik handienak izan dira 2018an. Eta hala, % 4,1-% 5,3k esan dute tratu umiliagarria jaso dutela edo zeregin txarretan zokoratu dituztela atzeritarrik izateagatik; % 3,5ek diote ezin dutela ardurarik hartu atzeritar izateagatik; eta % 3,0k, berriz, lankideek bakartzen edo baztertzen dituztela (azken kasu horretan proportzioak 2010ekoen antzekoak dira).

% 4,6k, bestalde, lana eta seme-alabak zaintzeko aukera ezin bateratuzkoak direla esan dute; proportzio hori 2010ekoa (% 5,3-% 5,4) baino txikiagoa da. % 1,9k, 2010ean (% 2,6) eta 2014an (% 2,3) baino gutxiagok, diote segurtasun-maila txikiagoak dituztela lanean.

2018an, kontuan hartutako pertsonen % 7,1ek diskriminazio-egoeraren bat aipatu dute: % 5,6k aipatua arrazaren edo etniaren ondoriozkoa zen; % 5,3k esandakoa nazionalitatearen arabera; eta % 1,1ek jakinarazitakoa, erlijioaren arabera.

Lan-baldintzak eremu geografikoen arabera behatuta (eremu horiek multzokatuta), ikusten da ABEIn aztertutako problematiketik 2018an eragin handiagoa dutela Afrikako gainerako herrialdeetatik (Senegal barne hartuta) iritsitako biztanleen artean. Kolektibo horretan, aztertutako pertsonen % 39k diote lan-arazoren bat izan dutela azken urtean; proportzioa 2014koa (% 26,4) baino askoz handiagoa da, eta hurbil dago 2010ekotik (% 41).

Azaldutako kontu nagusiek mailaz igotzeko arazoekin, ardurak hartzearekin eta tratuarekin dute zerikusia, eta eragindako pertsonak % 28,8 dira, atzeritar jatorriko biztanleen batezbesteko orokorra baino ia hiru bider handiagoa. Ehuneko hori, halaber, handiagoa da lanaldi-, soldata- edo kontratu-arazoei dagokiena (% 25,1) baino. Talde honetan, gainera, handiena da laneko diskriminazio-egoeren inpaktua (% 12,2).

Kasu honetan balioa 2010ekoa (% 42) baino txikiagoa izanda ere, lan-arazoak dituzten pertsonen proportzio handiena duen bigarren kolektiboa (% 34,9) Hego Amerika andetarretik eta Paraguaitik iritsitakoa da. Kolektibo horretan, erabakigarriak dira lanaldiari, soldadari eta kontratuari lotutako

arazoak, eta pertsonen % 31 daude eraginda. Mailaz igotzeari, ardurak hartzeari eta tratuari lotutako arazoak dituzten pertsonen proportzioa maila ertainetan (% 10,0) egonda ere, hautemandako diskriminazioari lotutako arazoaren inpaktua ere EAEko batezbestekoaren gainetik dago, eragindako pertsonak % 9,9 izaki. Diskriminazioaren ikuspuntutik, EAEn gehien eragindako bigarren taldea da.

Arazo orokorren inpaktua hurbil dago Latinoamerikako gainerako herrialdeetan, % 34,2 baita, eta 2010etik izandako baliorik handiena delako berezitasuna dauka (% 31,7 2010 hartan eta % 28,7, berriz, 2014an). Mailaz igotzeari, ardurak hartzeari eta tratuari lotutako arazoaren inpaktua EAEko batezbestekotik hurbil egonda (% 10,1) eta, diskriminazioari dagokionez, batezbesteko hori baino txikiagoa izanda (% 6,2), esparru problematiko nagusia lanaldi-, soldata- edo kontratu-arazoei lotuta dago berriz ere. 2018ko maila (% 31,4) handiena da horrelako problematiketan atzeritar jatorriko biztanle-taldearen barruan.

Magrebtar jatorrikoen % 27,2k aztertutako arazo orokorren arteko baten bat aipatzen dute: 2014an baino gehiagok (% 22,1), baina argi eta garbi 2010ean baino gutxiagok, urte hartakoa baliorik handiena izan baitzen (% 34,2). Diskriminazio-arazoaren inpaktua maila ertainetan (% 7,2) dago kasu honetan ere, eta mailaz igotzeari, ardurak hartzeari eta tratuari lotutako arazoek kolektiboaren % 12,2ri eragiten diote (EAEko batezbestekoari baino gehiagori). Lanaldi-, soldata- edo kontratu-arazoak, ordea, berriz ere nabarmendu dira, baina proportzioa, % 22,9, EAEko batezbestekoa baino txikiagoa da.

Aurreko taldetik oso hurbil, EBko mendebaldekoak ez diren gainerako herrialdeetako biztanleen % 26,1ek esan dute lan-arazoaren bat izan dutela azken urtean. Kasu horretan, ordea, beherakada oso adierazgarria da, eta jarraitua gainera, 2010. urtearekin (% 40) alderatuta, eta hobekuntza hori aztertutako arazo-bloke handi guztietan gertatu da. Kolektibo horretan, diskriminazio-arazoek edo mailaz igotzeari, ardurak hartzeari eta tratuari lotutako arazoek eragin txikiagoa izan dute (% 3,6 eta % 5,3, hurrenez hurren), eta arazo nagusiak lanaldiari, soldatari edo kontratuari lotuta daude berriz ere. 2018ko balioak (% 22,8), ordea, argi uzten du jaitziera handia eta jarraitua gertatu dela 2010etik (% 34,4), eta, horregatik, kolektiboa lehenengo aldiz jarri da kontu honetan EAEko batezbestekoaren azpitik.

Lan-arazoaren inpaktua askoz txikiagoa da Txinatik (% 19,0) eta munduko gainerako herrialdeetatik (% 17) iritsitakoaren artean. Baliorik txikiena (% 10,6) EBko mendebaldeko herrialdeetan izan dute. Talde horiek ezaugarri dute inpaktua beti argi eta garbi txikiagoa izatea EAEko batezbestekoa baino kontuan hartutako arazo-bloke guztietan. Atzeritar jatorriko hiru langile-kolektibo horietan, azpimarratu beharreko beste ezaugarri bat da, alde batetik, nabarmen hobetu dela egoera 2018an 2010eko adierazleez den bezainbatean (lan-arazoetan, % 10,6 eta % 28,2, hurrenez hurren, EBko mendebaldeko herrialdeetan; eta % 17 eta % 27,8 munduko gainerako herrialdeen kasuan), eta, bestetik, ehunekoak oso antzekoak direla, Txinatik iritsitako kolektiboan gertatzen den bezala (% 19 2018an eta % 18,3, berriz, 2010ean).

ABEIk kontuan hartutako problematika espezifikoen azterketa zehaztuak, bestalde, honako hau erakusten du:

\* Azken urtean EAEn lan-esperientzia izan duten atzeritar jatorriko biztanleen artean gehien zabalduko problematikak kontratuan ezarritakoak baino lanaldi luzeagoak egiteari eta aparteko orduak egiteko beharrari lotuta daude.



Afrikatik, Latinoamerikatik eta EBko ekialdeko herrialdeetatik iritsitako kolektiboetako biztanleen artean arazo horiek eragindakoen proportzioa % 11,3 eta % 16,9 artekoa da. Kolektibo horietatik kanpo, ordea, proportzioa % 8,3 da munduko gainerako herrialdeetan, aparteko orduak egin beharrari dagokionez, eta % 14,2 txinatar jatorriko biztanleen artean, kontratukoak baino luzeagoak diren lanaldiei dagokienez.

- \* Era berean, lanaldiari, soldatari edo kontratuari lotutako arazoen barruan, beste problematika batzuen inpaktuak ere gainditzen ditu noizean behin % 10etik gorako mailak. Hala gertatzen da, gainerako langileek baino soldata txikiagoak jasotzeari dagokionez, etorkia Afrikako eta Latinoamerikako gainerako herrialdeetan duten biztanleen artean (% 14,8 eta % 11,7, hurrenez hurren). Orobat esan daiteke, azken biztanleria mota horri dagokionez, atsedeen-eskubidea ez betetzeaz (% 11,2). EAEko batezbesteko proportzioaren gainetik daude, halaber, magrebtarren kolektiboa (% 7,5) gainerako langileenak baino soldata txikiagoak jasotzeaz den bezainbatean, eta jatorria Hego Amerika andetarrean eta Paraguain dutenak (% 7,6) atsedeen-eskubidea ez betetzeari dagokionez.

EAEko batezbestekoaren gainetik, baina % 10etik beherako mailekin, Afrikatik eta Latinoamerikako gainerako herrialdeetatik iritsitako kolektiboen % 6,5-% 7,8k nabarmendu dute araututakoak baino soldata txikiagoak ordaintzen zaizkiela. Ildo beretik, etorkia Latinoamerikan edo Afrikako gainerako herrialdeetan duten kolektiboen % 5,1-% 6,3k diote lan irregularrak egiten dituztela enpresak nahi duelako.

- \* Mailaz igotzeari, ardurak hartzeari eta tratuari lotutako arazoei heltzean, jatorria Afrikako gainerako herrialdeetan duten biztanleen prekaritate diferentziala da gehien nabarmentzen dena. Kasu honetan, kolektiboaren % 11,3k (bakartzeari edo baztertzeari dagokionez) eta % 19,3k (lan okerragoetan zokortzeari dagokionez) adierazi du arazoak daudela ABEI inkestan kontuan hartutako problematika bakoitzaz den bezainbatean.

Inpaktua askoz txikiagoa da beste talde batzuetan, baina, era berean, nabarmendu behar da magrebtar jatorriko biztanleen % 6,3-7,4k hainbat arazo aipatu dituztela, zerikusia dutenak maila-igoerak oztopatzearekin, ardura handiagoak ezin hartu ahal izatearekin, eta pertsonak lan okerragoetan zokortzea dakarten jarrerak izatearekin. Jatorria Latinoamerikako gainerako herrialdeetan duten pertsonen % 6k azken egoera hori aipatu dute, eta % 4,3k, berriz, tratu umiliagarria. Bestalde, etorkia Hego Amerika andetarrean eta Paraguain duten biztanleen % 5,1ek ere tratu umiliagarri hori aipatu dute, EAEko batez besteko mailatik gorako mailetan aipatu ere, eta oso urrun kasu bietan baliorik handienetik (% 13,9), zeina jatorria Afrikako gainerako herrialdeetan duten biztanleen artean gertatu baita.

- \* Aipatu den bezala, diskriminazio-arazoen inpaktua oso deigarria da jatorria Hego Amerika andetarrean eta Paraguain (% 9,9) eta Afrikako gainerako herrialdeetan (% 12,9) duten biztanleen kasuan. Bi kasutan, ia % 10 edo gehiago dira etniaren edo arrazaren ondorioz hautemandako diskriminazioari buruzko aipamenak (% 8,3 eta % 12,9), baina jatorria Magreben eta Latinoamerikako gainerako herrialdeetan duten biztanleek ere aipatzen dute (% 4,2 eta % 5 artean). Izan ere, diskriminazio-arazo orokorrek garrantzia dute bi talde horietan, eta hautemandako inpaktua erreferentziazko kolektiboen % 7,2 eta % 6,2 artekoa da.

Nazionalitatearen ondoriozko diskriminazioa aipatu lau talde horietakoren bateko biztanleen % 4,2-7,7k aipatu dute. Erljioari lotutakoa, halaber, garrantzitsua da Afrikako gainerako herrialdeei eta Magrebi dagokienez (% 4,1 eta % 2,9).

\* Jatorria Afrikako lurraldeetan, Hego Amerika andetarrean eta Paraguain eta EBko ekialdeko herrialdeetan duten biztanleen kasuan, seme-alabak zaindu ahal izateko kontziliazio-arazoen % 5,1 eta % 6,3 arteko inpaktua ere aipatu behar da, mailak txikixeagoak izan arren. EBko ekialdeko herrialdeetako eta Magrebeko biztanleen artean, laneko segurtasun txikiagoa ere aipatu duten azken urtean lan-esperientzia izan dutenen % 4,1-4,7k.

### **4.3. Lanarekiko gogobetetasuna**

55. Ikusitako egoera problematikoak gorabehera, lan-baldintzen balioespena positiboa da, oro har, gaur egun EAEn lan egiten ari diren atzeritar jatorriko biztanleen artean. Gogobetetasuna eta gogobetetasunik eza alderatuta<sup>7</sup>, polo positiboaren aldeko diferentziarik handiena; 80 puntukoa edo handiagoa, nagusiekiko harremanari, lanaren baldintza materialei edo bizimodura egokitzeari (kultura, erlijioa eta abar) dagokie. Esparru horietan, oro har, balioak 2010ean eta 2014an baino hobeak dira, aginte-postuetan daudenekiko harremanak salbuetsita. Kasu horretan, pertzepzio garbi positiboa 85,9-86,0 puntukoa izan zen 2010-2014 aldian, baina txikiagoa 2018an, 81,6: oso handia. Nolanahi ere.

80 puntura iritsi gabe bada ere, gogobetetze-poloranzko diferentzia garbia 72,4 eta 77,8 puntu artekoa da okupazioaren arrisku-mailari, lan-erritmoari eta, oro har, lanaren gogortasunari dagokienez. Alderdi horietan guztietan, egoera oso nabarmen eta etengabe hobetu da 2010 eta 2018 artean (56,5 puntutik 72,4ra gogortasun-mailari dagokionez; 64,0tik 77,8ra arrisku-mailari dagokionez; eta 69,2tik 77,7ra lan-erritmoari dagokionez).

Era berean, hobekuntza garrantzitsua gertatu da, baina ez beti jarraitua, eta 65,7-66,7 puntu positibokoa, lan-ordutegiari dagokionez (56,2 puntutik 65,7 puntura 2014 eta 2018 artean, lehenago, 2010etik, 63,0 puntutik behera egin ondoren), bai eta lanari lotutako estresari edo presio psikologikoari dagokionez ere (kasu honetan etengabe gora eginez 2010 eta 2018 artean: 55,8 puntutik 66,7 puntura).

2010ean eta 2014an bezala, lan-baldintzetako bi alderdi espezifikotan baino ez dira txikiagoak gogobetetasunaren eta gogobetetasunik ezaren arteko aldeak: ordainsarrietan eta mailaz igotzeko aukeretan. Hala ere, hobekuntza oso handia izan da 2014 eta 2018 artean aipatu bi kontu horietan. Hartara, ordainsariari dagokionez, gogobeteta dauden eta ez dauden pertsonen arteko diferentziak gora egin du 2010 (27,7 puntu), 2014 (32,2) eta 2018 (51,8) artean. Mailaz igotzeko aukerari dagokionez, 2010 eta 2014 artean 22,6 puntutik 17,1 puntura jaitsi ondoren, diferentzia 45,2 puntukoa izan da 2018an: 50 puntutik beherako balio bakarra. Kontu hori, nolahi ere, gogobetetasun-maila txikiaren faktorea da 2018an, eta maila handienekoa gogobetetasunik ezari dagokionez (% 70,5 eta % 25,3, hurrenez hurren).

Ikuspegi orokorrago batetik, postuaren eta lanaren edukiaren balorazio positiboa % 87,2- % 88,2 ingurukoa izan da 2018an, handiagoa 2014koa (% 86,4-% 87,1) eta 2010ekoa (% 83-% 83,7)) baino. Gogobete gabeko parteak % 11,6-% 12,5 ingurukoa izan da 2018an, txikiagoa lan-esperientzia duten biztanleei dagokienez 2014an izandako balioa (% 12,6-% 13,2) eta 2010ean izandakoa (% 16,1-% 16,6) baino. Lanpostuari dagokionez, gogobetetasunaren eta gogobetetasunik ezaren diferentziek gora egin

---

<sup>7</sup> Gogobetetasunaren eta gogobetetasunik ezaren inpaktua erkatzeko, atal honetan, aztertutako item bakoitzerako, gogobeteta dauden eta ez dauden pertsonen proportzioaren arteko diferentzia –edo diferentziala– (gogobeteta daudenen ehunekoa eta gogobeteta ez daudenen ehunekoa) arteko kenketa eginez) jasotzen duen adierazlea erabiltzen da. Adierazlearen balio positiboek pertsona gehienak gogobeteta daudela islatzen dute (balorazioaren polo positiboa); maximoa +100 litzateke biztanle guztiak gogobeteta baleude. Balio negatiboek, aldiz, pertsona atsekabetuen nagusitasuna islatzen dute (balorazioaren polo negatiboa); minimoa -100 litzateke aztertutako biztanle guztiak atsekabetuta baleude. 0 balioak gogobetetako eta atsekabetutako pertsonen ehuneko berdina islatzen du.





dute: portzentajezko 67,6 puntu 2010ean, 73,2 puntu 2014an eta 74,7 puntu 2018an; lanaren edukiari dagokionez, berriz: 66,4 puntu 2010ean, 74,5 2014an eta 76,6 2018an.

Talde guztietan dira nagusi lanpostuari eta lanaren edukiari buruzko balorazio positiboak, baina 2018an oraindik garrantzitsuak dira eremu geografikoaren araberrako aldakuntzak. Bi kontu horietan gogobetetasunaren nagusitasuna 92,5 puntu positibotik gorakoa da Txinatik eta EBko mendebaldeko herrialdeetatik iritsitako biztanleen artean, talde horietan hobekuntza nabarmena gertatu baita 2014 eta 2018 artean. Bi taldeotan, balorazio positiboaren dimentsio garbia beti da 2018an 70 puntutik gorakoa lan-baldintzei dagokienez kontuan hartutako alderdi guztietan.

Lanpostuari eta lanaren edukiari dagokienez, adierazlea 80 puntu positibotik gorakoa da munduko gainerako herrialdeen kasuan. Kasu horretan, polo positiboranzko balioak mailaz igotzeko aukerei, ordainsariari eta lan-ordutegiari dagokienez baino ez dira 70 puntutik beherakoak.

Lanpostuaren eta lanaren edukiaren balorazioan, alde positiboranzko diferentziak 73,3-76,8 puntu positibokoak dira EBko ekialdeko herrialdeetatik eta Hego Amerika andetarretik nahiz Paragwaitik iritsitakoen artean. Kasu horietan, alde positiboranzko diferentziak 60 eta 70 puntu artekoak dira ordutegiari eta estres edo presio psikologikoari dagokienez; 40,3-53,1 puntukoak ordainsariari dagokionez; eta 35,9-46,7 puntukoak enpresan mailaz igotzeko aukerei dagokienez.

Latinoamerikako gainerako herrialdeetatik eta Magrebetik iritsitako biztanleen kasuan, diferentzia positiboak 70,1 eta 72,0 puntu artekoak dira lanpostuari eta lanaren edukiari buruzko iritzitari dagokionez. Arazo espezifikoei dagozkien diferentziak aurreko taldera hurbiltzen dira Latinoamerikako gainerako herrialdeetan, baina, Magreben, 60 puntutik hurbil edo behera dauden adierazleak ordutegira, erritmora, lanaren gogortasunaren eta arriskuen mailara hedatzen dira, bai eta estres edo presio psikologikora ere.

